

PERU eta MARI, gureak



Augustin Zubikarai

**PERU ETA MARI,
GUREAK**

© AUGUSTIN ZUBIKARAI

Legerako Gordetza **BI** 1.752-85
Depósito Legal

ISBN 84-398-5088-3.

Argitaldaria GAUBEKA Irarkola - Gernika

Marrazkiak:

Azala: Felix Beristain

Barrukoak: P. Zubikarai

Augustin Zubikarai

**PERU ETA MARI,
GUREAK**

1985

Azalpena

Gure erria ipuiñez beteta dago.

Zeinek gogoratu ez bakoitzaren umetakoak?

Kezka barik gebiltzanean, atsegiña billatu ni izaten ba gendun, edo bare-aldia, zelan gura ez kezketan ia itota eta usterik gitxienetan atsekabez beteta itxartu eta lotaratzan garean denporetan?,

Lengo ipuiñak ametsetan sortuak ziran geienak.

Gaurkoak, bizitzako irakatsietatik aukeratuak dira.

Batzuk bizi egin doguz eta gure artean ezagutu. Ikusi eta ikasi. Eta esan, edo ta idatzi. Nai eta negar egitekoak gertatu, atsedena ekarten dautse gogoari kontakizunak.

Origaitik eta orretan dator gaurko PERU ETA MARI, GUREAK, liburu au.

Egilleak, ainbat ipuin eta kontakizunen leiaketetan saritua izateko aukera euki dau. Olakoak dira emen argitaratzen diran geienak.

«Gureak» deitura ipini dautsat. Bizkai'tik kanpora ere sarituak izanarren, Bizkaía'n iruditu edo gertatuak diralako, au da, egillearen inguruan, eta bizkaieraz idatziak diralako.

Batzuntzat bizkaiera aitatzea be setakeri edo itsukeri jokoa dala uste izanarren, ba dakigu euskaldun landu batek erraz irakurten dauala gaur ango edo emengo euskera, errikoi eta biurrikeri barik idatzi ezkeru, eta alegin onetan jokatzen eta jarraitzen dogu.

Origaitik Bizkai'tik Euskalerra guztiarentzako duaz nire opari eta eskintza, onartuak izango diran itxaropenez.


Eta Peru eta Mari, jatorrak, iñoiz nastetsu ibiliarren, ondo konpontzera elduten ziran lez, alegin gaitezen gu ere alkarri berea ezagutzen.

Eskintza:

*96 urte beteta
kaleetan ni baiño
bizkorrago dabillan
izeko Emili'ri,
zarrak eta euskera
kalean gaztetzen ei dira-ta.*

GEUK IKUSI GENDUZAN

(Erregetako ipuiña)



GEUK IKUSI GENDUZAN

Gabeko zortzirak ordurako, lo konkorrak jota egoten ziran Ibon eta Abel egunero.

Matraillak gorri-gorri, nai aiña esne sopa artu ondoren. Berez oera joateko almenik. be ez eben eukiten.

Egun aretan, baiña, itxaropen berezien bat euken, Erregeak, eta eguerdian bezin tente ta bizi ebiltzan.

Jo bederatziak eta alkarri txopinka, olgetan, zirri ta tirri.

-Kortzeleko Mamuari deitzea nai? amak.

Zeñeri? Leokadi'ri? A kalean bai, baiña etxetan ez da sartzten.

-Nok daki?

Orí esaten ekian aitak, ez zara gogoratzen?

Bestetan Marixe Beikañeko Arrigorritik zortziretarako etorten da ta, gaur, a be ez ete da agertuko?

-Ama, a bera be erregiekin ibiliko da. Ziur. Ez dozu pentsaten?

Ez dakizu? Gaur Erregiak datoz.

Bai, txotxo. Geiegi dakidaz nik orrelako gauzak. Baiña, ez dakizue, egunero lez lotara joan ezik, areik ikatza lagaten dabela?

Bai, ama, baiña areik etorten igarri orduko, gu, dsast!, sartzuko gara oean.

A ze alperrik! Ez dakizue aingeruak daukezala, zein zer, zelako, nun bizi dan, lotan dagon edo ez esaten dautsenak?

Sekula baiño alegin geiago ziarduan amak umeak lotara bialdu nairik. Batzutan agindu, bestetan erregu. Baiña ez egozan

orretarako.

Gabeko amabiak inguru izango ziran, nekez eta ia negar muxingaka oean sartu orduko. Eta an be erretolika txoliñean, biak, kontu-kontari.

Amak, tartetan, deadar egiten eutsen: Ixi! Egon ixilik, ume moko arraijuok! Noiz lo egiteko asmoa daukazue pongoliño diamotxuok?

Orduan, izara azpian buruak eskutatu, estaldu ta alkarri atzeak emonda, etzaten ziran. Eta arnasa astundu ordurako, izara pixkat zabaldu ta barrero ere, ixil-mixil, ekin jardunean:

Ikusi makusi.

Zer ikusi?

Ikusten dot, ikusten dot...

Guzurrak ez dabe balio, e?

-Ez, benetan. Ikusten dot... E

E? Kopla barik?, E?

-Bai.

-E... E... ezpanak.

Ez

Edurra.

Nun ikusten dozu, ba?

Or, mai gaiñean, Jesusen jaiotzan.

Ori olgetako edurra dala ez dakizu?

E... E... eztula.

Eztulik ikusten dozu, kokolo orrek?

-E... E... eztarriko zulua.

-Baita zera be! Gaur olgetan zabiltz, ez? Orrela igartea pentsaten dozu?

E... E... Zeuk ba dakizu, ala?

-Esatea nai?

Egon pixkat! E... E... Emulsion Scotch.

Zein, makallau zaiña?

-Nun dago ba?

Nun? Neure tripan. Len artu dot!,

-Jo! Eta ikusten dozu, ala? Zu lakorik!

Egon pixkat.

Biar arte? Orrela ez dau balio izaten. Beste berba bi edo kittu. Pott esan.

E... e... Erregeak!

Nun ikusten dozuz, ba? Ba datoz ala?

Eta indar batek jota lez, biak salto baten oetik jetxi ziran ta amaren gelatik zear, arin balkoira.

Amak, zarataka: Nora zoaze, baiña, ume sapuok alakuok? Eskoba kirtanak indar egitea nai dozue?

Amaren jardunei jaramon barik, leioko kristaleko iruntza kenduz, orra mutillak zur eta urduri, tuku-tukuka, kalean edo leioan zerbait ikusi edo igarteko garren.

Orretan susmatu orduko, balkoian lo egoan txakurra, itxartu eta ateari erpaka ta sakadaka asi zan.

Balkoiko atea dardaraka ikusi ebenean ta zaratak entzun, zer izan eikean konturatu barik, itsu-mustuan, arnas estuka, bi-dean billatzen zituen ate, aulki, kutxa ta tresna guztiak jo ta zapalduaz, gure mutillak arin be arin joan ziran euren gelara. Bai laster oean sartu ta izara artean euren buruak eskutatu be, amasari eutsi eziñez, izerditan, zurbil eta kikilduta.

Amak, ori ikusi ta zirikalari, deiez

Nora duaz orain eurok zoro-zoro? Nora ain gangar? Ez dozue esaten ba aitak eta amak ipintzen dituezala erregaluak? Zer diñozue orain? Orrez gaiñera, igarten ba zaitue lorik egin ez nairik zabiltzela, arrikatzik be ez dautsue ekarriko. Ez olgetan ibili. Entzun ondo zer diñotzuedan. Sutako autsik be ez dautsue jaurtiko.

Amaren erretolika luzea etzun eben.

Ez zan geiago mor-morrik eta barriketarik entzun, ez ori-

xe. Eta laster, loak jota ebiltzan-eta, laster amesetan ziran biak.

Urrengo goizean, euren erregaluak eskuetan artuta, arro ziran kalean biak, egunak argi egiñagaz batera.

Batari erakutsi ta bestenak ikusi, bitsetan eta adurretan ziar-duen umeak. Lagun artean, senide artean, auzoan eta abar.

Auzoan bizi zan, ain zuzen, mutilzar traketz bat. Beti inguru-ruko umeak zirikatzen, eurei ernega eragiten.

Eta arek, Ibon eta Abel'en jostailuak ikusi orduko, bete-betea, bota eutsen:

-Ene! Errepatxi! Maspeneko dendan erositako gauzak!

-Baita zera be!

Ezetz?

-Denda aretan erregerik kabidu be egingo litzake-ala?

Guzurra nik? Martin'ek patxadatsu. Sudurretako kandelak kentzen ez dakizuen ume-mokuok alakuok, niri edozer esan? Gaiñera naiago neuke zuen osaba Papardo e:nentxe ba lego! Arek berak be ikusi zitulako.

-Zer esan nai dozu orregaz? Aitak eta amak botatakuak di-rala?

-Zeiñek ba! Zerak zuei, Meltxiorrek.


Zeñek ez dakigu, baiña erregeak beintzat.

-Beti beti «O mutil tonto, jateko pronto»?

-Ori zueneko Patxitxuri esan. Atzaparra mixkatzen gago-zalakoan? Geuk sentidu erregeak balkoi zabaldu nairik eta, sartu nai guri? Ez da ba egia, Abel, geuk ikusi genduzena?



EZTITXU'REN GIBELA





EZTITXU'REN GIBELA

Umeen artean neska alai eta apaiña zan Eztitxu.

Beste askoren antzeko.

Jolasean jolaserako eta ikastolan ikasteko. Gauza askotan «andra maistrea» lakoxea.

Pozik ibiltzen ziran auzokoak, etxe-barrukoak eta skola-lagunak beragaz. Bai bera be bestiekaz.

Luzca baiño totola geiago; arpegi zabal, begi andi. gaztain koloreko ule, matrail gorri okotz biribil, sudurra *ez* luze ta *ez* motz.

Nesken jolas guztiak ekiazan. Gernika aldean oituten diran neska-mutil txikien jolasik geienak. Nai eta dan danak euskaldun jatorrak izan *ez*.

Iñoiz lagun artean asarretu be egiten zan, jolaserako tartarik ezin artuta, edo ta besteak aurea artzen eutselako.

Pozik joaten zan eskolara eta etxera alai biurtu eskolatik.

Amatxu! Ekatzu merixendia.

Ainbeste gose?

-Ekatzu arin. Kalera joan bear naz.
-Zetan kalera? Geratu zaitez. Biztuko dautsut eta ikusi Tele.
-Beti etxean?

Ai ene, neskak etxea maite bear izaten dabe.

Bai andi egitean. Jo! Beti etxean.

Ez etorri nigana musturrekaz, e?

Lagunak zain daukadaz.

Nortzuk?

Ez dakizu nire lagunak nortzuk diran?

Mutillekaz ibilteko orain be?

Ene bai Zegaitik ez?

Zazkarrak diralako. Ez diralako neskak lakoxeak.

-Txilibitua daukelako?

-Jesus! Zelako berbak dira orreik?

Ama! Ez dakizu? Eskolako liburuak be ipinten dabe.

-Zuenak ez!

Zuk ez jaramonik egin.

-Eta liburuetan datorrena ikasteko ez da izaten ba?

Baiña ez ume mokoak. Entzun dozu?

Eta mutillak danak izaten dira zazkarrak, ala?

Ez dakizu beti indartsuago dirala neskak baiño?

-Zelan dakizu? Ori zeuk pentsatu!

Amak dana jakiten dogulako.

Errigoiti'ko eperrak esanda?

Nundik igarten dozu?

Or ibilten zara beti kantari-ta! «Or goiko landetan eperrak dabiz kantetan...»

Ez al da egia?

Nik esaten dodanean zuk eskribadu zarra lotsatuta lagako dozula... Eta arek Lepe'k baiño geiago ekiala esaten dabe_. Nundik norako neskazarra da berau?

Eta eskolan ez dautsue esaten neskak neskekaz ibilteko?

Sekula be ez, ama Danekaz ibilteko esaten dabe an.

Mutillekaz tabetan be?

Atzo be Periko... Barretan egin gendun! Ezagutzen dozu Periko? Axangiz'etik etorten da. Abilla da a tabetan aponeka Baiña atzo be, ez errietan egin nire lagunei, e? negarrez itxi gendun.

Zegaitik?

Nik ez, e? Iruñe'k txokolatea jan egin eutsalako.

-Eta aren ama etorten ba da, eta errazoiagaz matrail-azurrekoak emon, ondo emonda, neska txotxiñoi?

Bai zera! Ezin etorri Ez dauka amarik

Eukiko eban.

Bai baiña kantzerragaz il zala esaten dabe.

-Zelan dakizu? Periko berak esanda?

-Ez. Bera lotsatu edo egiten da esaten. Baiña Txomin'ek ba daki

Nungo Txomin'ek? Ez daukazue neskarik eskolan alkarregaz ibilteko?

Txomin bere auzokoa da.

Kantzerra zer da, ama?

Aitatu be ez egizu olakorik.

Zegaitik ez?

Gaixo txarra dalako.

Ori «peatu» egiten da?

Ez jakin. Txarra dana bai ta naiku da

-Jo! Kantzerragaz danak ilten dira?

Ia danak.

Guri andereñuak esan euskun bein, sekula goserik kentzen ez jakon mamarrua dala. Euskeraz «bizia» deitzen dala. Ori da?

-Aitatu be ez egin. Artu txokolatia eta joan zaitez. Baiña

iñori emon barik, zeuk jan, e?

-Zeiñen emon au, ontza bakarra da ta?

Zu zeu be andia zerealakoan?

-Danak esaten dauste ez nazala asten. Santa Clara'ko abadesa txikia lakoxea geratuko nazala..

Andik laster, Eztitxu kalerako gogoia galtzen asi zan.

Eskolan be makalduten asi zan. Alperту egin zala ta irakaslea be asarretu egiten jakon.

Ez eban ibili nai izaten lagunekaz

Kolorea be galtzen igarten jakon, orituten.

Amak asarre egiten eutsan, jan be ez ebalako egiten. Jan eragin nai eta nagiak edo musturrak

Lo be, askotan neketan eta amets itzaletan. Aotik be atsa lakoa lagaten eban arnastutean.

Asi zan itzalak jota, inkesaka, negar muxingaka.

Osagillearengana eroan nai izan eben gurasoak. Zuritu eben. Txikiagi gelditzeko bildurra ez daukazu, ba?

Osagille batek berea baiño geiago zala ta beste batengana eroatea komeni.zala._

Barakaldo'ko Gurutzetara be eroan eben.

An garbi esan eutsen amari Eztitxu'k gibealekoa eukala... Gerotxoago, analisiak aztertu ondoren, gibelean bizia eukala.

Amak negarrez irunsi eban agerbide ori eta txarrena pentsatu.

Amak alabea ikusten eban bakoitzean, negarrari ezin eutsita eta larritasuna ezin eskutatua irauten eban.

Eztitxu'k gero ta lausoago eukazan begiak. Gero ta laiño eta lanbru geiagoz ikusten eban ingurua.

Ama, negarrez zagoz?

Begiak erreта lez geratu jataz.

Ez olgetan esan; ori negarra da. Nigaitik? Zegaitik?

-Etxean ez zaitudalako.

Ez naz laster osatuko ala?

Amari itto egiten jakon berbea eztarrian. Ezin esan, ezin erantzunik aozkatu. Eztarria urratuta lez.

Ama_ni ilgo ba nitz_

-Zegaitik pentsatu ziñei orretara?

Ni ilgo ba nitz, aingeru biurtuko nitzake?

Eztitxu'k begiak itxi eta irri-barre mintsu baten agerpen laburra egin eban.

Musuka jango eban amak, baiña ezin ori be.

Musuak, laztanak eta igortziak, eskutuko eta agiriko zaindari dan zelatari kezkatu bat dauke gaixotegietan: osasuna.

Eta kokotxo (mikrobio), ziri (bazilo), ernemin (germen), zoma (virus) eta orrelako deitura asko agertzen dira, biguntasun eta maite miñen agerpenen aitzaki.

Eztitxu'ren egoerak ez eukan onerakorik. Gero ta berago.

Lagunak joaten jakozan tartetan. Batek esan eutsan bein, eskolan, danak beragaitik errezatu egin ebela.

Begiagiak puztu jakozan.

Zegaitik errezatu dozue?

Gaixo zagozalako.

Besteak be egoten dira.

-Baiña ez zu lez.

-Ain txarto nago ala?

Irakasleak esan dau...

Ez da orrelakorik esa ten. Ez jaramonik oneri. Onak ezin ixilik euki

Zer esan dau?

Ni ez nua esatera. Au asi da ta berak esan daijala.

-Ara, egia Txarto egon da be, gaur era asko dagozala osatuteko. Berak esan dau lorak be aldatu eragiten dirala, igartzen asitako zatia kenduta Esan, Gernika'n be, bertan bera galduko zirala pentsaten ziran arbolak, bizi barria artu dabela. Gernika'ko Arbola bera be, gaitzak jota egonarren, kirru barrien bitartez, zaindu egiten dala..

Bai? Arbola zar a zaindu?

Eta zu ez zara zar. Landare barria lakoxea zara zu...

Baiña Eztitxu makaltzen eioan, txatxartzen, auldueten._

Amak esan eutsan bein: Bartzelona'ra joan bear gara.

Zetan?

Atsedean artu eta giroa aldatzen.

Zegaitik ara?

-An Euskalerrian baiño giro epelago dagolako. Araxe eroango zaitugu, an kalean be ibili zaitezcan, zeuri atsegin jatzuzan «zooak» be ikusi dagizuzan.

Eta eskolara?

Ene ba! Bizitzako urte luzetan ez al dozu denporarik euki-ko ikasteko?

Eta bidean eta Bartzelona'n, gero ta kezkatuago Eztitxu.

Amatxu, nik gaixo txarra daukat, ez?

Bai laztana, bai.

Eta ez naz osatuko...

Olakorik ez da pentsatu bear.

Gaur amets egin dot... Eta aztu naz zer egin dodan be. Baiña negarrez esnatu naz.

Zegaitik?

Beti negarrez ikusten zaituedalako.

Pozez be negar egiten da-ta!

Amatxu, osatu ezin danean zer eskatuten da. Millagrua?

Ta orretarako on ona izan bear da?

-Ez zara ala?

-Ez zendun esaten ba mutillekaz ibilten giñala?

-Ene ba da! Olako okerra ziñala esaten neutsun?

Egun baten orra ez bear bat. Reus'en mutiltxu bat, bizikletan ebillala, kamioi batek jo ta lertu eragin, eta il.

Soiñaren zatien eske ibilten dira osagille batzuk. Orrelako eskariak oztopo asko billatuarren, ba dakiez tartetan *fede* andikoak billatzen.

Eta Plantxadel mutillaren gurasoak, ez bearrak eurei sartu eutsen naigabeari gaiñez eragin izan nai eutsen, osorik geratu jakozan zatiak lagun urkoen ondasuna billatzeko asmotan.

Osagilleak eta gurasoak urduri, batetik, jardunetan, eta besteak lanean.

Eztitxu, kezkatu baiña zetarako zan barik, orra kirofanoan, gau erditik egunaren zati askoan, lo.

Eta miraria egin zan.

Eztitxu'ren soiñetik eriotza ekarren gibela atara eben, eta arnasa galduarren, oraindik bizia emon eikean mutiltxoaren gibel garbia sartu.

Egunetara, itxartu ala, Eztitxu kontu-kontari, alaitzeü asi zan, eta bizi barri baten irribarrea igarten jakon ezpanetan. Eta kezkatuten be bai... jakin ondoren .

Amatxu, niri sartu dausten gibela emoteko, nai ta ez mutil ona izango zan, ez?

-Bai, maite.

Eta ez zendun esaten ba, mutillekin ez ibilteko, mutillak zazkarrak izaten dirala-ta?

Ene ba, laztantxu! Ba dakizu Gernika'tik dciezka dabiltzala eskola lagunak?


Mutillak be bai, ez? Noiz eroango nazue Gernika'ra?

Laster, gogortu ta bereala.

-Ez dozu esaten ba, Gernika'n Udabarria bestetan baiño loratsua go izaten dala?

Ba zenki zelako gogoia daukadan Gernika'ra joateko... eta biziteko... Udabarrian ez gagoz ba?

Eta andik laster, egun baten, Eztitxu aingeru aren soiña Gernika'ra ekarri eben. Eta Gernikar umeak lorak eskiñi eutsezan, ainbeste atsegin zitun lorak, Gernika'tik zerurairiñoko bidea euskal loraz beteteko aiña.



PERRETXIKU ZIRINAK



PER.RETXIKU ZIRINAK

Mendizale 'zan Peru.

Perretxiko batzaille ontzat euken bilbotarrak.

Egia esateko, ez ekian garbi eta zeatz perretxiku mota batzuk **baño** ezagutzen. **Urdin, urretxa, onto, saltsa**-perretxiko...orrek bai. Ortik gorakoak gitxi ta bildurrez.

Alegin egiten eban berak be, pardeltxoagaz etorten zane-tan, iru-lau kaletako tabernetan sartu barik etxera ez joaten. Or-tan ibiltzen diran geienen antzera, gauza andi lez erakutsi bear batzen zana.

Baiña batzaille bildurtia zan.

Ainbat perretxiko ikusten zitun mendian, eta batzen ausar-tu ez. Jateko adorerik ez

Ikusten zitun lagun batzuk berak lagatako motak batzen. Berak baño pardel andiagoak erakusten kalean. Baiña bera ba-tzen izerditan geratzen ba zan, zelan ausartu jaten?

Bein «amanita rubescens» batzuk batu eragin eutsezan la-gunak, beragaz batera mendian gertata. Itxura ederrekoak. Ar-dau kolore ta guzti.

Etxera eroan zitun. Ipini eutsazan aitzaki batzuk andreak, baiña beste askok be alakoak jaten zituela ta...

^Pardeltxoak etxean laga eta txikiteora joan zan.

An ebillan artean, andreak, geroko burukomiñak kentzeko, txanpiñoi batzuk erosi zitun auzoko dendan. Gizonak ekarrita-koak eskutatu ta txanpiñoiak ze-ze eginda, tortillatxo baten ipi-

nita eukazan, ez igarteko eran.

Sarri lez «galdu» egin zan senarra lagunekin txikiteoan.

Etorri zanean, euki eban alako berba joko zital bat emazteagaz.

-Auxe gertaten da! Egon zaitez emen gizonei «kapritxoak» ezin beteta, eta zeuok nai dozuen orduetan baltzituta etorri, beti jatekoak otzituta, eta aitzakiak ipinten gaiñera.

Peru'k ez eban erantzunik emon.

Asi ziran bazkaltzen.

Igarri eban andreak gizona bildur zala tortilla jateko. Izerditan be asi zala.

Gizonaren atzerakada edo bildurra igartean, ia bera pozoitutearren eroan zitun, bota eutsan aurpegira. Orrela bizitekotan berari ez eutsala ardura andirik edozer igarota be ta tortilla erdia gogoz jan eban andreak

Gizonak, argalikeririk ez erakustearren, eta berak ekarriak ziralako, eta lagunak be jaten zituela ba ekialako, nekez, amure, baiña beste erdia jan eban.

Domeka zan eta bazkal ondoko siestatxoa egiten ekien.

Ixilik biak oean, andrea barrutik pozik, arpegi eta urteera zitalekin, gizona mendetuta igarten ebalako.

Alako baten gizona ezteetako aizeak igarten asi zan.

Jaurti eutsan andreak sermoi luze bat. Alako gizon ikaratia arteagaz damututa be ba egoala esan eutsan zital.

Ixildu ziran. Baiña barriro, laster, aizeak eukazala, miñak, larrria Irudikeria (aprensiñoia) baiño ez ebillala-ta barriro zistrin andreak.

Baiña andrea bera asi zan gizonaren barruko orruekaz konaturatzen.

Estutasuna be etorri jakon Peru'ri, egon eziña, eta oetik urten eta ozta-oztan eldu zan komunera. An goitik berakotan larrri, eta izerdi likiñetan busti.

Atsedenaldi labur baten ondoren, barriro estutasunak.

Osagillea arin, osagillea, eskatzen eban gizonak. Andreak berari ez yakola ezer gertaten, beste zerbait izango zala, bear ba da tabernako txikitoen gorabera izango zala...

Orretan be ollar joko.

Baiña komunera ainbeste joan bearretan, andrea be bildur-tu zan. Etxeko bakeagaitik be deitu eutsan osagilleari. Etorri eta ikusi eban onek zer gertaten zan. Andreak, bera pekaturik ez agertzearren, berean ekiten eutsan: Biak jan zituela, berak ez ebala ezer igarten, ziur egoala perretxikoak bardiñak zirala.rr onak zirala...

Osagilleak, Peru'k esan lakoak ba ziran, berak be ezagutzen zitula ta ez_eukela gaitzik. Beste zerbai izan edo gertatu eikeala...ta zer emon ez ba ekian be, lenengotan beintzat riino orioa edo karabaña ura artzeko agindu eutsazan, barrua garbitzeko, gerokoak ikusi aurretik.

Karabaña entzutean goitik berako árrada emon eutsan andreari. Konturatu zan etxeko semetxoa sikuraz ebillala ta purga artzeko okerra zalako, igarri barik artu eragitearren, karabaña erosi ebala, ta karabaña botillatxoa mai ondoan ez erabiltearren, an egoan ura botilla andiago batera aldatu ebala, konturatu barik ain zuzen gizonarentzako ardaua egoten zan botilla zala eta an egoan ardau ondakiñagaz nastu zala.

Bere pekatua ixilik gorde eban emazteak, eta bere artean ainbat barre egiten eban ori gertatu bearragaz. Baiña ondo etorri jakon gizonari sekulakoak esateko txikiteoa zala ta etzala.

Azkenean Peru berbera ezagutzen asi zan andreak errazoia euki eiala. Txikito larregi.

Estutasuna igaro zan. Ez zan ausartu alako perretxikorik geiago ez ekarten. Arrokeriari eusteko be.

Menditik etorten zanetan, etxean sartzean, atezaiñari lagaten eutsazan batzuk. Eta etxean, sikotxuagoak jatea obe zala ta biaramonerarte ez ipinteko agindua emon eban.

Ba ekian beko atezaiña itsua zala orrelako janarietan. Ori-gaitik, ziur egoan, bein igande gabean ezer gertatu ezik, astele-

nean berak be jan egiazala. Eta alaxe, astelenean atezaiña lanean ikusi ebanean, berak be jango zitula ta pozik.

Andik illabetera beste mota barri bat billatu eban. Itxuraz onak.

Laga eutsazan batzuk atezaiñari. Berak, beti lez, biaramone-rako laga zitun, atezaiñarena ikusi ondoren jateko. Eta a, beti lez, atean, patxadan ikusi ta agurtu ebanean, andreari agindu eutsan ipinteko eta jan zitun.

Ai ene! Ikaragarrizko goitik berakoak emon eutsoezan bie-ri, emazteari ta berari. Oraingoan perretxikoak ziran. Ez egoan ezpairik.

Igarri zitun atezaiñak osagillearen ostera, botikarako joan etorri eta abar. Osagilleak itandu eutsan ia berak jan eta ezer ez eban igarri.

Eta atezaiñak, irribarreka erantzun, igarrita egoala Peru'ren etxean astelenean jaten zituela, berari ezer gertatu ete jakon oartu ondoren, eta oraingotan beark martizenerako laga zitula, Peruri ezer gertaten eta jakon jakin arte. Baiña batek esanda ekiala areik etinkorrak, purganteak zirala, atzapar eder deitzen ziran motakoak ziralako.

Ori jakin eta osagillea be nasaitu zan eta atezaiña lepoan joaz esan eutsan perretxikuei igarteko modurik onena orixe zala, au da, ziri sartzailleari akulua erakutsi ta gordetea.

Eta au ipuiña dala pentsatuarren, alaxe gertatu zala auzo guztian jakin eben.

AMANITA
SPISSA
Kaltegarri



AMANITA
RUBESCENS
Jangarri



M
ZURINE, BIOTZ ANDI

Euskerazaleak'en 1984'ko sariketan, santua



ZURIÑE, BIOTZ ANDI

Neska ederra zan Zuriñe.

Errietan banakak egoten diranetako.

Ez arro ta ez gangar. Edertasunak emoten daben itxurea-gaz, baiña ortik urten barik. Mardul, guri eta ondo betea.

Bakoitzak euki leiken zalekeri berezia kontuan artzekotan, lore zale zala esan giñei. Baiña ez eukan dirurik azoketan erosteko. Tarterik be ez mendira billa joateko. Etxe barruko batzuk euki eta zaintzen arretáz jarduten ekian.

Aita-ama zarrak zituan.

Unorez eta miñez jo eta erreta. Kontu artu bagako bizi baten zartzaroak soiñez lotuegiak, igartuak eta zortuak.

Alkarri laguntzeko ez ziran. Bakarka euren buru zaintzeko gai be ez Ez ebiltzan burutik ondo be.

Ez zitun ospitale a bialdu nai. Iñoiz orrelako zerbait esaten eutsen auzoak. Baiña biotza urratuko jakon berari. Eta eurei, zarréi zer?

Bestetik ezin ori be. Etxe zar baten jaube ziran. Urteak ez eutsen emoten erri-zerga ordaintzeko be. Eta erreteruak ezetara be urten nai ez Ez urten, ez geiago ordaindu, ez erosi.

Ba dagoz orrelako ainbat gertaera, geien be lendik etxekotasunean biziten oitu diran erri txikitako bizitzan. Bizimodua gora joanarren, legeari begiratu barik borondateari eutsita, buru aurkako diranak.

Eurak be, egia esateko, beste alakoxe etxe arrakalatu baten

bizi ziran. Gurasoak ez euken karidadeko laguntza besterik. Zuriñe etxeetako garbitasunak egiten ibiltzen zan, gurasoak erdi baketan izten eutsen orduetan.

Orrela, batetik janari ondakiñak, bestetik jantziak, eta eguneroko zerbait erosteko ataraten eban diru apurtxuagaz ozta-ozta bizi zan.

Arrantzale errietan oiturea zan txalopak arraiñagaz etxeraztean, orrelako premiñadunei zapitxo bete arrain emotea. Nai eta atsegin ez, oitura zalako, lótsatu barik joaten zan txalopa egalera. Eta molla gaiñean arrantzaleak berba gozuak esaten eutsezan, zirikadak be bai, baiña bera ez zan aizetuten eta irrikatzen. Itxurak ez dau beti eder egiten, erantzuten ekian. Mai utserako iñor gertuko ziñateke?

Sekula ez zan beragaitik arrokeririk entzun, ez eta arinkeri-rik eta gauza lizunik be.

Ez zan santuei musuka ebillan neska, ez eta eleiza zalpalduten ez ekiana be. Orretan jatorra zan, zentzunduna. Bere jokabideagaz otoitza egiten ekiana. Jazan eta errukia eskiñiz, giza-legea beteten ekiana.

Beretzat gurasoak zama izugarri ziran. Baiña sekula ez eban pentsatu laga bear zitunik, ez euren kontura bere estutasunik arintzerik be.

Egun baten polizikoak deitu eutsen. Kezkati eta larri joan zan, zetaz deadar eutsen ezin bururatuta.

Zuriñe -Sagasti?

Neu naz.

Nun dabil zure semea?

-Zeñena?

Barakaldo'ko agirietan agertzen da, aita ez ezagun cta zure seme bat.

Gorritu zan, sutu. Iñok ez eutsan ordurarte ezer esan. Ezin eikean ukatu. Ain zeatz esateko ba ekien zerbait. Urte mordoa zan, udaldiko zerbitsu batera joan zala hotel batera. Gau alai baten, makurtu eben. Jausi zan. Pasako txoriak lez, jo ta pasa. Eta

or konpon. Aitatasunik emon bear zanik be, lenengoz urratu ebanak bera ez zala lenengo eta bakarra izango-ta Edozein emakume galdu lez Andik laster kontuak. Utsunak eta betetasunak.

Zuriñe'k al bestean eskutatu eban amakuntza. Bilbo'n bizi ziran lagun batzuk makurtu ziran eurena lez artzera etorri eikeana, eurak ortarako zailtasuna eukelako. Esandako eran, agertu zan mutilla lenengo egunetik eskiñi jakoen. Gero ez eurak egin eben alegiñik, ez Zuriñe'k alkar ikusteko. Maitatzen asi baiño len, obe zearo astu beretzat, eta bestientzat be ixiltasuna gorde-tea mesedegarri.

Baiña mutilla, bakarra, lotsa barik asi zan etxean. Ikastoletan lenengotan argi, gero alper. Kozkondu ala laster asi zan guraso-ordeei burukomiñak emoten. Borondatez artu eben a, etxe ondatzaille gertatu jakoen. Egunero nasteren bat, eroso-aldien bat, lapurreten bat, kaleko naigabeen bat. Etxea ondatu, osasunez eta ondasunez eta bera zearo gaixotu.

Droga zaleen sarean nastatu eta jausi zan. Ez egoan iñor a mantotuko ebanik. Bein, eztabaida zatar eta lotsagarri baten ondorenez, ama ordea zaurituta laga eban.

Polizikoak sartu ziran berealar Mutillaren nortasunak batzuan, ezin bete. Aitatasun eskutukoa salatu zan. Ama jatorraren aztarrena billatu eben. Eta gero... jaiotzako saltze traturik egon ete zan, beste goraberekin batean, argitu nai.

Etxea goitik bera etorrita lez geratu zan Zuriñe. Aita zarrren nekea gitxiena zan. A neke garbia zan, gogoz beteten ebana. Nekean be barruko bakea sortzen eutsunar Oraingoa laidoa zan. Eskutu edo ixilpeko baten salaketa lotsagarria eta ama baten noraiño erantzun bearraren kezka larri eta urduria.

Nai eta berak zer ikusi ez, esateko lapikoari ez urik ez gatzik emon, ezin ukatu ama zanik.

Eta maitasun bako sortzeari biderik eteten ausartu ez zan lez, bere izena zaintzearren iñori leporatu eutsen frutuari amatasunik ezin ukatu.

Polizikoak osoari erdia edo ta erdiari beste zati erdika ken-

tsea oituten daben lez, ez eutsen osorik sinistu. Eta guzurrari tar-tea billatu nai eutsenr

Uriburura deitu ta an kezkatiaگو euki eben.

Era bardiñean egin eben danak autorketa eta curen mese-derako izan zan.

Gui aso ordeak ez eutsen ezelako errurik leporatu nai Zuri-ñe'ri. Ba ekian onek ezautu be ez eبالا egiten.

Zuriñe etxera biurtu zan. Esateko ez eban kalerik ikusten, lotsatuta. Zeiñek zer esango. Besteen jardun asko beragaitik zira-lakoan.

Gurasoak ez eben asko iraun. Bata bestearen atzetik laster il ziran, Zuriñe'ri azken lantsu eta neketsua emon ondoren.

Onek, egunetan be, mutillaren oroitzaz, droga zaletuen gaixoan jausita egozanean aldeز bere bizia eskintzeko gogoia igarten eban beragan.

Baserri baten droga-zaletuen osasunerako edo barriz gizar-teratzeko aterpe bat zalbaldu zala jakin eban. Askو pentsatu ba-rik eskiñi zan ango lanetarako, jan truke.

Гorriak igaro zitun lenengotan. Guraso zarrak zaintzea bai-ño minkorrago zan gaisorik ezin mendetuta ebiltzan gazte jausi arein arduretari jardutea.

Batzuk eukeri borondatea, indarrez, edo diruz edo gogo-txarrez eroandako beste batzuk okertuten eben.

Pozik eroango eban ara bere semea, baiña berak ezagutu barik, nor zan konturatu barik, orrela bere eskintza eta alegiña maitasun zabalagoz egiña gertatuko zalako.

Bein..r bestetan baiño zaratatsuago igarri zitun gazteak. Ezin eben batzuk ezer artu barik iraunr Ez ekien zet egiten eben. Dana asarrea, egon eziña, erretasuna. Alkarri zirri ta tirri geiago, gero ta zaratasu ta galduago.

Alako baten mutil bat ikusi eban aiztoa ataraten. Beriala gogoratu zan bere semeagaz Bat bateko irudipena. Tartean sar-tu zan eta mutilla be konturatu zanarren, ezin eskuari atzeratu, indarririk galdu eragin. Odoletan geratu zanr

Zarataka asi zan mutilla, sartu bearra en asarre. Gora-
goraka, berba lizun eta zatarrak esaten.

Zuriñe'k, zital, ixildu eragin eutsan.

Zein zara zu orretarako?, jardetsi eutsan mutillak.

Ibon ez al zara zu?, biotzetik urten eutsan Zuriñe'ri.

Zelan dakizu?

-Zeure ama nazalako!

Arrezkero sekulako lotsa zaintzen eutsan Zuriñe'ri.

Baiña andik atara egin bear izan eben Ibon. Gaixoa sakone-
gi sartuta eukan. Ez eukan burubide zuzenik. Zoro-etxe batera
aldatu eben.


Eta Zuriñe'k an jarraitu eban, semearen urratsa gero ta bi-
ziago ebillala, gazte gaixoen mesedean eten bagako lanean. Gai-
xoak, deitura bakarra emoten eutsen: ZURINE, BIOTZ
ANDI.





NESKARRAIN

Euskerazaleak'en 1981'ko sariketan, saritua



NESKARRAIN

Ekaitz egunetan bakarrik urteten eban zulotik.

Itsas irakiñera urten, olatu artean jolastu, ango apar, bits eta ur-laiñoetan busti ta izerditu, eta urak ur-andi ziran bitartean barriro sartu eta eskutatzen zan bere zulo edo leiza baten.

Izaro'n fraileak bizi ziranean Ogoño'tik ara joaten zan, eta an, euren aurrean, olatu artean gangarkeriz dantzan ibili.

Deabruaren alaba zala uste eben fraileak eta kanpaia jo, zirikaldian ez jausteko.

Ule luze berdexka, oroldi illunen koloreko; arpegi eder zabal eta bular puztu ta mamintsu, biribil eta beteak eukazan. Gerrik bera, arrain andi baten egitura, bere arkodun buztan zabalagaz. **Neskarrain** izenez ezagutzen eben.

Gordeleku asko eukazan Ogoño'tik Bizkai mugara. Punta-leku, Kresaladi, Ibiarri, Ermitxo... Elantxobe ta Natxitu artean. Gero, andik Lekeitiorako ertzetan, Lapatza, Apikal, Ogella eta Otoio azpiak. Aurrerago Egiluz, Endaidi, Zagustan, Baurdo, Txanerreka, Atxazpi...

Ortik ez zan igaroten, Saturraran'go Ezkilantxarri'ri bildur eutsalako. Napar gotzainak aitz punta a euren mende eukenean, konjuroak zabaltzen zituelako andik.

Ordurako Neskarrain'ek bizi luzea eroian itxasoetan.

Arrantzaleen emazte eta amak gau illunetan ikaraz gogoratzen eben. Umeak bere bildurrez itxartu ametsetan.

Lapak aitzari lotuta legetxe lagaten ei zitun gizonak bere ondoan, bere edertasunagaz zoratuta. Eta beretzat artu.

Ez zan ori egi ain betear Sinistua bai.

Gizonak ere betozkoz entzuten eben bere izenar

Bein, andik ikusi ebela-ta, fraile bat, ziurtatu nairik, Ondarroa'ko Atxazpi eta Irabaltza arteko aitzetara joan zan. Eta geiago iñok bere aztarrenik ez eban artu. Frailearen aitza deitzen dautse geroztik a urreratu zan arri muturrarir

Itsasoa bera zoratuta lez jagiten zan, bere inguruan susmatzen ebanean, kili-kili bizi baten egon eziñez. Eta gero ta beroago, sargoretu ta irakindu, zoratu ta itsutu. Ta inguruan gertaten ziran txalopak aidean erabili, ta gizonak, tirabiratan, uretara jaurti.

Aizeagaz batera igarten eben andrak Neskarrain urreratu zala ta gizonak ostuko eutsezala Eta gau baltzean ere Antigua'ko Amarengana joaten ziran, euren gizonen errukiz itsasora urtete-ko negar eskabidean.

Bein baiño geiagotan billatu eben Antigua'ko Ama, oiñak bustita, uletatik ura dariola, begiak malkotan, itsasoa ibili ondoren, negarrez, berandu eldu zala-ta.

Eta andrak baltzez jazten ziran, euren gizonak Neskarrain-ek ostu eutsezalakoan.

Lekeitiarrak Otoio rñendiari emoten eutsen errua, bere azpietan biziten lagaten eutsalako, aterpe ta atsedena eskiñiz.

Iñoiz, estu ta larri, bere aztikeriz erdi zoraturik, olatu andien artean bere burua bilin-bolonka ta arri-pendul lez tatarrez aitz egalean agertu zan bat, Otoio mendira igo zan, dana laga-ta, eta Otoio'ri kañubeta sartuz, odolik ba ete eukanka zemaian ari.

Eatarrak Tala'ko Amaren ermitara joaten ausartu barik Beletxe ondotik itsasora urreratzeko bildurrez, Natxitu'ra joaten ziran, ango kanpaia jotera. Eta Arboliz'tik zear Elantxobe'ra joan, Ogoño azpiko zuloetan sartzen ikusten ete eben.

Baiña Neskarrain andik agertu ordurakoxe, laiñoa sartzen zan itxasotik, gurma lodia, eta elantxobetarrak mendi gibeleda sokondoetan eukezan etxetan gordeten ziran.

Eguraldi bare egoan baten, Mikolas Txangurru, gizon lerdanak, lanpernetan ebillala, lo ikusi eban Neskarrain, Ogoño

pean, bularrak aidean mundil antzera eukazala

Arrokeriaren zirtada igarri eban beragan lenengo, izaki entsutetsu ta zoragarri a bere menpe eukitean. Arpoia gertuten asi zan, baiña beriala damutu. Neskarrain'ek igarri ta buztanagaz emon eutsan zapladeak konort barik laga eban. Bereala itsasoa jaiki zan, batela ondoratu, ta Mikolas aitzarteko zulora sartu. Andik laster maitemiñetan igortzi, laztandu eta atsegindu ere bai biak, Mikolas'ek bendea eukita bere biotzeko errukia jakin erazi eutsanean.

Galdutzat emon eben erritarrak andik egunetara. Eta erri guztia eleizan egoala, unerik ixillenean, kantu zoragarri bat entzuten asi ziran, aizearen joaldi bigun baten:

Eutsi, eutsi Mikolas Txangurru,
edan gogotsu titia,
nire esneak emongo dautsu
eundak urteko bizia.

Urten eben eleizatik ze ikusiko ta zingira luze bat oartu eban kai aldean. Etá kai sarrerako muturraren gaiñean Mikolas, ametsetan lez, irribarrezka.

Esanak esan zitun, danen aurrean, Neskarrain'en edertasun eta ontasanari buruz. Ez eutsen sinistu. Alaz eta bizitzako esnea artu ebala egia zan. Eun eta amar urte bizitera eldu zan. Au da, beste irurogei Alaz eta, bere oiñaldiko seme-alabak, gizon egituraz sortuarren, orkatillatik berakoa arrain buztan antzeko euken, gizonok eukiten doguzan beatzik barik.

Ori ikusita gerokoak sinistu ta fedez irunsi eben kontakizuna eta zabaldu. .Geroztik iñok ez daki Neskarrain nun geratu zan edo nundik dabillen.

Batzuen esanetan, Ogoño'ren azpian dagozan aitz-arte sakonetan bizi da, zaartuta, antxiñako zoroaldi barik. Besteen esanetan, baleen lagun zan, areikin asetzen zitun bere maitegarrik, eta baleak emendik eskutatu ziranean, areikin joan zan Amestegietako ugartetara.

Ala dan edo ez, pentsatu lei bakoitzak nai daben lez. Baiña Neskarrain itxasoetan bizi zala sinistu nai ez dabenak, kalabaza andia dauka garunen tokian.



GABONETARAKO BESIGUAK



GABONETARAKO BESIGUAK

Banakak ekien bere jaiotzako izena. Izurde deituten eutsen. Etxean ere bai. Oso-osoko gizona Iñori ezetzik esaten ez ekiana.

Gabon aurrean, bilbotar ezagun batek ikusi ta esan: Gabonetarako besigu batzuk norik bialdu ba gendu, ordainduko genduke pozik.

Ez kezkatu. Nire kontu ori, bat batean Izurde'k.

Egunak urreratu ala gero ta estuago besigurik ezin billatu-ta

Ama zarrak esan be bai: Orrelako konpromisuak artu bearra ere, txotxo, jakin besigurik ez dabillala-ta. Egun ederrak dira ba eurok!

Izurde'k bere buruari atz egin eta kontuak atarata ebillan: Igandez gabon. Zapatun ez dago arrantzarik. Beraz ostiralerako erosi bear.

Besiguak zirala-ta Izurde asarretu zan etxian. Ekin eta ekin, amaren barriketak entzuten gabon aparria garrartzuta eukan egunak aurrez.

-Orio aza jango dozu, ez?, amak, aparria zelan osotu jakin nairik.

Orio aza? Sopa «reina» da ori ala?

Ia ba, txotxo, añatzen ere ez giñan egon eta motiburik be ez daukagu ainbesterik jakiteko.

Gantzak atarako dautsuz orio aziak!

Ondo pozik jaten gendun beste urtetan! Besiguak diralata, zeuk ez gero iñori gabonik garrartu.

Ixildu zan Izurde, baiña ez eban asko falta etxe betekua asmateko.

Berutzen egozan marraskilluak palankanen, bitsa dariola, bits oria botaten.

Zeïnek ekarri ditu oneik?

Zeuk ez beiñik-bein.

Nik saltsa ori ez dot bear.

Ori saltsa dalakuan zagoz? Asko da zuretzat, sopa reina zer dan jakin eta marraskillúen bitsari ez igarten «Malutax» zara zu, bestela ere!

-Malutax'eri erosiak dira?

-Zer ba?

Kanposantuko orman neuk ikusi dodalako batzen!

Ta? Ez daukat atarra gurarik bai?, ta or konpon. Gurean marraskillurik ez da faltáko ta nai dozuna egin.

Begien aurrean eukan Izurde'k apari txarra. Aitzakiak azari, marraskilluei, okelari, sagar saltseari...

Zirkin egizu, mutil, ia arrain bodegaren baten besiguak batu ta bake santuan lagaten gaituzun! Zeiñekin bialtzeko, gañera, besiguok igandean?

Ez batak, ez besteak, ez eben ezer egiten alkar baretzeko.

Egunak urrerago ta okerrago.

Ostiralean ez ziran itxasora joan ontzi txikiak. Ibili zan arrasteruen arrañei begira. Pota, perloi, bakallau-arrain, lebatz batzuk, eta besigurik ez Alako baten sartu zan bat iru-lau kaja ekarrezala. Ez eukan itxura onik. Baiña_ Pentsatuta eukan zer egin. Zakatzak gorritu pixkat beste arrain freskuagoen odolagaz, eta patrikaran eukazan amu bat edo bí eztarrian sartu, Bilbo'n amuko besiguak zirala ikusi egien.

Sasoiz eldu ziran Bilbora besiguok Pozik Izurde. Matraka eta abar, orio azatik asi ta sagar saltsa bitartekoak atara ala irunsi zitun. Areik ziran marraskilluak, areik!

Gabon zarretan an eukan etxean txanpan kaja bat lagunak

Bilbotik bialduta, besiguen ordaiñezr

Arro ebillan egun aretan, ardau txikitorik edateko gogo barik, aparia txanpanakin asi ta amaitzeko ustez.

Ekin eutsan botillak zabaltzeari, dardaraka, burrunbada otsez goiak bera etorriko ziralakuan. Baiña lenengo botillak ez bitsik ez txiparrik atara ez. Bigarrenak bardin. Arrituta eguan frantsez izeneko etiketadun txanpan arek zelan ain ixil eta epel urten.


Irugarren botilla eskuan artu ebanean agertu zan pekatua. Gañeko etiketa jausi ta «sidra de Berriatua» agertu yakonean...

Igarri eban dan dana. Amuak eztarrian sentidu zitun eta besiguaren zakatza baiño gorriago geratu arpegia.

Sartu gura izan ba dautsat, bai berak be niri adarra ederto jo, esan eban; eta ixil-ixilik, maitik jaiki ta oera joan zan, apaldu eta urtebarriko kanpaiak entzuten geratzeko adore barik.

Andik aurrera, gabon inguruan besigu izena entzun orduko, EZ andi bat esaten daki Izurde'k, ta amak be berari gogoratu eragin:

Iñori sartutako ziria,
laster izango dozu zeuria.





• 1 ^S o C

Urtearen azkenean...


San Txilibristo

Besigua ezpanetatik dindilizka.

Bai?

BILBO ETA JENTILLAK

1980. «Bilbo» Ipuin sariketan, aipamena



BILBO ETA JENTILLAK

Norbait ilten zanean, gure Euskalerra bedeinkatu onetan, etxeko jauna tellatura igo, tella bat jaso ta arimeak (espirituak) urten egien zuloa egin eta zabalik lagaten eben.

Etxea garbituta, baketan, espirituakandik libre laga nai izaten eben.

Demoniñuak bakarrik ei dira aldendu ezin izaten dabenak. Konjuroak eginda be jaurti ezin diranak, beti zirika, beti eztenka, beti tentalari geratu nai izaten dabenak, sartutako tokietatik urten barik.

Eta Bilbo'ko keak be demoniñuak ei dira.

Ez jakin zelako, baiña demoniñuak.

Gure antxiñakoen esaerak, esaera zarrak ziran. Gizaldien gizaldietako ikasbide, gertaera eta egoeretan oiñarrituak. Eta areik esaten ekien: Kea dagon lekuan sua, sua dagon lekuan kea.

Sorgin denporetan ainbeste su ta ke egon balitz, zer gertatuko ete zan?

Akelarrerik gangartsuenak Bilbo'n egingo ziran, tximinietako ke eta zikinkerien adur eta likin laidotsuetan.

Anboto'ko Mari tximist eta trumoi zale be ei zan, baiña ez laiño, ke eta zikin zale.

Euskalerra berde eta aizetsua nai eban arek. Argia.

Tartetan asarretu, odeiak alkar joten oska ipini, urak truxuka bialdu zaparrada gogorretan, eta inguruak garbitu eta kittu.

Dana berdetsu laga, berdeak itxaropena dakarrelako, eta

bere ondotik amets barriak.

Keak, orde,z, likiña, zikiña, koipe eta kedarra lagaten ditu bere bidean. Gizona eta izadia garrastuten dabon ugarra eta gorriña.

Itxasandietatik datozen kapitan mardul eta lodikoteak, erdilo etorrita be, Bilbo'ko ke eta lurrunak itxartuten ei ditu ezta-riak urratuta, Nerbion ibaira urreratzean.

Itxasoetako iodo usain sendoa Portugalete'n gora sartu orduko gaixotuten ei da

Gero, jakiña, Artea, Mundaka, Gaminitz eta Getxo aldeko miradoretan, andra eder egin nairik, curen buruak ezin apaindu eta zainduta bizi diran euran emazteei sufridu eragiten ei dau-tsez Bilbo'ko kearen ondorenak.

Gizona jator etorri, nekez baiña ondo zainduta ibili ondo-ren, ametsez beteta agertu, emazteari musu emoten urreratu ta lenengo berbatik: Oraingotan be ibili zara zu andra zikin tokien baten. Atsa, kedar usaiña dakartsu; barru usaiña; kolonia ozpindu edo biñagretutako kabareten bateko atsa; alkool lurrunez bete-tako zantar etxeen bateko landu eziñiko agiria.

Orra Bilbo'ko ke ta zikiña, familiak be muturka ipinten di-tun demoniño zirikatzallea

Eta gizonak, euskal kapitan jatorrak, zitzaldian ez jaustea-rran, Filipinas'etatik mulatarik ederrenei be begiratzen ausartu-ten ez diranak, euren andra garbi zalien ezezen eta ukatze ori artu ondoren, etxe beteko nastea sortu, atsedon egunak be asa-rrre igaro, eta barrero joaten ei dira, euren zeregiñean, itxas an-dictara, gogaituta, naskatuta

Eta Bilbo'ko eta lurrunaren sargoreak an arinduko dirala-ta, euren emazteak be euren kamarotean eroan, itxasoetako as-per-une luzeak itxas zabalen astuntasunean igaro eragin.

Baiña Bilbo or geratzen zan laiño eta lanbro eta ats barri artean.

Bilbo'ri kantuzko eguna izentatu eben bein.

Indar eta lan, banku eta kutxa, torre eta jauregi, burdin eta

galtzairu, txalupa eta ontzi andien Bilbo laga, aztu, baztertu edo alboratu eta danak, euskal poetarik jatorrenak, Bilbo'ren kea erabili eben euren kantuetako asmo eta gai.

Len, ospe andiko idazleak eta entzute oneko izlariak 2igarroen kea bear izaten ei eben euren ideak bíribiltzeko.

Bilbo'ko olerkariak Altos Hornos eta beste tximinetako ke andiak, zeruetako odeiak aiñako ke moltoiak darabil zazenak bear Bilbo'ri kantuz ekiteko.

Bilbo berbera bere lotsarrietatik ezagutu erazi eta goratu orde, gogoratu nai

Eta bein, Bilbo'k, jakintsu eta teknikoen arrotasun eta gaurko ezaupideak alboan laga-ta, Bizkai baserritar Arlote'ri deitu eutsan. osatu ezin diranak, etenda dagozan gaixuak, azkenetan sasi-medikuei deituten dautsen lez, askok osagille berberen baimenagaz.

Geiago eziñez, ito bear ebala-ta, Bilbo'tik be deitu eutsen Arlote'ri.

Arlote Bilbo gaiñera igo zan. Andik luze eta zabal begiraka jardun. Serantes, Ganekogorta eta Artxanda mendien bitartea ikusi ta aztertu, eta erantzun zorrotz bat emon eban:

«Edurra tellatuan, abarra basoan, baiña taloak egiteko uruna auzoan.

Pozik artu eben bere erantzuna, baiña iñok ez eban uler-tzen zer esan nai eban.

Eta Arlote'k be ez eban beretik urteten.

Mesedez eskatuten eutsen, arrenka, zerbait argiago esateko, bere sententzia errezagotzeko.

Asarretu egiten zan Arlote. Esaera zarrak ez dirala aldatu bear, ez dirala edozetara erabili bear.

Lotsatu zitun bilbotarrak euren odoleko izan ziranen euskal esaera zarrak ulertzen ez ekielako be.

Bilbo'k, bere diru egarriz eta uri andi naikeriz, bizkaitar izate guztia galdu ebala-ta.

Bilbo'k, arlotekeriak entzuten aspertu zala-ta, bertan bera laga eban Arlote sasi jakintsuaren esana.

Eta kentzan jarraitu eban, gero ta ke eta lurrun larriagotan, begiak be lañnoz bete eta erreta gorri-gorri lagaten zitun giro gaixogarrían.

Alkate barriak aukeratzean, danak agintzen eutsen erriari Bilbo garbitzen aleginduko zirala Bilbo'ri osasun barria ekarriko eutsela, Gorbeia, Urkiola eta Oiz gaiñetako aizeei, Bilbo'n dantzán egiteko toki zabala agertuz.

Baiña aizeak bildurtu egiten ziran Bilbo'n sartzén. Atzera egin, ketzan, itsututa, bidea okertu edo galtzen ebelako eta gal-dara ondoetan epelak jota nagitu.

Eta alkateak, euren denporak amaitzean, nai ebena lortzen ez ebelako, makur eta lotsakor lagaten eben alkate makilla, ospe eta izen barik.

Bein, basoetako jatorriko alkate bat aukeratu eben. Izena bera arbasoetako: Gaztañadi.

Eta ametsetan asi zan, besteak egin ez ebena berak egin al izango ebalakoan.

Eta euskal edestiari, kondairari (istoriari) begira asi zan.

Antxiñako euskal gixurenetan (giganteetan) ba ete egoan ezer, zeregin onetan lagundu eikeanik.

Gerrak biotz-errea sortuten eutsen. Atzerapen ugari eta gerralariak berealako baten baztertu zitun.

Itxastarrak, Terranoba'ko baletako osterak eta Amerika bi-llatzen egindakoak, ur gaiñeko ibillaldi eta egitadak ziran. Bioz-kadak askotan edo ta gosearen estutasunak eta itzaltasunak era-gindako urteerak.

Sorgiñak lenengotatik uxatu zitun. Ez eban sinistuten euren-tan, argi denporetako gizon jator lez

Lamiñak andra gizonen maitekerien zirikatzaillé lez ikusten zitun.

Akelarreak Bilbo bertan ' eukazan, izen da guzti, aker da

guzti, nai ta akerrak gaur beste era báteko adarrak erabili.

Jo geiago ta orra istoriko une zoragarri bat: jentillen denpora arrigarria.

Euskalerrriak sasoi baten jentillak euki ba zítun, zegaitik gogoratu ez eta eurekaz baliatu ez?

Eta jentillen lanak zearo ikasi ta aztertuten asi zan.

Mendi batetik bestera oinkada baten salto egiteko almena euken jentillak:

Arno Mendin aitza artu eta olgetan lez itxas ondora jaurtiten ekienak, orduko pelota jokoak, eurentzat, arri bola andiekaz ibiltea zalako.

Edo ta egunetan egindako eleizak gau baten tokiz aldatzen ekien jentillak.

Jentillak izan ei ziran garia ereiten lenen ekin eutsenak; jentillak Euskalerrriko lenengo errementariak; jentillak lenengo errotariak; jentillak lenengo cromlechs'ak egin zituenak. Jentillak Euskalerrriko eleizarik andienetako torre arlandu astunetz bete eta biribildu zituenak.

Jentillak Euskalerrriari bizileku itxura sortu, komeni zan tokietan mendi andiak, sagar bategaz egiten dan lez, goitik eutsi ta zabaldu zituenak, erriak egiteko lautadak eratuz.

Eta istoria irakurrita, jentillak Leiza'ko kobaetan eskutatu zirala jakin eban, zeruetan zoragarritzko izar egitsu bat agertu zanean.

Eta irakurten loak artu eban eta ametsak bizitu.

Bilbo'ren diru erdiak jentillei emotea pentsatu eban, Bilbo'ren osasunak eta egoerak Bilbo berbertako ondasun guztiak baiño geiago balio ebalak kontuan artuta.

Eta Gaztañadi alkatea, *bere* ametsetan, jentillen bidera urten zan.

Urre gorriak eta meatz mendien aberastasun guztia eroazala konturatu ziranean, jentillak nor ete zan itandu eutsen eta lenago be Bilbo'n lan asko egiñak zirala gogoratuz, mendi baten

lodieraz eginda euken leiza edo kobako atea zabaldu eutsen.

Berba egin eben. Luzaro eta zeatz, eskutu eta azalkeri barik, gordin eta kopla barik

Gau bi nai zituen jentillak euren lana ondo egiteko. Alka-teak bakarra eskatu. Gau baten amaitu ezik, kontzejalak kontu eskatuko eutsela eta urteak igaro bearko zirala erabagi bat artze-ko traba lez ipinten eutsezan akikulu guztiak argitzen.

Nekez baiña gertu ziran jentillak gau baten egitera.

Asmo bi erakutsi zituen.

Bat, Bilbo inguruan egozan meatz lantegiak, euren galdara, tximini ta guzti, milla metro lurretik jaso, ortarako jentillak ba-karrik sortu eragien gas astun baten bidez, an goietan, eutsi era-giñez. Kea, besterik ezean, zeruetan galduko zan. Usaiñak be an zabalduko ziran. Baiña gasik ez ete zan beratuko, nai ta keak gora igo?

Bigarren asmoa ontsuagotzat artu eban.

Jentillak ba ekien Euskalerraren azpia arri-olío (petroleoz) beteta egoala.

Kontuak atara zituen eta emen atarata baiño arabiarrei sal-duta andik barriro bertara merkeago ekarriko ebela eta makro-txupoiekaz iñor konturatu barik, itxas azpietatik zear persiarren kolkora aldatu eben iru-lau ordutan emen egoan arriolio guztia.

Boltsa ori Bizkai inguru guztiaren azpian egoan, eta ustu zanean, toki ikaragarriak geratu ziran, ez bakarrik Bilbo'ko gin-tza eta lantegiak an sartzeko, bai eta Bizkai guztikoak be, batez be Bilbo'ko errekaen alderdi bietan egozanak.

Eta toki ikaragarriak egonarren, konturatu ziran, batez be Ortuella'ko ikastoletako umerik geñenak zerurako bidean ipini zituela jakin ebenean, gasari egalak ondo sarrratu ta itxi eta ur-teera ezaguna ipini ezik, Bilbo guztia, zar eta gazte, etxe eta kale, zementu eta bardin, dana aidean joango zala, gasaren indarrak an artuko eban bultzadeagaz

Ori, ondo pentsatu ezkeru, Bilbo gaxorik euki barik, erío-tzara bialtzea zan.

Ori ondo aztertu ondoren, itxas azpitik zear bolkanak egozan mendietara egin zituen egunero sortu, batu eta zabalduko ziran gasentzako bideak.

Euskalerrian ez egoan bolkanik, eta ori gure erriarentzat mesedegarri zan, guretzako arriskurik ez ebalako sortzen, nai ta beste erriak izorratu.

Gerorako kalterik txikienaren arriskua be galduta geratzen zala ondo aztertu ebanean, eta Lemonizek baiño zer eta manifestapen gitxiago sortuko ebala euren asmoak ziur jakin ebanean, euren indarra tximisten indarragaz alkartu, *eta* ordu erdiko ekaitz ikaragarri baten ondoren, Barakaldo, Sestao, Erandio eta ingurutako errietako gintza guztien oiñarria urratu txiki bat be egin barik, zeastasunik andienetako erabílgarriak be milimetro baten be okertu barik.

Itxas zabalean be, arrantzaleak ibiltzen ez ziran tokietan, tubo andiak atara zituen, bolkanetako bideak iñoiz okertu edo ugartuten ba ziran be, ango keak urrutietako itxasoetan, ia zerua eta itxasoak'alkar jotzen daben tokietan atarateko, azken premiña baten.

Lan ikaragarri oneik Bilbo'ko banku aberatsei be zotin eragin eutsen euren ekonomian, baiña bilbotarrak osasunez lanean ekin ezkeru, baserritarrak idi probetan lez «ondu baietz'ka asi ezkeru, bilbotarrak lakorik ez dagola ta laster onduko zala gau bateko ondamendi ori ta Gaztañadi alkatea pozik ebillan bere ametsetan.

Jenteák igarri ba ez eben egin lantegien aldaketarik, oi dan lez esnatu ziranean, erdi lotan betiko trenak artu zituelako, eta trenak be lantegietarako bide barriak *erraz* artu zituelako.

Euzkadi'ko alkaterik onenentzako txapela emongo eutsela be pentsatu eban alkateak.

Ke bako Bilbo zoragarri eta alaia ikusi eta ango kaleetan ibilteko garretan igarten eban bere burua.

Orrelako egoeretan, sirenak jotzen iñarduela igarri eban.

Erritarren poza zalakoan, Bilbo guztía bere etxe aurrean

berari goraka egongo zala ta arro egoan.

Leioa zabaldu eban.

Eta bat batean, estulka asi zan, eztarria urratuta, surretatik kili -kili ziriña sunak anditzeko eran oartzen ebala.

Lo konkorretik esnatzen asi zala konturatu zan.

Pozoi mailla (kontaminasiño mailla) sekulako gorenen egoala asi zan Bilbo'n eguna zabaltzen.

Origaitik or ebiltzan sirenak eta turrinak zarata otsean jendeari arriskua gogoratzen.

Oe egalean jazarri eta jentillak madarikatzen asi zan. Baiña konturatu zan jentillen lan ikaragarri a bizitu eragin eutsen sorigiñak erru,geiago eukela.

Eta berak madarikatzen zitun lamiña, sorgin eta mariak zela-ala bizi zirala konturatu zan.

Baiña batez be inguru guztietan dabiltzan akerrak gogoratzen zitun.

Eta akerrak adarrak okerrak erabili leikezan artean, Bilbo'ko ke eta lurrinak Bilbo'ren nortasuna erakusten jarraituko dabela sinistu eban bere artean.

Ametsa izan zan dana.

Baiña ametsa laiñopean galdu egin zan, eta keiak Bilbo gainean mamu antzera ibili. Sekula amaituko ez dan Bilbo'ren ipuiña da.



GOGORRA GERTATU DA ZUEN ERRIAN!

*Donostiko Centro de Atraccion y Turismo'k 1964 urteko
Euskal Jaietan eratutako leiaketan, santua.*



GOGORRA GERTATU DA ZUEN ERRIAN!

Bederatziak inguru ziran nire lanetatik etxeratu nitzanian.

Maia gertu egoan. Aparia be bai.

Nire «etxekoandreak» galdetu eustan: Gura dozu perretxi-ko batzuk ipintea?

Perretxiak?

-Zure lagunak bialdu ditu.

-Zeñek?

Eztozu igarten?

Ipiñi bat edo bi.

-Zeu bakarrik zagoz apaitarako ala?

Eneutzen begiratu zelakoak ziran.

Ba'daki neskatileak gabetan olako zale ez naizena ta etzitun asko ipini. Zazpi edo zortzi giñan apaitarako ta txapa-gañean erreta bana inguru. Bat edo besteak erdi-bana, beste batzuk bat eta erdiña, jan genduzan.

Apal ondoren, emaztia lagun nebala, itxaso aurrera joan nitzan aize pixkat artzen.

Amaika ta erdiak inguruan etxeratu nitzan.

-Juananton ikusi dozu?

Ez.

Estu dabil.

Zer ba?

Bera ikusi barik oera ez juateko.

Zer dala ta?

Perretxikuak ez ei dira onak...

Emaztia ta ni alkarrri begira geratu giñan.

Nun dagoz bestiak?

Or otzaran ugari...

Begiratu, aztertu... usaña artu, bat edo beste ebagi zeetu, esnerik ete euken estutu...

Onetan niardula emen dator Junanton. Estu larri, izerdi iikiñetan.

Ederra egin dogu!

Zer ba?



Ikusi dozuz perretxikuak?

-Ointxe nabil ikusten.

Ba. dakizu zer diñon Buesa'ren liburuak? Irakurri, irakurri...

-Ba.!

-Ba?

Onen antzerakuekaitik diño:  

Antzerakuak?

Seguru zagoz jan dozuezanak antzerako orreitakoak ez dirala? Begiratu ondo perretxiko oneri. Eraztun antzeko au, tukur ondoa... Ederra egin dogu! Nortzuk jan dozuez?

Danok. Batzuk erdika, baña, ikutu beintzat danok.

Enago ni perretxiko oneik...

-Etzaitez nastaten asi. Ni itsu-itsu nago liburuak diñon orreitakoak dirala.

Zerbait sentiduko gendun.

Ori da ba ain zuzen be onein kakua. Ezer igarri ez ta sei ordura, edo amaseira, edo iru egunera... ilkorrak. ilkorrak.

Ezin lei ori.

Ezetz? Eztozu irakurten ala? Irakurri, irakurri... iJI

Ta ekin barrero liburu irakurteari. -

Artu egizu esne otza, esan eustan emaztiak, burduntzaliagaz basua beteten ziardula batera. \

Zetarako? ,^d

-Ona izaten ei da_

-Beti da ona esnia. Ta dsanga dsanga edan neban baso andi bete.

-Umiei emongo dautset?

-Itxi egiezue baketan.

-Zerbait egín biarko da, sartu zan Junanton. Baketan itxi? Auxe da biarra! Nundik asi orain? Bilbo'ra juatia izango da one-na.

-Bilbo'ra zetan?

-Ez daigun denporarik galdu.

-Bertsuak atarako dauskuez.

-Olgetako umorea daukazu?

-Zeuk jan dozuz ala?

-Nigaz etzaite kezkatu.

-Ni baño obeto zagoz orretara.

-Ez nagizu berotu.

-Ni beintzat ez nua Bilbo'ra.

-Etzaitez olako izan. Irakurri egizu, baña, ondo. Zu etzara konturatzen...

-Nok daki kaltegarri diran?

-Oraindik orretan? Alaba ebillan garbitzen. Eskerrak bera zerbait konturatu dan. Artu dot liburua ta...

-Nai dana gertatu dedilla.

-Ezin baña orrela gelditu! Etzara zu bakarrik. Zure emaztea-

-Ez, nik ez dot jan, erantzun eban emaztiak.

-Umiak eta...

-Kaltegarri ba'litzakez ez ete eben onezkero zerbait igarriko?

-Gogoratu zer jaso zan Berritu'n, gogoratu Iruña'n gertatua... Ezin geinke onela gelditu.

Igo giñan umien lo-gelara. Danak lo, nasai, luze, arnas bakesuan, bat edo beste irribarrezka...

-Ikusten?

Orrek ez dauka zer ikusi. Ez dozu irakurri sei ordura edo...

Egia esan, enitzan bildurtzenr Nik be ez nitun ondo eza-
gutzen perretxikoak baña eneutsen kaltegarri itxurarik artzen.
Ikusi liburu bat, beste batr..

Mesedez, ez daigun denporarik galdu. Guazen bixkor Bil-
bo'ra. Itxartu danak Eskatu kotxe bat.

-Gizona, aurrez... Bilbo baño lenago be zerbait billatu leike.

Ibilli ta ibilli zuritu ninduen osagille batengana juateko.

Erriko bat ikusi daigun lenengo. Gure lagun bat, bera be
zalia da-ta.

Amabi ta erdiak inguruan ba guaz Junanton ta ni, eskuan
perretxiko batzuk artuta, X jaunaren etxera. Giro ederra. Orain-
dik balkoietan jente asko gau giroaren atsegiñez.

Osagillearen auzokoak arrituta gu andik ikustean. Eskillara
buruan zelataka igarten genduzen.

Jo atea osagillearen etxean, ta erantzunik ez. Jo barriro, ta
barriro, gitxienez amar bidar. Zabaldu ez. Beko ta auzokualc au-
sartu ziran atepak zabaltzen.

Ezer igaroten yatzue?

Ez da ainbesteko, baña medikua ikusi nai genduke.

Lo gogorrekua da ta deitu egiozue barriro. Nai dozue te-
lefonoz deitzea ia erantzuten ete daben? Edo eskoba kirtenagaz
goia joko dautsagu bere oe inguruan...

Borondate obarik ezin. Jo batetik eta bestetik, alako baten
sentidu gendun zerbait etorrela atera.

Bera zan.

Zein da?

Gu.

Zein?

Ni, Junanton, alkatia, ta au.

Zer dakartzue?

Ara._ beti ebillan au esaten Iruzubieta baño goratxuago edozenbat perretxiko ikusten zirala autobusetik, andik igarokeran, piñu landaren artean. Ta gaur ekarri egin dodaz.

Zelakuak dira?

-Ara... Ta paketea zabaldu ta asi yakun medikua begira ta usainka.

Zer dauke oneik?

-Ikusi Buesa'k zer diñon.

Liburua artu ta perretxikuei begiratu. Betaurrekoak kendu ta barriro liburu ta perretxikuei begiratu. Beste betaurreko batzuk jantzi ta obeto irakurri...

-Nik uste dot... Urte asko dira, berrogeitik gora, ni sasoi aretan Gernikan gertatzen nitzala, Gernikako sarreran, zugazti ertzean, antzerako perretxikoak ba ekien urteten ta jan egiten zituen.

Etziran bardiñak izango. Baña oneik... begiratu liburuari.

Bai, liburuak bai. Ala ta be... bardiñak dira eurok. Ta nok jan ditu?

Onek. Eta bere semiak. Seik beintzat.

Noiz apaldu dozue?

Bederatzietan.

Ia ordubatak dira.

Iru ordu igaro dira. Onezkero jan ondorenak eztean dagoz. Urdailleko garbitasun bat alperriko litzake. Eztea garbitzeko, barriz, emen erreztasun gitxi dago... Baña,-ez dot uste nik...

Ara, ni baietzean nago. Ta zortzi ordura edo...

Ala ba'litz egiña eginda dago.

-E?

-Edo gitxi gitxiago. Ni, zuen tokian, bada ezpadan, nai beste karabaña edo gatz urez betetako zerbait artu ta lotara juango nitzake. Besterik... Nik, nire ustez, ez dirala diñozuzan lakoak esango neuke.

-Irakurri dau ondo.?

gira.

Sartu giñan. Iru-lau astiñaldi liburuei emon ta ezin aurkitu ain zuzen be nai gendunik.

Osagillea be larritzen asi zan. Berez estua ta orain estuago. Zerbait bilatu nai ta ezin. «Ementxe egon biar nai ta ez...» baña ez egoan an.

Zein demoniño ibilten ete da nire liburuekin? Ain zuzen be arañegun edo...

Gero ta estuago nire laguna. Osagilleak baretu ni, ala edo ala itxaropen aize bat sortu nai.

Etzaitzeze estutu. Okerrik ez daitela agertu, nai ezetzean nago, baña ba da ezpadan karabaña artu ta ezer ba litz... ikusiko genduke.. Itxi egidazu frantzez liburu ori be ia zerbait ataraten dogun, bada ezpadan.

Osagillearen etxetik nirera ba'dagoz irurein bat metro. Barrero kezka ta izerdiak gorputza dardaratu ta gainduteko aña.

-Enago nirean. Enago. Bilbo'ra joan bear dogu, asi yatan Junanton.

Eztozu entzun zer esan daben?

Nik dakidana ta ukatu ezin zeinkena auxe da. Sei edo zortzi ordura traidoreak dirala perretxiko oneik.

Alkatea zan nire laguna ta Bizkaiko diputadua.

Agintaritzaren ardurak be zirikatu eban.

Telefonoz itz egitera nuar

Nora?

-Bilbora.

-Zeñeri?

Diputaziñoko teknikoari..r

Asi izenak gogoratzen ta ezin... Idazkari nagusiari deitzea onena

Bat batean, telefonistei aguro ibilteko eskatuaz, deika asi zan.

Emen Junanton, Ondarruko alkatea... Al dan ariñen eraba-

gi bear dogu._ zoritxarreko gertaera bat_. famili oso bat, zortzi lagun, perretxikoekin gaiztotuta, enbenenatuta... Buesa'k diñonez, iru lau ordu barru, zortzi ordura edo, ilkorrak. Bai, ilkorrak... Zein da biologi gaietan or aurrean dabillena?

Ez egiozu esan ainbeste, gizon. Bildur zariala, dudako ete diran, baña gaitz eginda gagozanik_, nik albotik.

Ixilik zu, garratz berak. Ta ekin barriro Bilbao'gaz... Ezin leike ezer egin? Baña... nik baño errezago al izango dozu ortik eta mesedez, ia zerbait, argitasun pixkat edo nasaitasun pixkat... Laster arte. Emen egongo naz_. Deitu bateri edo bestiari... zeuk dakizu, bai, baña bixkor ibili.

Orduak aurrera ta gero ta larriago.

Eskatu kotxe bat.

Norako?

Esnatu egizuz umiak, jantzi ta guazen Bilbo'ra.

-Etzagoz ondo!

Ez daigun denporarik galdu.

-Ara, sei edo zortzi ordu ba'dira, denpora ba daukagu gero be umiak eruateko ta ainbestetan alegintzen ba'zara, biok juango gara.

Nire emazteak eta bereak ondo ikusi eben nire erantzuna.

Taxi bateri deitu geuntzan. Bera etorri orduko Bilbao'tik deika ziran. Teknikoa erbestean egoala, baña bere laguntzallearen kontsejuz, klinikaren batera juatia zala onena, perretxikuen analisisak-eta egin baño len, gora-berak, gertatekotan, lenago igaroko ziralako.

Klinikaren batera? Basurtoko ospitalera ez ete obe, an geiago ikusiko eben-eta?, esan neban nik.

Errazoia. Guazen edonora, denporarik galdu barik.

Sartu giñan Laxiscan.

Berez, irudimenaren indarrez-edo, sarri dakit janaria indarrik barik urdalletik kanporatzen.

Markiña baño len, kotxeko kristala eratsi ta asi nitzan botaten.

-Ez bildurtu, ez bildurtu, esan neutsan. Borondatez dagit au, iñoiz gertatu yaten eran.

Baña a ikusi ta nire laguna etzegoan nire esanak sinistuteko. Iruzubieta'tik gora giñoiazala, gelditu, gelditu emen, agindu eutsan txoferrari. Bota argia, al dozun eran, baster orretara!

Ain zuzen be perretxikoak egozan tokiaren aurrez aurre. Itsu mustuan kotxetik urten, munan gora iru lau metro txirris-tadaka jausi ta jaso, al zan eran igon, ta emen dator eskukada bete perretxikokin. Ta len baño kezka geiago.

Egingo neuke Diputaziñoiko txoferrak, etxeratzekoan, batu egin dituala berak be, len baño askoz gitxiago dagoz-ta. Nun billatu orain bera? Ta berak be jan ba ditu? Auxe da eguna!

Eldu giñan Bilbora.

Erdi olgeta, erdi barrez, baño barruko kezka gaindu eziñik. Fede oso baten nijuan. Gaurko teknikaz, ilkorrak izan da be, zerbait lortuko da beintzat, niñuan. Origaitik enitzan ainbeste kezkatuten.

Bilbora eldu ta zuzen Basurtora. Taxis (ari atean gelditu eragin ondoren, sartu giñan. Eztakit zein atetik. Kobaltoko bonba egoan tokira zuzen-zuzen. An egoan gizon bat mai gañean ta iru-lau lagun bertan.

Pratikante bateri, ikusi orduko:

Nun da osagilleren bat?

Zer ba?

-Perretxikuak gaitz eginda gatoz. Ta okerrena. Ondarru'n geratu dira beste sei.

Osagillea, itxuraz, lo egoan.

Juan zan gora pratikantea. Jezarri giñan. Jezarri? Ormetako agindu ta agiriak irakurten. Nire Junanton urduri, egon eziñik... Minutuak ordu zirudien Bost-edo igaro orduko asi zan:

Ba dator osagillea edo ez? Ondarruko alkatea naz, ta diputadua...

Beste iru-lau minutu ondoren agertu zan osagille gazte bat,

begietako makarrak kentzen; oetik etorran agiri-agirian.

Pratikanteagaz jardunean ekin ebanr Alako baten, guri begira, ots egin eban:

Nortzuk dira emen perretxikoak kalte egindakoak?

Oso osoan, soldaduzkan iru oin aurrera egin ta tinkotzen dan eran, oso oso, lerden-lerden aurreratu zan Junanton ta bat batez

Ni... ta au, ta onen semiak beste bost edo sei.

Ta? Zer euki dozue?

Ezer ez.

Ezer ez? Zelan dakizue ba kalte eginda zagozena?

Perretxíko batzuk jan doguz ta begiratu liburu onek zer diñon.

Osagillea asi zan irakurten. Bein ta barriro, ta barriro..r Igar-ten yakon ezekiala zer esan.

Alako baten, zorrotz Nai dabena esan daijala onek. Kaltegarriak ba ziran, nai ta ez, zerbait igarri biar zenduen.

Aizerik euki dozue?

-Ez

Larritasunik?

Ezta.

Miñik?

Gi txiagó.

Otzikararik? Izerdi otzik?

-Ez

-Bota dozue?

-Nik bai, baña borondatez.

Nik ezin nei ezer egin.

Ezetz?

Ta Junanton gero ta estuago. Baña irakurrir.. Sei ordura edo zortzira...

Nik gauza bat dakit. Kaltegarriak izan ezkeru zuen urdai-llak zerbait igarriko ebela iru ordu baño len, zerbait beintzat...

-Liburuak diñona ala ba'litz?

Osagillea be oldozkor geratu zan. Irakurri barrero...

Lengoan nago. Nik egin neikena auxe da Gura ba'dozue... orri bat beteko dot ta sartu gaixotegira ta itxaron ojean miñak jo arte.

-Miñak asi arte egon? Ta bitartean?

Alkarri begira geratu giñan.

Itxarotekotan naiago dot taxisean itxaron, ojean baño, esan neutsan Junanton'eri.

Telefonotik itz egin neike?, asi zan au.

Or dozue.

Listiña?

-Aurrean.

Izen bat billatu ta deitu... Emen Ondarruko alkatea ta diputadua._

Baña itz egin bear ebana udaldiko oporrean egoan.

Aren ordezkoiari deitu. Bardin. Irugarren bateri... ta a be ez etxian.

Gero ta beroago.

Nai ta ez egongo da emen Bilbon goizetan merkatuko igaliak eta ikusiko dituan.

Eztakizue nor izan leiken?

Osagilleak sorbaldak jaso.

Andik edo emendik jakin gendun nor zan. Bilbo'ko albaitero (beterinario) nausia

Goizeko laurak ziran. Ots berari telefonotik. «Emen Ondarruko alkatea...» Ta ekin betiko leloari.

Beste alderdian ez egoan albaiterua, semia baño.

Zertzeladak eskatu zitun, nun batutakoak ziran, zelakoak, ze koloreko...

Aitak diño, olako ba'dira, ez dirala ain kaltegarri.

-Ez gindukez artuko?

-Orain? Egon.

Mesedez._

Etorri zaitzeze. Kalerako atea itxita egongo da. Jo tirriña ta neu jatsiko naz.

Osagillea be nasaitu zan pixkat, ardurea beste batek artzean.

Etorriko gara zer diñon adierazoten.

Laster giñan Tívoli kalean. Esanda lez gertatu zan dana.

Sartu ginduzen etxian. Junanton'ek ez eukazan perretxi-kuak aztuta lagateko. An gendun eskua bete. Oñetakoak ez genduzan egoki ez txukun alfonbra artean ibilteko, batez be berak, Bilbora guazela perretxiko tokian sartu zanean basaz beteta gel-ditu zalako.

Sala batera eruan genduzen. Gu an laga ta bitartean semia batetik bestera, aitaren aginduen otsein, iru-lau aldiz igaroten ikusi gendun.

Orrek estutzen ginduzen.

Orrenbeste joan etorri... emen gauza onik ez dago, iñoan Junanton'ek, mara-mara jausten yakon izerdia kendu eziñik.

Alako baten emen dator albaitea, pijaman, Goitik bera begiratu euskan. Begiratu baita berak eskuetan ekartzan perretxikoei. Ixilik. Begiratu barrero ta buruari eragin. Begiekin itz egiten euskun zorrotz zorrotz.

-Nor da oneik jan dituana?

Junanton'ek: Nik bat gordiñik. Ta onek ta onen semiakr

Gure osotasunak irribarrea atara eutsan:

Etzaitzeze bildurtu. Ez dira kaltegarriak.

Benetan?

-Oneik batu dozuezan lekuan simaur ugari egongo zan?

Alaxe da.

-Barrengorriak dira. Ez dabe kolorerik artu ain zuzen be euria egin orduko bizi-bizi agertu diralako. Baña ez dauke dudarik...

Iru lau berba egin genduzan egi ta guzur. Eskerrik emotea-gaz gogoratu barik urten giñan bere etxetikr

Barrero Basurtora. An egon osagillea erdi lo.

Ta?

-Jaunari eskerrak...

Ez euskun jarraitzen be laga. Eskillaretan gora asi zan gure jardunak entzuteko asti ta gogo barik ta gure destañez.

Gaur oraindik sarri uste izaten dot osagille arentzat adar jotzalle bi izan giñala

Urten giñan kalera.

Ondarrura deituko dogu?

Baña telefonoak itxita.

Diputaziño aurretik igarokeran gelditu giñan. Tirriña jo orduko an etorran gau-zaña. Agurtzeko astirik bez:

Ederra jaso da Ondarrun! Famili gaxua! Kartzelan sartzia merezi leuke beste ezaupide barik olako perretxikoak batzen ditunak! Gogorra da gero ori!

Ez baña, Jaunari eskerrak..r ta emon areri be leongei lako agerpena.

Ez giñan telefenoagaz gogoratu.

Aurrera. Kaletan ziar ez gendun ezer zabalik ikusi. Emendik itz egitekotan, andik egingo gendulakoan, eldu giñan gure errira eguna argitzen asita gero.

Lo egozan etxean umiak. Emaztea ez.

-Ze barri dakartzue?

-Jaunari eskerrak... Ta emaztiari be soltatu geuntsan gure diskoa.

Iñori cz aitatzekotan geratu giñan.

Zortziretan lanean nengoan, ezer jaso ez ba litz lez.

Zortzi ta erdiak inguruan emen datorkit esne bezeroa kapazu bete perretxikoekin.

Gure zelaian egunotan urtenda egozan ta esan gendun atzo: Arek jango lituzke ba pozik oneik..! Bitsa erabilliko dau arek ain ederrak ikustean!

Gure gabeko joan etorrien bardin bardiñak ziran.

Iribarre gozo bat egin neutsan ta nire artian: ez da nekeza

adarra jotia!

Illuntze ordurako irribarreak eta zirikadak igarri nituzan adizkidien artian.

Gizonak lapiko txikiak gara izan ber

Zer jaso zan?

Bilbora juaten, autobusetik ikusten ziran gure perretxikoak Iruzubieta aldean. Baña autobusik ez da an gelditzen. Ta alkateari esan neutsan. Astero bein edo birritan juaten zan Bilbora diputadu lez. Ta arek, perretxiko zale amorratua, batu ta batu otzara andi bete...

Arek ekarriak zirala-ta, ezagutzen onentzat etsiten zan lez, ni, fede onean, begiratzen be enitzan alegindu.

Ta gero gerokuak.

Ni pekatari, bera pekatari, or konpon.

Liburua irakurri ondoren... bost sei il kaja, kale kutzean gora, bata bestiaren ondoren ikusten asi ei zan nire odolaren odolanda ondamendi.

Ta nik, Bilbo'ra jua ez ba'giña, bera ikusten neban burua artuta, beste nunbaiten.

Ta aste barruan, sekula ez da, bost sei lagunek ainbat perretxiko bialdu eustezan.

Nai ta ez bildurra **kendu eragin** bear.



CLAVARIA
FORMOSA



*Kontuz:
zirin-zirin
ibíli nai ez
badozu*



Perretxikotan geldi ibili bear da, eta ezagutzen ez diranekin kontuz.

GANTZERUAK IZAN DIRA!

1962'urtean, Donostia'ko CA.T.eko Euskal sariketan, saritua



GANTZERUAK IZAN DIRA

Ez Madrid'en, ez Bilbo'n eta ez Donosti'n.

Gure erritxoan, gure kaletan, gaur bertan. Ondarroa'n.

Txomin eta Peru ezagutzen?

Ba, biak, betiko antzera, eguerdi ondorengo lo apurra egin ondoren, aize pixkat artuz, ibai ertzetik ebiltzan, Arrigorriako bidean, txalupa barriei begira, bataren trebetasuna eta bestearen irabaziak kontu-kontari

Bide barrian gora, astirotsu, Antzosolo inguruan, kotxe dotore bat, klaxona jotzen. Geratuko ete? Barrutik, eskuei eragiten, agurka, ezaupide agiriak erakusten, iru gizon. Ez gazte ta ez zaar. Sasoi-sasoiko.

Ezagutzen dozuz, ala, Txomin?

Nik? Nundik? Zeuri deituko dautzue.

Niri?

Guk ez daukagu kanpua inor.

-Guretarrik be ez dago ba.

Gerrateko ezagunen bat edo...

Orreik? Gerratean ume ízango ziran oraindik. Bizar askorik ez eben eukiko.

-Kotxea geratu, jatsi ta emen dator bat, Peru'ri eskua luzatzen, lepoan jo, besarkatu ta kaixo osaba, kaixo osabaka!

Osaba ni? Ez...

Ez zara gogoratuten?

Osaba ni? Zeiñena?

-Ez zara akordaten erbestean zein senide daukazun?

Nik?

Gogoratu ez? Zelan esan leike ori?

-Benetan, ez naiz konturatzen.

Baiña osaba.r. nai ta ez bururatu bear.

Zeuk esaten ez ba dozu...

Nik esan? Ia, gogoratu osabar Poztuko zara. Ba neukan gogoalkar ikusteko.

Nik ez dakit ba.

-Itsu-mustuan artu zaitut eta...

Ez daustazu sinistu naiko, baiña nik...

Ba dakit sasoi baten asko maite ziñela, gerratetik zerbait aaztuta bizita be. Jakiña, gerrateko gora-berak... Ia zenbat senide aldebanatu zituen.

-Orrek emoten dautsuzan zertzeladakin ezagutzen zaitula dirudi Peru, albotik Txomin'ek. Au zuentarren bat izango da.

Besteren bategaz naastuta ez ba dabil...

Besterik ez, osaba, zeu baiño... Nasaitu, egin gogoeta pixkat.

Alako baten, Espiritu Santuaren aizeak ikututa lez, gogoratu zan Peru bere arreba Idurre iñoiz erbestean ibilia zala ta bear ba da aren ondorengo bat izan eikeala edo...

Nik ez dakit ba. Gure Idurre ibili zan aldiren baten ortik zear, baiña arek iñor eukanik be...

Ara ba! Ikusten? Gogoratu zara zuen Idurregaz? Ori, ba ori

Ene! Ta Idurre'ren norbait zara?

Itxurarik ez al daukat?

-Ondo ondo begiratu ezkerro...

Ezetz?

-Urte asko dira ikusi gendula be ta!

-Danak esaten dauste ama berbera naizela.

-Bai, esan lei zerbait. Itxura pixkat, ortara jarri ezkerro...

-Bekokia ta muturra beiñik bein zuentarrak.

Ez da errez igarten. Nik beintzat ondo tximurtuta ta bal-
tzituta daukadaz

Ba, ba, osaba, esakerak be gure amarenak daukazuz.

Sasoia zan konturatzen asteko!

Ta barriro besarkatu, musuak emon ta alkarri lepokada es-
tutu, eta_

Txomin'ek, ezagutu zirala-ta, senitarteko gauzetan zetan
sartu ez eukala-ta, berak be bostekoa estutu ta an laga zitun.

Kotxeko beste biak be aurreratu yakoezan.

Etxekuak? Ez doguz orindik aitatu be. Etxean danak
ondo?

Ondo, ondo.

Zenbat senide daukadaz?

Batek ba daki ori. Kata-kumeak aiña. Gu ugariak gara izan
be ta

Eta zuek?

Neu bakarrik. Zetarako geiago?

Ondo bizitzeko, ori be.

Senideak osasunez egongo dira, ez?

Estul batzuk gora bera. Jakiña, beti estu.

Estu?

Negu baltza euki dogu ta

-Arrain gitxi?

Arrain eta guzti be ez da errez danak zaintzen. Ogi utsetan
be ba dakizu zenbat bear dan? Amabi gara gero!

Amabi? Danak ezagutzen be...

Gaur ez beintzat. Baiña nai dozuz batzuk ezagutu?

Amona bizi da?

Erdi bizi. Igar igarra dago koitadea.

Naiko neuke ezagutu. Bein onera eldu ezkerero...

An dago etxean. Beti itxaroten.

Zeiñen?

Bere orduari. Ia, aren kosteria erdi amaitu zan azpaldi.

Orrela euki amona? Gure ama bizi izan ba litz, beste

amets bat sartuko eutsan.

Bera ez zan ba il?

Ez egizu aitatu be emen amaren konturikr Min bizia barriztuten yat gogoratu ta batera.

Orixe ba. A be ez zan emen gatzetako geratu.

Urruti daukazue etxea?

Ez Iru minutu inguru oiñez Laster.

Zeuna da?

Gurea? Esatea be! Erriko beartsuenak, ezpai barik geu izan eta etxe jaube?

Orrelaxe, kontu kontari, ba duaz etxera.

Etxe utsá. Agureak eta mutillak nausi diranetako etxe giroa barruan.

"Arasa txiki bat sukaldean ta tresnak edozelan pillotu ta lagata. Txu.kuntasunik ez. Iru-lau aulki sukalde baltz eta illun baten aurrean eta mai zatar bat, lixiba urez erdi jana. Mai ondoan exerita, bere bostean errezaten eta bere ixil-mixillean kontu kontari, bere arrenkura ta bizitzatako gogoetak ezpan artean erabilten, andratxo argal jausi bat. Oker lotutako buruko zapiagaz ulea ondo batu barik, ezpanak urdin, ia ia arda koloreko, begiak erre-erre, bekoki tximur, arpegi latz eta baltz.. Nok zaindu ez dauken amonatxo zaar askoren antzeko.

Ikaratu egin zan amonatxoa ainbeste gizon ikustean.

Ba dakizu, ama, zein dakartzudan?

Ene! Ainbeste gizon gure etxe baldras onetara?

Ez bildurdu, ama. Ezetz igarri zein dagon zure aurrean?

Neuri azkenak emoteko osagillea ez da izango, kontixu.

Bai zera be!

Batel zaarra dala ta zeuk neuri nasterik ez ekarri, e? Or geratuko da batelori ta konponduko zarie nai dozuen lez Orain ez ipini niri asarrerik.

Ez, ama, ez. Zein dala? Ez da olako. Begiratu egiozu, begiratu ondo, ia igarten dautsazun.

Nik? Erdi ezagutu be ez zaituet zeuok egiten eta kanpota-

rrak ezagutu nik? Añatzen be ez nitzan egon, dakizun lez. Sekula emendik urten be ez.

Ez dautsazu bekokian edo muturrean iñoren itxurarik ar-
tzen?

Ba dakizu zuk ikusi be ozta-ozta egiten dodala orretarako.

Ezin igarri be nor izan leiken?

Nigaitilc.

-Ez zara gogoratuten Idurregaz?

Gogoratu ez? Gogoratuko ez naiz ba?

Ba, aren semea. Zure illoba.

E? Gure Idurre ezkondata egoan ala? Sekula paperik be ez eban orretarako eskatu.

Amona, gaur paperak sobre dgoz. Erri txikietako gauza eta estukeriak dira orreik.

Semerik eukanik be ez genkian-ta! Ai, ai, ai! Zelan ibili ete zan a! Baiña, txo-txo, ekatzu laztan eder bat. Ekatzu... Eta laztan eta musu, besarkada ta igortzi, barriro alkarren leian.

Etxean sartu orduko beste lagunak zurkulo guztiak ikusi zituezan. Kuadro bateri ikutu, ate orde zegoan izara ta zapiei eragin, zeenak jandako mai eta komoda zatarrei bultz edo ten eta kajoiak erdi zabaldu, ontzi ta poturik bakanenari be gaiñekoa jáso ta susmoa artu... Dan dana, ezer egingo ez ba eben lez, iñor konturatuteko aitzakirik eta biderik emon barik.

Gela illun bateko zapia be zearkatu eben eta norbait arnas zabalean lo egoala igarri ebenean barriro itxi.

Sukalderatu ziran barriro. Eta amonaren aurrean musu ta musu emon lurrunez eta euli kakaz betetako San Antonioren kuadro illunari; laztan eta laztan errosario andi batetik dindilizka egoan egurrezko kurutzeari.

Amonatxoak ikusi zitun.

-Ai oneik fede andiko gizonak! Ikusten da, ikusten da. Gaur ez dago orrelako asko.

-Guk bai, guk San Antoniogan sinismena itsua dogu.

-Bai guk be.

Ta beste kuadro au? Zein da berau?

Ori San Ramon Nonnato da. Ia ba, amabi seme eukiteko.r.

-Parkatu amona, baiña amabi semek ao asko daukez ta begi geiegi. Oneri ez, oneri ez dautsagu musurik emongo. Au munduaren etsaia da, oneri buelta emongo dautsagu.

Esan eta egin, san Ramon gixajua, erdi-barrezka, erdi-irrika, ormara begira laga eben.

Barriro ekin San Antoniori atzamerrakaz ikutu ta atzamarrak ezpanetara eroanez; zarataz beteriko musuak emon eta ora pro nobis-ka.

Zeintzuk dira ain fede oneko lagunok?

Oneik? Eun edo tela egille onak dira eurok.

Bai, gaur dirua egiteko fabrikante izatea baiño obarik ez dago. Guk gure denporetan, lau txori-txikigaitik egin doguzan lanak, ondo aberastu ditue orrelakoak.

Amonatxo, guk be gure buru-austeak eukiten doguz. Ez txikiak be, erantzun eban tartetik batek.

-Diruarenak ez beiñik-bein.

Ezetz? Egiten dana saltzen ez ba da..

Gaur be zetan urten dogula uste dozu?

Domekan? Ibilten segurutik. Basterrak ikusten.

Ibili ta saltzen.

Eunak saltzen?

Salduko ba litz gaitz erdi. Kostu erdian emon bear sarri, gauzak kittutu be ez egiteko eran.

Bai, osaba, diru apurrik euki ezkerro, seguru egon ganga ederra egingo zendukela gaur. Naiku da gaiñera nire senideak zariela jakitea. Olakorik! Zeiñek uste izango eban ainbesterik?

Nundik atara guk dirua?

Ez illeta asko jo. Geiegirik ez beintzat.

Illeta jo ez aurten euki dogun negu ondoren?

Ba, ba... apurtxo bat ondo dago, baiña ainbeste be...

Ai txotxo, zuk ez dakizu emengo barri. Gure Idurre'k, zure amak, arek bai. Arek ondo ekian, bera be beartsu jaio ta

amaika igaro bear izan ebalako.

-Osaba, pixkat sinistu leikela, baiña..

-Pixkat? Agirian dagoz emen onclasunak

-Egia, nik oneikin urteten dodanean, ez dot sekula diru premiñarik eukiten eta ez dakit dirurik be artzen aldian, izara batzuk saldu ondoren gastuetarako laster egiten dogulako. Baiña seguru egon, ezer erosten ba dautsezu, auzo guztia enbidiz beteko dozula.

-Ez diñot ezetzik. Baiña dirua kaku.

-Ikusten zelako izarak? Nun daukazuz olako izara zuri ederrak bost ogerlekotan?

-Bost ogerlekotan? Zelakuak dira eurok?, amonatxoak.

Izara zabaldu, esku artean erabili ta...

-Bost ogerleko benetan?

-Bai, bai. Emen ba daukazuez ala?

-Emen? Emen ez Orixe ez Emengo dendariak aberastuta dagoz.

-Ondo egiten dabe.

-Bai gure lepotik ez ba litz. Amaika lapurreta egiten dabe orreik.

-Alaxe da. Emen gitxienez ogei ogerleko, ogeta-amar ez ba dira.

Amonatxoa gero ta arduratsuago ta zaletsuago izarei begirra.

-Luzeak dira

-Bai, bai, metro bi.

-Ta zabalak.

-Guk ez dakigu laburrik egiten.

-Gaixo aldiren baterako be berebizikoak.

-Ba, amona... oraintxe baiño aukera obarik ez.

-Bai iñundik al ba neu. Ez daukazu ogeiko bat, Peru?

-Lenguak be artzeko daukadaz oraindik.

-Antxoa sasoian zerbait geitxuagogaz be ordainduko neutzuke ba.

-Zetarako izarak?

Okasiño bat egonda be... Zeuk beste zerbait erosi. Soiñeko bat be elitzaketzu txarto etorriko.

Atz eta atz buruari Peru'k.

Odoleko gaixoa daukazu, osaba. Nire ama be olakoxea zan. Beti illeta jotzen.

Ara, egi egia esango dautsut. Ba daukadaz zortzireun peseta, aurtengo neguan lau bost aldara eragiñak ezin gordeta ta ezin eskutatuta, oneik billatu ez egiezan be.

Zortzireun? Ez zara damutuko eurok gaztateagaz. Ziur egon. Guk zortzireunegaz, edozein tokitan lau millagaz baiño geiago emongo dautsugu. Kontu atara. Bost ogerleko balio ba dabe izarak, dendariak, euren aldetik, zortzi edo amar edo ama-bost irabazi naiko ditue. Nik bost ogerleko balio dabela esan dot, zerbait esateagaitik, ori fabrikako kostua be ez dalako, len esan dogun lez ataratearren, edo orain, senitarteko mesede bat lez.

Zenbat naiko zendukez? Lau zeuretzako ta lau amarentzat?

Ba... Olako aukera ba dago...

Ta gure Peru gaixoa, oso osorik bere zortzireun pesetan billa, ainbeste buruauste ta nekez, premiña esturen baterako eskutatu ta gordetako diruen billa.

Soiñekoa egiteko kortea be zeuk nai aiñakoa eukaratuko dautsugu.

Zetarako, baiña, emendik aurrera traje barria?

Ez bildurtu. Bizi guztian gogoratuko zara zure illobeagaz.

Guk be, berau gugaz dabillalako, mesede ori egin nai dautsagu. Kolore argia atsegin?

Ez. Gure artean eta bein egiteko...

Ara. Auxe egokia. Ez gara ibiliko emen ijitoen antzera emon eta kendu. Ikusi dogu benetan be negu gordiña igaro dozuela ta diruz me zabizela. Urrengo baten egingo dogu beste traturen bat. Gaur, soiñeko batek, merkenak be, iru edo lau mila peseta balio dabena ba dakizu. Guk korte au seireun pesetatan

lagako dautsagu. Dakigulako geiagorik ez daukazula. Saltzea bai-ño erregalau egitea geiago da. Tori. Kotak kenduta ibiliko zara soiñekoa egin ondoren. Edonora joan eta ibilteko lotsarik ez dozu eukiko. Edozein ezkontza, edozein jai, edozein joan etorri...

Itzik egiteko tarterik be ez eban artu Peru'le Emon zituzan bere lizundutako diruak.

Izarak?

Ekarri egizuz kotxetik.

Ez zara gogoratuten azkénak len emon doguzana?

Kontxo! Alaxe da benetan. Ez nitzan gogoratzen. Zer egin geinke orain? Ez kezkatu. Biar bertan bialduko dautsuguz. Biar illuntzerako emen eukiko dozuez..

Bai osaba, nasai egon. Gure itza itza izaten da.

Berandu da ta ba guaz arin. Oraindik bide asko daukagu. Konturatu barik illuntzen da.

Etixerako bilatzeko ez daukazu zerbait, Peru?, amonatxoak.

-Zer euki? Gurean ez.

Ez dakit ba. Bein ezagutu illoba ta bertan esku utsik bialtzea be.

Eskutukoren bat zeuk e ba daukazu...

Nik? Nundik? Min apurra, penatxoa eukiko neuke beste barik bialduta. Etixerako gure zerbait, etxeko zerbait...

Ez kezkatu, ámonatxo.

- zuzen be gaur domeka da ta... ori jakin ba gendu..r Urrengo zatozanean, aurrez deituta etorri.

-Olako gauzak eta ikustaldiak jakin barik obeto egíten dira, amona.

Bai, alaxe da Baiña arrain pixkat edo... Besterik ez ba da, emen dagozan lau berdelak eroan egizuz.

-Berdelei mu egingo dautse oneik. Lebatza izan ba litz be...

Ia ba, gaur nun erosi be eztago. Fresko freskuak dira, garbituta dagoz, gatza emonda dauker ia ba, beste egun bat gertatu ba litz edozeiñeri eskatu edo kentzeko be..r

Ez estatur Borondatea naiku da.

Etxekoak zerbait artu dagien berr. Eroan, eroan lau berde-
lok. Paperik be ez daukagu batzeko ta... Amu batetik kordel txi-
ki baten dindilizka obeto ez, Peru?

Amona, gu hoteletan bizi gara ta oraindik etxerako egun
bat edo bi bearko doguz. Itxi, laga berdelei.

-Gaur artutako lakoxeak dagoz. Zakatsa be gorri gorri dau-
ke. Peruk eroango dautsuz kotxera.

Barriro musuak eta agurrak. Eta amonaxoren maiko bigu-
nak.

Iru gizonak, atera urten orduko, kotxean sartu ta... agur...
agur... ta atzamarrak ezpaiñetara eroanez musu ta biozkadak jaur-
titen. Motorra arindu ta ru, arin egin be.

Or ba. Ez genkien gure Idurrek semerik eukanik be. Nun
billatu dozu bera?

Bidean.

Zelan ezagutu zarie?

Gu? Ba berak nir

Norbaitek esan dautsu?

Ez jakin. Itxuratik edo... Aurrera joiazan ta Txomin eta ni
ikusi gaituenean geratu dira.

Gure Idurre... Nundik nora ibilli ete zan a? Sekula jakin 'ez.
Orain nun bizi dirala esan dau?

Ene! Ez gara orretan jardun. Itz, eta itz, emoten al eban
unerik ezer itanduteko?

Okasiño baten deitzeko be...

Dana dala, izarak bialtzen ba dauskuez, bestelako mesedea
egingo dabe. Eta zuk, traje eder ori egiten dozunean... Zenbat
metro ete daukaz? Jostunari be eskatu gero txatalak, beste edo-
zer egiteko be... Ni neuk ikusmen gitxi daukat, baiña ekatzu tela

ori, zelakoa ete dan konturatzeko be...

Eee? Peru... soñekoa, trajea egiteko ez dautsue saldu ba? emen... emen... gona laburrik egiteko be... amantal bat egiteko be... Zelako izena esan dau illobak?

Ez dautsagu izenik entzun.

Peru... Izarak noiz bialtzeko?

Biar edo...

Biar edo etzi... edo bein ere ez.

E?

Gure Idurren semea dala diñozu?

Nik beste dakizu.

-Entzun ia...

Itxura pixkat ba eukan. Ba eukan antza.

Zeiñena? Zenbat urte gure Idurrek?

Ni baiño gazteago zan, dakizunez, eta...

-Zuk irurogeta lau, a sei urte gazteago... arek berrogei ta amazortzi. Illoba orrek, ítxuratan, eta aren tximurrak ez dabe ukatuten, berrogeitik gora.r.

-Ez zabiz txarto.

Idurre emen bizi izan zan ogeta amar urte inguruan neskatil. Emen ez eban semerik euki.r. Ene ba!

Zer?

Lapurrak ez ete ziran? Ez ete gantzeruak?

-Baita zera be. Ni arek ezagutu naben eran...

-Aita San Antonio! Itsuak argitzen ez dakizu ba? Eta neure Aita San Ramon...

Itzalduten asi zan Peru. Iruntsi eban zerbait. Itzik esateko adore barik etenda gelditu zan, izerdi likiñetan bekokia busti, berekautan aulduata aulki baten exeri, jausi...

Ta amonatxoa... Aita San Antonio! Ai neure Aita San Ramon! Zegaitik ipini ete zaitue ormara begira, atzekoz aurrera? Zuk emoten dozuzan seme bedeinkatuen bildur?

Ez izararik ta ez soñekorik. Ez dakizu zer egin eutsen Kataliñeri? Eta Kospari? Ene bada-ta! Ziur egon. Ez izararik eta ez trajerik!

-Dirurik be ez.

-Ez eta berdelik be. Berdel tristerik be ez! Ze apaldu be ez!
Gantzeruak izan dira!!!



**AMONATXO ZAARRAK
ETA UR TXAKURRAK**

1964 urtean, Ondarroa'ko Lore Jokoetan, saritua



AMONATXO ZAARRAK ETA UR TXAKURRAK

Ume nitzan.

Gaurko umien antzeko. Bildurti, kezkatu, ikusmin, jakin naiko.

Zenbat maite neban nire amonaxo! Amonaxo zaarra!

Arpegi osoa tximur... Gaztetako edertasunen tximurak, igartu eta zimeldutako arpegian.

Bekoki zabal, begi beltzeran, betule baltz, ezpan urten, okotz biribil...

Ta ulea? Nik ezin esan ze koloreko, beti oial edo zapi garbiz estalduta erabilten kzialako.

Ondo gogoratzen naz nire amonaxo alai ta samurrakin!

Oraintxe bertan bere arpegia ikusten nago, irribarretsu-irribarretsu niri poza sartzen ekian arpegi tximur baiña guri ta eztitsua.

Eztakit zelako gorputza zuan. Bere doiaiak, gaur konturatzen naizen emakumicn edertasun eta itxurak, beretzat gordeten ekian. Txiki baño luze geiago, lepua makur, ibilkcran zertxobait tatarrez...

Nik amonaxoa arpegitik ezagutu neban; aztu eziñiko bere irribarretik; niri bigun eta leun laztanduten ekien bere atzamarratik; oraindik maitekiro sentiduten ditudazan bere musu ta laztan eta kimu gozoen bidez; gaur be gogoan ditudazan bere ipuin atsegin eta gogokoen bidez.

Nire amonaxoa etzan aberatsa soñez, baiña bai itzez eta samurrez. Aberats ezalako sekula ez neban berandik diru esperik artu. Baña bere ipuiñak, bere kontutxuak, bere laztanak eta bere kimuak, beraganduten ninduen.

Nik beti esaten neutsan: Gu beartsu, pobre gara, ez amona?

Ta berak: Ez lotsatu txotxo; biotza aberats euki, biotza, ta bestiak aberats izango dozuz

Ta gero, erdi-esan, erdi-kantu, gure erriko esakera zaarra gogoratzen ekian: Pobria, zeruko loria; aberatsa, inpernuko lebatza

.....

Biok jolasean ibiltzen giñan sarri-sarri.

Nik, geienetan, beregana urreratu orduko: Ikusi-makusika ibilliko gara, amonaxo?

Tranpa txikiak egiteko?

Ez Benetan. Bene-benetan.

Ta asten giñan, beti berak aurria artuaz

Ikusi-makusi.

-Zer ikusi?

Ikusten dot, ikusten dot... Ba.

Bastoia.

Ez

Babak.

Nun?

Atzo jan genduzan.

Bai ta? Orain ikusten dozuz?

Ba... ba...

Ezin igarri?

Barixakua.

Txo-txo, barixakurik ez da ikusten.

Ezetz?

Barixakua gaba izaten da ala? Ez da eguna izaten?

Bai baña..

Ba... ba... bakallaua.

Ezta.

Ba... ba.:r batela.

Ikusten dana, ikusten dana.

Len be ikusi dot nik gure batela.

Baña emendik ez

Esango dot?

Ba_ Ba...

Ezin? Ezin?

Ballenia.

-Emen dago ala?

-Ba... ba...

Esango dautzut?

Esan.

Zeu, txotxo, zeu. BATIS.

Ori tranpia da!

Zegaitik?

Nik BATIS ez dot ikusten, NEU baño. Orretarako NE esan biar zendun. Gauza bat among: balerik (ballenarik) ikusi dozu iñoiz?

Bai birritan be.

Nun?

Ementxe.

Ba!

Ezetz? Ilda ekarri eben bat itxasotik. Ori edozeñek be ikusiko eban.

Andia zan?

Bai. ta beste bein_. Portu barman sartu zan.

-Bizirik?

-Jakiña.

Ta?

-Erri geiena batu zan molla gañean bera ikusten.

Lengua baño andiago?

Bosteun bat kilo.

Kolaxuak baño lodiago?

-Bai eun bidar be.

-Orain ez dira sartzen ba.

-Orduan be sartu ez ba litz obe.

Zer ba?

-Molla gaiñetik arrika asi yakozan mutiltxoak. Aitzetatik arri biribillak ekarri ta arrika.

-Bera erdi zoratu zan. Iges nai, baña ez eban urterarik bi-llatzen. Ur asko askorik be ez egoan berak nai eban lez ibilteko.

Bota ta bota arriak eta berak txipli txapla bustanari eragi-ñaz olatu andiak lakoxiak jasoten zituan.

Mutiltxo batek, arria botatera eioala, txirrist egin gooldian ta mollatik bera jausi zan bere ingururar

Asi ziran gizonak eta andrak deika ta garraxika, baña olatu artian ez eben ikusten.

Arpoiak eta jaurti eutsezan. Aren txilio otsa! Txarri bat il-tean baño zarata geiago ataraten eban.

Ta mutilla?

Koitadua konort barik, odoletan, an agertu zan une baten.

Baliari arpoietatik ten egin batzuk eta beste bi edo iru jatxi ziran uretara bera artzen.

Mollara bizirik jaso eben, arnas makalean, baña andik laster, iñor be geiago ezagutu barik, berba bat bakarra be esan barik, il egin zanr

Negar asko egingo neban seguru ori entzutean. Oraindik be eztarrian korapilloa, astuntasuna, itotasuna igarten dot ori go-goratzian.

Baña amonatxoak, irri-barre kutsua galdu barik esaten eban.

Ez eztutu mutil. Emen ez da jazoten Jaungoikuak nai da-bena baiño. Ta egun aretan be..r Aingerutxuak nai izaten dizue zeruetan mutil urduríak.

Nungua zan mutilla?

Nungua? Gaur, bizi ba'litz, zure osaba izango zana. Gaur zure ama danaren anaia. Zure amonaxo onen semia. Nire Bitxintxo laztana..!

Ta nik malkuak eta amonak otoitza erakusten eban bere ezpanetan, esanaz: Seguru asko gaur aingeru artean niri lagun-tzen biziko dan Bitxintxo urduria

Ez neban aitonarik ezagutu. Eztakit zelako zanr Itxurarik bez. Irudirik bez.

Sarri itanduten neutsan: Ta aitona?

A be Jaungoikuak eruan eban befe garaian.

-Zelakua zan?

Ez andi ez txiki.

Argal?

Totolo.

Zuri? Baltz?

Ez baltz ez zuri. Mariñelen koloreko. Neguan illun, atun-tsuan gorrixka, ule ta bizarra be urre kolorekor

Mariñel ona izango zan, ez?

Bestien antzeko.

Ixurdetan-eta ibilten zan?

Ixurdetan ain zuzen be ez. Izurdei laga egin bear izaten yakoe arraiñak ataraten. Atunetan, antxoatan, berdeletan..

Ona zan?

Ez neutsan okerrik ezagutu.

Baña zetarako orrenbeste jakingura?

Ta írribarrezka, írribarrezka, esaten ekian: Andi egitean aitonaren antzeko izatea lortuten ba dozu, etxean zorionez bizíko zara, zorionez. Ta zorionak goserik be ez dau igarten, miñiz bez, negarrik bez.

Nire kontutxoak amonagaz eukiten nituzan. Egunero egu-
nero bere altsoan edo bere albuan.

-Zegaitik ibilten zara beti baltzez jantzita, amona?

-Alarguna naizelako.

-Alargun izatea zer da ba?

-Bakarrik gelditzea

-Orretara orain etzara alargun.

-Zer ba?

-Neu be emen nago-ta

-Baña laguna falta, laguna...

-Ni laguna baño geiago naz, ez? Martintxu bai, a alargun
izango da, ez?. Arek lagunik sekula be ez dau lortuko. Okerrago
da_.

-A ez da alarguna mutil, a mutilzarra da

-Eta Kospa be alarguna da?

-Ez. Ama

-Gure ama ez da ba baltzez jazten.

-Ez beste asko be.

-Eta alargunak?

-Geienetan.

Zegaitik?

-Ezaugarri bat. Oitura bat. Zerbaiten utsunea, illuntasuna
agertzeko.

Orregaz esan nai dozu maite zendula aitona, ez?

-Zeñek ez?

Eta amonatxo, alargunei bizarrak urteten dautse okotzean?

Alargunei eta alargun ez diranei.

Oilo kakaz igortziten dozue ala?

-Nok esan dautzu ori?

Neuk ikusi neban atzo be Peru igortzi ta igortzi. Berak
esan eban bizarra ariñago urteteko zala

-Bakarrik ebillan?

-Bai Ni neuk be Peru lako izatera eltzen naizenian ori egin
bear dot?

-Kontuz gero olako zikinkeriak egiteagaz.
-Bai ta bizarrak urten ezik?
-Orren keskarik ez artu.
Ba eukan aitonak bizarririk?
Kirikixu baten baño sarratuago.
Arek be...
Nok esaten dautzuz olako gauzak, nok?
Eztakizu, amonatxo? Peru-ta, Ibon-eta, Patxitxu-ta, ola-
koxe kontuak esaten ibilten díra beti.

Nire amonatxo bizi zan garaian, ui txakur asko egozan errian. Bizi biziak. Ule-uletsuakr Zuriak geienak.

Goguan ditudaz batzuen izenak: «Urdin», «Apar», «Ba zatoz», «Tente», «Zintzo», «Urgain», «Mustur», «Dsanga», «Txist», «Brast» eta abar.

Gure amonankua «Bits» zan.

Ni amonaren etxera juaten nitzanian, marruka asten zan «Bits». Amonak irribarrezka: Asarre «Bits»? Etxekua da, etxeko. Ezagutzen ez? Ez diozu usaiñik artzen? Tira, geldi...

Baña txakurra, buztanari eragin ta eragin, amonatxuaren gona barren ingurutik urten nai ez da. Ez eban zaunkadarik egiten. Beretzat nai arek laztankeri guztiak.

Ba eban amonak beretzako itz berezi bat: *Arraiña*. *Arraiñik* be eztozu gaur ekarri? Eztozu gaur amonarentzat *arrañik* billatuko «Bits»?

Arraiña itza entzun orduko bistuten zan, belarriak zart tente jarri; postuten zan; gorputzeko autsak-eta brast brast astindu ta bixkor etxetik urteten zan.

Ur-txakur garbi garbia zan «Bits». Asko ziran. Txalopa ba-koitzean bat gitxienez

Pozik ibilten giñan molla gañean euren dsangadak ikusten. Ibaiaren egal batetik bestera urazpian musean igaroten ekien.

Azal-azalean ogarten zituen lasun aldrak lokatuten zituen areik. A zelako gogoz uretara salto egiten ekian, musean ibilli ta aotan lasunik andienak bizi bizi buztanari eragiten ebiltzala atarata, gorputzari brastada bizkorrak eragiñaz ta urak astindu ondoren, ugazabaren aurrera arraiñan poz eta arro agertuaz.

Itxasuan gizonik onena beste ziran. Karel gañean beti zur, beti adi.

Iñoiz tretzetatik arraiñik etetan ba'zan an joango zan ur txakurra musturrez bera bere atzetik. Edo atunen bat, amua iruntsitako atunen bat bixkorregi ba ebillan apaixuari ten da ten... ur txakurra laster urbilduko zan bere ondora ta zaunkadaz estutu ta nekatu eragingo eutsan.

Ta zenbat bidar, baita, agure zaarrak bateletan portura ezin elduta agertu ondoren, txikotan muzturra aoan artuta liorreratzzen ekien, liorretik norbaitek txikota lotu ta batelari laguntasuna eskintzeko.

Amonatxo, ipuin bat esango daustazu?

-Beti-beti?

Eztakizu ala? Atzokua be eztakizu?

Gaur ez dozu nai ikusi-makusika ibilli?

Aztu egin yatzu, aztu?

Gero amesetan ibilteko?

Ez. Gaur be ames gitxi-gitxi egin dot.

Gitxi? Ba dakizu amak zer esan daben?

Ez dodala jaten?

Gaur be oetik erorita billatu zaitula beian ganian.

Eztakizu? Bale andiak bere agin artian artu ta iruntsi nindula ames egin dot.

Ara. Ez dozu ikusten?

-Baliak gaiztuak dira-ta! Baliak uretako otsuak baño gaiztuago dira, ez?

Bai zera be.

Nun jaioten dira?
Nun? Itxas zabaletan.
Eta nundik jaioten dira ba?

Txotxo, ausartuko ziñateke txalopa andietan ur andietara
juan eta balien atzetik ibilten?
Ezta, ezta.r

Amona, aitona ez zan bildurtzen ixurdekin?
Ez kontixu.
Eta baliekin?
Ez dot uste.
Naiko zenduke bera bizitea?

Nai ez?

Bein esan zendun bere ipuiña ta geiago...

Ipuiña, txotxo?

Aztu egin yatzu?

Aztu? orduz ordu ta unez une esango neuke, ez bein,
egunero baño.

-Berdeletan ebillan?

-Etxera etorran.

Lengoan esan zendun txibi naian ebillala.

Berdeletan, txibitan, txitxarrota, kabratan... batel arraiñe-
tan. Ta etxera etorran.

-Bakarrik?

-Bcra ta «Bits»

Eta?

Eztakizu ala?

-Bai, baña polit polita da ta..

Esango dautzut, baña azkenengoz, e? Ta ixil ixilik egon. la
ondo ikasten dozun.

Dan dana esan, e?

Aitona pixkat zaartu zanian...

-Zenbat urtekin 7a3rtuten da?

Batzuk ariñago ta bestiak nekezago.

Ni noiz zaartuko naiz?

Lenengo bizarrak urten biar dautzu, txo, orretan pentsateko.

Orrela ba da nik ollo zikiñik ez dot egingo.

Zer ba?

Bizarrak ez urteteko. Bizarrak urten da Millan zarra lez oker oker eginda ibilteko? Eztar..

Ai mutil, gatza be loratuko da ordurako; nasai ibilli.

Kontatea nai dozu ala ez?

Bai, bai.

Aitona pixkat zaartuta zanian..r

Ulia zurituta eukan?

Tarteka.

Orrela bibotia be zuri zuria eukiko eban segurutik.

Luze xamarra bai, baña zuri zuria ez.

Zer darabizu, baña, beti bizarrak eta bibotiak burua artuta? Ipuñik ez dautzut esango gero!

Esan, esan, amona. Asarratu egiten zara?

Ixilik edo bestela...

Aitona pixkat zaartu zanian ez zan txalopa andietan ibilten. Bere bateltxo eukan.

«Intxaur eskola»?

Bai. la egunero juaten zan itxasora «Bits» lagun ebala. Batel arraiñetan, Arrigorri aurrera. Egun orretan be orrelaxe ebillan.

Asko ekarren?

Ez jakin. Illuntzea zan. Bero. Egun larriar

Bat bateko aize zakar bat urten zan. Olatua be laster txipli-txapla-ka bateltxoak bilin-bolonka erabilliaz. Geienak agure zaartxuak ziran eta larri ebiltzan, belak ezin batuta, erramutan eteten. Kaiaren auan egozan ta ezin sartu. Alik ez, indarrrik ez, aizeak eta korrentak geiago eragiten eutselako.

Liorreko jenteak igarri eben zer jazoko zan. Txikotak-eta

eruan zituezan barra txikira, andik lagunduteko asmotan. Baña aizeak tatarrez erabillezan ta ezin lior ingurura urreratu.

Danen aurrean tira-bira egin eban Simon Txirriñaren batelak. Urreratzen etozan beste batelak ikaratu ziran. Nai ta be ezin ezer egin bere lagunaren alde. Bildurtu ziran. Gero ta larrago jo ta jo erramutan. Baña ezin aurreratu ta eten-eten egin-da salduta geratu.

Beste batel bat be aurreratu zan ordukoxe, brast, jo eban olatuak eta a be ondora. Azalean ikusi gendun gizona. Erramon Ixkira zan. Igari naian ebillan. Oraindik gordiña zanr Orduntxe ikusi neban nire gizona be, zure aitona, »Bits» txakurrari eutsi-eutsi eginda. Igarri neban etsita etorrara. Arentzat be olatuaren bat jaikiko zan kezka sartu yatan.

Otoitzak eta dídarrak nastean gebiltzan liorretik; negarrak eta sispuruak.

Bota ta bota txikotak, errian egozan txikotík geienak, egurrei lotuta, salbabidei lotuta, baña ez ziran elduten gizonak eta batelak egozan lekura. Ez zan asko falta, baña eldu ezin.

Nik ez neban begirik .galtzen neure Batis'gandik. Batelean eukan txikota «Bits» eri lotuten ikusi neban. Eztakit berak aginduko eutsan edo «Bits»ek igarri. Arrituta eta arnasa barik geratu giñan danok «Bits» Erramun'en ondora igarian urreratzen ikusi gendunean. Negarka ta txakurrari txaloka asi giñan, itotasunik kendu eziñez

«Eutsi, eutsi Erramun, lotu txikota gerrian»! didar itzal itzal bat entzun gendun. Zure aitonarena zan. Ikusi be bai! Erramun zelan edo alan txikota gorputzari lotu ta arpegiz gora etzanda geratzen.

An ebillan nire gizona ten da ten, makal-makal, baña ten da ten, gero ta estuago Erramun'en txikotari.

Ori ikusi gendunian liorretik danok «Bits»eri deiez gebiltzan, liorreko txikoten bat eruan 1 izango ebalakuan. Baña «Bits» liorrera barik bere nausiaren ondora igarian barriro. Eldu be bai. Nai eban batelera altza, salto egin, baña ordurako nire

BATIS burua makurtuta, ziaro aulduata, karel gañean okertuta egoan. Ezin emon arek laguntasunik bere «Bits»eri.

Danok igarten gendun zer igaróko zan. Bildur giñan olatu bizien bat sortuko ete zan ta bateltxoa tatarrez ondartzara jaurti. Uste gendun lez laster zan killaz gota, batela.

-Ta aitita?

-Batela killaz gora jarri ordukó lortu eban «Bits»ek bere ganera salto egitea. An ebillan atzera ta aurrera, uretara bagira, zaunka ta zaunka, zoro antzera. Erran₁un'entzat mesede izan zan, batelean bueltak artu ta txikota laburtu yakolako. Orrela batelaren karel ondora urreratzea lortu eban eta lapak aitzeari lez an geratu zan batelari eusten.

Geroxeago, emakumien negarrak errukituta, an etorren negargarritasuna igarrita, ontzi andiago bi ausartu ziran, liorrera txikotak emonda, gazte batzuk barruan zituezala urtetan eta batelaren ondora inguratzen. Erramun oraindik bizirik artu eben. Nire. BATIS, zure aitona ez eben billatu.

Etxera ekarri ninduen. Lau egun luze igaro nitun larri, neure burua itoteko eran. Gizona nai neban, neure gizona, neure Batis maitia. Ii da be bera nai neban; itota be neure onduan ikusi nai neban, lur santuan obiratu egien.

Gizonal ibilli ziran billa. Esaten eustienez, «Bits» be an ebillen, barra ondolik aldendu barik, itxasora dsangadaka. Baña alperrik.

Laugarren egunerako iñor ez ebillan zeregin orretanr Danak etsi eben. Nik etxean egon eziñik, urten neban. «Bits» neban neure lagun bakarra. Eztakit jcnteak zer esango eben. Errukigarritzat artuko ninduen seguru. Ta buru galdutzat.

Ur argia egoan. Tarterik tarte arri. bat itxasora jaurtia, «salto salto «Bits» esaten neutsan ta musada' luzeak eragin.

Orrela gebiltzala nun ikusten dot baten «Bits» urduri, buztanari eragiten, zaunkaka, urten orduko barrero uretara sartzen!

Igarri neban zerbait. Otoika nengoan. Laguntasun eske deiez asi nitzan. Etorri ziran gizonak. Makilla luziekin ondo as-

tíntzen asi ziran, txakurrak erakusten eban lekuan.

Alako baten, ar? «Bits» estu, estu, bera be noiz itoko, nire Batis'eri oraindik lotuta ekarren gerrikotik eutsita, azalera urten eziñik!

Gero...

Negarrez zagoz, txotxo?

Ia ba, negar egiteko ipuiña da-ta. Amari ez esan, e?

Ez laztana, ez...!

Jaungoikuak alaxe nai eban-ta..r Nik ez dot bestelako ipuiñik sekula ikasi.

.....

Gaixotu zan amonaxoa.

Goizero juaten nitzan bere ondora.

Izara zuri artean an egoten zan bera. Irribarrezka, baña arnas-estuka. Gero ta ximelago, igarrago, lizunago, mirrixago. Baña beti irribarrezka. Maiko tantak tarterik tarte begietatik jausten ta irribarrezka. Itotasunak noiz etengo... ta irribarrezka. Izerdi likiñetan, zuri-zuri . ta irribarrezka.

.....

Bein esan neutsan:

Amonatxo, esaidazu ipuintxo bat. Labur labur bat. Txiki txiki bat. Bat bakarrik, bat_.

-Ku... tun... txo.'. Bizitza osua ipuiña da. Gerokua da egia.

-Baña among.. among_

Jaramonik ez. Begiak gora begira. Sentzuna berekautan.

Ikusi-makusi, amon^{es} Ikusi makusi.. Igarri ezetz?

Buruakin berak, ez... ez...

Zeuk esatia gurago? esan... esan... Neuk igarri baietz_

Ze... ze...

Ori erreza da amonatxo. Beti ZE esaten daustazu. Ba dakit zer dan, ba dakit. Zerua, ez?

Irribarrezka, burua pixkat makurtu, ta begiak baietz berak Dra, ez amonatxo? Igarri dot ezta? Zerua ez da ba?

Orrelaxe gebiltzala, begiak geldi geldi urrunera begira lotu zitun ta arnasa amaitu. Ta aoan, zimel zimel egindako ezpanekin, sekula be aztu ezin dodan bere azkenengo irribarrea betiko gelditu yakon.

Bere albuán, intzirik luzeak egiten, geiago ikusiko ez neban «Bits».

Egun bi barru, gabeán, kalean bakartadeak ataraten eutsazan uluka ebillala, Erramun zaarrak aga bategaz jo, il ta uretara jaurti eban.

Orrelaxe amaitu ziran nire amonatxoa eta «Bits»

Baña nik sarri gogoratzen dot nire amona ta beragaz gogoratzen naizenian, kalera begira joaten naz ta ur txakurren utsu-neak itzalduten nau.

Amonatxo zarrekin eta ur txakurrekin gure umearoko pozak betiko joan ziran eta nire semiak eztakarre Jango mariñel kutsu erdirik.



IZARO INGURUAN

1982 urtean, «Bermeo'ko Literatura Leiaketan» santua



IZARO INGURUAN

Itxas ertza gatz lekua da

Giroan, inguruetan gizakietan, etxe barruetan eta orma zarretan, danetan billatzen da gatzaren zuritasun loa edo bustitasun ziriña.

Berezko izakera da ori.

Itxasoak bere eskutueta, bere senean eroan eta ondorenetan lagaten dakiana

Batzu tan birtute, bestetan akats. Baiña aparra eta bitsa lez, itxasoaren emaitz eta izate.

Gatz ori likin biurtzen da batzutan, bestetan lizun. Askotan ugar, beste askotan unore.

Gogoratu Mundakagaz. 1926 urtean, ango eriotzarik ugariak unoreen ondorenez etozan. Ala esan eutsen andik Eusko Ikaskuntzari, urte aretan arrantzalien .bizitza buruz egin zan batzar andirako. Unorea = Reuma, itxas gatzaren izurra, gatzaren alderdi makurra.

Gatzak janariei mesede eta aokera sartzen dauksen lez, gizakien nortasunari be badaki bere alak zerbait emoten.

Biziteko, bizi eragiteko eta bizitzatik irabazteko. Bermeo lekuko, testigu.

Sukaldari onak esku artean besti prest erabilten daben gatz lez darabille irudimenak sortu eragiten ditun egituretan eta jorkabidetan.

Zarrak, gazteak eta umeak. Danak.

Zerbait dakizulakoan kalean ezagutzen bazaitue, laster asiko dira «abogadotxue» deituten.

Moskor txikiak atrapatean, «lebatz kume» deituko dautsuen lez.

Edo ta eleizara sarri joaten danari, «aita Karmelo» edo «Paxi komentu».

Jakiña, gorputzaren edertasuna nai okertasunari, edo izatearren ziurtasun edo nabarmenkeriari, edo ta «santuak baiño santuagoei» edo «bizixo txikiei» dagokienazak alboan lagata.

Bein, bermiar arduratsu eta jakintsu batek, bermiarren izatea erri berbeta jatorren bidez erakutsi nai izan eban, eta sekulakoak esan eutsezan, orrelako gauzak Bermeo'ko istori ixil eta eskutukoa zirala-ta; paperetarako istoria barik berbetako eta etxe barrutarako eta familiko pekatu satorrak eta zatarrak ziralata.

Orrela, «Atalaya histórica de la muy noble y muy leal Villa de Bermeo» lana eta liburua, zeruan sartuko zalakuan, ezta lez atsegin jausiko zalakoan kaleratu eban Cirilo Zabala eta Allika bermiar istori-zale jatorrak. Baiña «atxikaute» geratu zan, liburu orretan bermiotarren ezizen edo izen ordekoen zerrenda luze bat agertzen ebalako. Ia bi milla inguru. Zeatz esanda, 1.842. Ia odolezko abizenak baiño geiago. Nunbaiten agertzen da beintzat bizkai itxas errietan, ondamendi andiak gertatu ziranetan, ainbeste alargun bakarrik eta erria bizi barik geratu ez egian, erbestetik ekarten zituela gizonak.

Gizon onei ezeutsela abizenik be eskatzen.

Indarra eta laguntza bakarrik.

Karidadeko gizonak lez.

Eta lengo umeak eta familiak eta ondasunak, betiko deiturkaz jarraitu egien, Bermeo'k bere jatortasunik galdu ez egian, alakoren batek bere arrimoan frutu barririk ekarten ba eban, lengo ez izena emoten eutsela frutu barriari be, eta geienetan ez izena batena barik famili osoarena zan lez, abizenagaz (apellidua-gaz) be len lez jarraitzen ebela paperetan, bai eleizan eta bai ka-

lean eurentzat orrek garrantzi gitxiago eukela ta.

Ori, orrela jokatzeko ori, itxasoaren sartaldiei, bermiarren zetzaz erantzutea eizan. Bermiarren izakeriaren erantzuna.

Eta itxas-ondamendiak aidean erabilliarren alargun eta umezurtz lagata geratuaren, bizitzako legea zala ta eroapenez artzen eben. Eta egun batzutan negar muxingetan ibili ondoren, zela-ala euren ondasunak, euren «hacienda», euren txalupa lenengotik barriztuten eben eta ondatu ba zan ordekoen bat, nunbaitetik ekarri, eta ume-mokoak be, oraindik eskolan ez ekien mutilak be, sekula eskolarik zapaldu ez ebenak sarri, praka luzeak jantzi baiño lenago bialtzen zituen itxasora. Eta «txo» biurtzen ziran, sekula izenik ez ebelako erakusten errolerako be andik eta praka luzeak jantzi eta karel gaiñetik molla burura, iñok erakutsi barik, berez, olatuak bitsa ataraten daben lez, neskatillei esaten eutsezan itxas-lorekin koloreak gorritzen igarri arte. Orretarako, gizonduteko, bizarra ariñago urteteko, leortararak ezpan ganetan eta okotzean ollo-kaka erabilten eben lez, igurtzi eta igurtzi, itxastarrak tollaren azal lakarraz urratuten ei eben arpegiko narrua, orrela meetuta ariñago urtengo eutselakoan.

Bermiotarren ez-izenen zerrenda Braillon frantzetar irakasle batek irakurri ebanean, goi-goietan ipini eban.

Zerranda au, izen mordo au, erriaren bat-bateko poesi jatorraren asmakisunen altxorra, tesoroa zala esan eban arek. Esan eta idatzi. Baiña bermiarrak inpernuko atetara zigortu eben. Eta nai ta batzaille berberak «Pilatos»en etxearen kerizpean ikasitako labankeri eta zurikeriz, bere firmea «Aikafenekue» lez ipini, bera be tarteko zala esanez, barrabastzat artu eben, batez be, begizkoa egiteko lako «motie» eukenak.

Eta Bermeo'n Izaro deiturarik, dez izenik, ez eutsen iñori ipiñi.

Zegaitik?

Lotsa ala bildur?

Laiño eta misterio da Izaro.

Mundakarrak eta Bermiarrak alkarri zirika ibilten ziran.

Batarena zala, bestearena zala.

Mundakarrak esaten eben, Izaro Bermeo'rena izan balitz, bere erri nortasuna emon eutsen paperetan agertuko zala, nundik norañokoa dan esaten dan lez, beste mugak agertzen diran lez.

Bardin erantzuten eutsen bermiarrak mundakarrei.

Eta azken baten, estropada egin ei eben.

Ala egin ba eben edo ez, batzuk ipuintzat ipinten dabe, esanez:

Ori ala ba zan
sartu dedilla kalabazan
eta urten daiala
Kanala'ko baixan.

Baiña batzuk ipuin eta beste askok egitzat. Bakoitzak jakin zegaitik. Guk batzuk aiña sinistuteko fede ba daukagu. Eta ala zalakotzat artu.

Goitarrak, «probintzianuak» esaten dakie, Bizkaiko erri baten, barruko arra gili-gilika sentiduten ebenian, estropadetan pentsaten ebela, eta

Bandera jartzen dute
eskila (kanpai) torrean.
inbenzible dirala
kosta Kantabrian.

Baiña estropaden gar ori ez da ain zuzen beti arrokerizko garra izaten, nai ta tartetan ala gertatu.

Gure itxastar askoren artean, jaubetasuna trukatzeko era be izaten da.

Erri batzutan tresna guztiak esku-aldatzen zituen estropada bitarte. Bestetan etxetako oeak be galdu. Arrokeria baiño itsukeria geiago.

Estropada izan da itxastarrak euren arteko gora-berak erabagiteko euki izan daben aitzakia eta bitartekoa.

Batzutan botillerdi ardauagaitik, gau guztia kaian igarota egonarren, nekeari begiratu barik, kalatik portura estropada bi-

zian. Bestetan arraina saltzera ariñago eldutearren. Edo ta erriko neskatillen aurrean zereko zera erakustearren. Iñoiz kaleko asarreen ondoren be izaten zan, itxasoan amorrua bizitu, eta alkar zemaitzea.

Nikolas Ormaetxea, «Orixe» lez ezagunago zan idazle azkarrak, bere «Euskaldunak» poema egitean esaten ekiana:

Bat edo bati asi zaio
diru poltsaren azkura... -

Alaz eta Bermeo eta Mundaka'k ez euken euren artean diru egarririk. Arrantzalea itxasoak emoten dabenez laster baretzen da; itxaso bera ekaitz ondoren baiño lenago. Eroapentsu da orretan.

Arrantzaleak ba daki itxasoaren aurka ezin leikela berbarik egin. Sekula ez da entzun arrantzale batek itxaso zemaitu dabetik be. Lotsa dautsa mariñelak itxasoari.

Eta bestera, itxasoan estu ebillan arrantzalea legorreratu eta berari begira, aurrean euki eban mendiari kañubetia sartu bai.

Gogoratu lekeitiar arrantzale zarraren egitada: Otoio mendiari gerri-gerrian kañubeta sartu eta deika: Otoio, ba daukok odolik?

Zegaitik?

Itxasoan tira-bira eginda noiz-itoko ibilliarren, ur-gaiñean igarian indarrak be nóiz galdu eta noiz ondatuko, Otoio beti lez geldi eta ardurabarik ikusten ebalako.

Sarri joaten ziran mundakarrak eta bermiarrak, alkarren leian, zein lenagoka, Altari'ko arrira, edo ta Artxikotera, edo ta Kukutx Arrira, edo Potoarri'ra. Olakoetan beti eukiten eben Izaro'n egozan fraile makurren errukia. Iñoiz arrizko mendi zatar a, aitz gordin eta narru lakardun a norena ete zan kezka be bai.

Ba ekien an ez egoala ezelako bizirik, fraileak kenduta eta itxas-kaivak, kala txoriak kenduta.

Erri bien artean, laiñoizko txapela jantzita sarri, mamu edo fantasma andi lez, begien aurretik kendu ezinda, an egoan beti

Izaro.

Kanpaia entzuten eben sarri euren itxasoratzetan, kanpai salataria, erramuketa neketsutan, edo belaeen aizezko laguntsaz, Tribiskala nai Kalabarrira bere egaletatik igarokeran.

Eta kanpaia beste askotan, egualdiaren aldaketa igarri eta ainbat ariñen etxeko bandan asteko agintzen.

An gure fraile kaskamotzak, esaten eben batzuk. Guk baiño obeto ezagutzen dabe orreik itxasoa. Guazen etxera.

An gure fraile gosekillak, besteak. Gose ta guzti be gizontzat borondatea dauke orreik. Ez gaitezen itsu. Tretzak batu ta guazen etxera.

Eta orrelaxe, asaben asabakandik etorkien berezko esakere-tan, kanpaien esan-naia igarri ta min egiten eutsen.

«Gure» ori jaubetasun baten salatari zan. Eta jaubetasun ori bakoitzaren nortasunaren zirikalari.

Eta zarrak diñoie, Mundaka eta Bermio, nai ta alkarri zelataka jaio, sekula ez zirala ibili alkarregaz odola-jario. Origaitik, baketan konpondu zirala estropada baten bitartez bein betirako jaubetasunaren ondrea jokatzea pentsatu eben arte.

Zortzi egun artu zituen gertuteko, alkarren arteko demari itxura emoteko, orduko kala potiñetan gizonak indartzen.

Lengo zarren estropadak txalopen arteko zein geiagoak izaten ziran, txalupa barruko arrantzaliek, iñor bereiztu barik edo aukeratu barik. Baiña Izaro'ko estropada au egiteko zortzi egun artu zituen, erri bakoitzak mutillik indartsu eta jatorrenak aukeratu, alkartu eta erri biak bakoitzarentzat euken jaubetasuna bein da betiko erabagita lagateko.

Eta Madalena egunean jokatu ebela estropada. Ala gogorazten díra zarren esakeretatik oraingoak.

1719 urtean, Garilla'ren 22'an.

Udako bero galda zala. Sargorea.

Lapitz autsa lakoa igarten zala Izaro'ren inguruan.

Erri bietan jai.

Madalene pekataria antxiñatik maite izan dabe arrantzaleak.

Baserritarrak lez, eta Euskalerra osoak. Norbere pekatu eta argal-kerien damu-kidetzat billatzen ete eben andre miragarri ori?

Kendu zituen txalupetatik sasoi aretan erabilten zituen aga, panel, maste eta tresnak.

Txalupa bakoitzean errarrivak eta estrapuak besterik ez zituen sartu. Toletak barriztu be bai.

Nai eta txalupa astunak izan, alegiñak egin zituen euretatik kendu al zana kentzen.

Amairu gizon bakoitzean eta patroia, atzekua. Atzeko au ez orain lez erramuagaz, lemakaniari eusten baiño, orduan oituten zan lez

Estropada estua izan ei zan.

Erri biak egon ei ziran, ingururik egokienetatik begira, nai eta zeatz igarri ezin.

Batzuei erramua apurtu, besteei toleten bat grak, bai eta estrapuak be tart. Alaz eta leorretik be igarri ei eben Bermeo'kr txalupakoak izan zirala, irabazle lez, euren erramuak lenen i.so zituenak.

Esanak esan, ainbesteko estropadak itxasoan egiñarren, askotan ezelako gertaera barik, eta eguneko neke eta ittotasunaren ondoren be bai, bai bidez eta bai gizonez, oraingo onetan biak be sekulako larrien eldu ei ziran.

Eta ordurarte baketan eta danen maitasunean bizi ziran Izaro'ko fraileak, ez ei eben estropadarik ikusi nai izan. Eurak artu ei eben galtzailleak baiño min geiago, premiñarik barik, erri bien artean gorroto eta betezkoa sartzea baiño lortuko ez ebalakoan estropada onek.

Eleizan sartu ei ziran, eta baru egiten astea erabagi.

Ordurarte Bermeo'k emoten eutsen urterako uruna. Ez zitun orrek ezetara lotzen.

Bermeo'ko itxastarren eskerra zan, fraileak gabetarako argia zaintzen ebelako; eurentzako, batez be kaletara joaten ziranentzako milla mesedetan.

Gaiñera fraileak ez al eben pentsaten Izaro ez zala iñona,

Jainkoak fraileentzat egiña baiño?

Itxasoan billatutako txanel baten antzera, jaube bakotzat euken.

Andik egun batzutara, illa bete baiño len, urte bereko Dagonilla'ren amázazpigarren egunean, ango fraileak txalupa zabal baten urten ei eben andik. Ez eben nai izan ez Mundaka'ra ez Bermeo'ra joan.

Minduta egozan. Euren gain munduko jaube bat agertzeaz minduta.

Ez eben naí izan eskubideari eusten jarraitzerik.

Asarre ixilla agertu eben.

Baiña gatzaren ikutua lez, betirako zerbait laga nai izan eben.

Egunak geroago jakin ei zan, jakin be, 'ainbat urtetan an bizi ziran fraileak, ixil-ixilik, euren jantzi bakar eta banakak batu, eta itxas barea egoala eta baliatuta, ontzi zatar, zapal eta zabal baten, salmoak errezaten, Gernika'ko ibaian gora joan zirala, gora eta gora, eta Foru'ko ortutzetan ondoa jota geratu zirala, eta antxe.bertan aterpea billatzen asi.

Foru'ko andre alargun esku-zabal eta borondate oneko bik eskiñi ei eutsen euren etxe bat, an gelditu nai ba eben eurentzat emoteko aitzakirik ez eukela-ta, eta fraileak eskintza ori ontzat artu eta arrezkeroztik eurak eta euren ondorengoak antxe bizi dira.

Frantziska eta Angela ei ziran alargun bi areik.

Fraileak euren Aita Frantzisko eta Aingeru irudiak ikusi ei zituen eurentzat. Bermiarrak, alargun arein egitada jakin ebe-nean, Bermeo eta Mundaka ipini ei eutsen ez-izentzat, orretan be itxas gatza agertuz.

Eta fraileak Izaro'n urte askotako eta askotarako laiño eta misterioa laga eben.

Amaseigarren mendean, mende ori amaitzen egoala, frantzetarrek urreratu ziran Matzaku ingurutara. Emen ibili eta Izaro ikusteko garra sartu. Eta an fraileak ikusi zituenean, eskutuko

ondasunen batzuk eukezalakoan, lapurretan egin nairik asi ei ziran. Eta fraileei ezer kendu eziñez ikustean, asarretuta, zatarkeri eta nabarmenkeririk itzalenak egin ei zituen angoekaz.

Fraileak, mirariak egiten zitun kanpaia ei euken. Eta egun orretatik eten бага kanpaia, iñok tenik egin barik, joten asi ei zan.

Lamiñarango lamiñak, eleizako sinisteei euren akelarretan burla egiñarren, batzarra egin ei eben, eta egitada laidogarri a jakin ebenean, ainbat ariñen ayertutea, bengatzea erabagi ei eben. Orretarako aizeagaz berba egin, aizetan egan ibili, itxas ertzeko inguru eta bitarte guztiak aztertu, eta itxas zabala bitsekin batean nastauta igaro...

Andik egunetara tatarrez eroan ei eben prantzetarren ontzia Izaro aurrera eta fraileen begi aurrean onduratu eragin, iñok laguntzarik emon al ez izateko tokian.

Fraileak, besterik egin eziñean, parkamenak zabaldu eta bialtzen ei eutsezan, isopotik ur bedeinkatu tantak jaurtiz.

Ba dira diñoenak fraileak baiño lenago sorgin eta lamiñak bizi zirala Izaro'n, eta uraren azpitik zear eukela Lamiñaran'era-ko bidea noz-nai eta arrisku barik ibiltzeko.

Fraileak an bizi zirala be ba ekiala arako ostera egiten, batez be tintoletak, kaelak eta beste itxas arrain ibiltari bizkorrak inguru uretan agertzen ziranean, eurekaz artu-emon asko eukiten zituelako, oraindik arrantzaliak ikasi ez eben berbetan.

Eta jentillak ezik jazo ez leikean arri andi bategaz estalduta, sarratuta laga ebela bidearen sarrera.

Arri andi a zelan egoan igarri nairik ibili zirala fraileak. Jasoten asi be bai, danen artean, antxiñakoak lagatako altxorren bat aurkituko ebelakoan, edo ta jentillen bizi-lekuen bat izango zalakoan. Danen artean tarte txiki bat .zabaltzea lortu ebenean, zulotik igarri eben aize tengadak iruntsi bearrean geratu zirala.

Geroago, konjuruak esan eta barriro ausartu ziranean, frailerik zarrena eroan eutsela, besteak konturatu orduko, tximista baten abiadan. Eta betiko bildurtu zirala. Origaitik idatzita laga

ebela baleen narruagaz eginda eukezan barrurako liburu lako orri andi zatarretan gertaera ori. Eta arriari kurutze andi bat marratu eutsela, baleen gantz eta odola nastauta lortuten eben mar-go illun kendu-eziñiko bategaz.

Beste bein fraileak Adan eta Eba'ren zirikaldia lakoa euki ebela. Madalenapeko plantxa azpian neskarrain bat ikusi ebela.

Eta pekaturako bide zan arrain edo izaki lizun a ingurutatik uxatzearren, ille beteko baru luzea egin ebela, ogi eta ur utsez. Baiña gabetan neska-arrainaren inkesa eta uluak igarten zituela eta fraileak koroan batu eta aizea eta olatuen bitsetan ebillala uste eben demoniñuaren agerbide aren zitzaldiak aldentzeko, zarataka ekiten eutsela otoitzean, goseak arrakalauta eta burua galtzeko eran. Eta konjuroak be egin zituela, Izaro'ren lau alde-tara, zemaizko otoitzak luzatzen.

Azken baten bale bat urreratu ei zan inguru áretara, bertako plantxara sartu naian, eta olatu bizi baten laguntzaz lortu be egin ebala bere naia. Eta antxe betiko lo geratu.


Fraileak bale orren bizar eta miñagaz baliatzeko, aitz zorrrotzeko aizkora andiekaz zulatu, zatitu eta zabaldu ebenean, antxe billatu ei eben oraindik ondo zeetu barik, neskarrainan ondorena.

Fraileak gatzez bete ei eben, baiña pekatu izango zalakoan, ez ei eutsen eleizan illebirik emon.

Arrezkero Bermeo'ko patroï gazterik ez ei zan sekula itxa-soetan galdu, len lez neskarrainaren atzetik erdi zoratuta bere jarraian ebillalar

Eta erriko abadientzako baiño pekatu geiago eukelakoan, Izaro'ra urtean bein konposatera joaten ziran pasku-izurdei, *neskarrainaren* illobia erakusten ei eutsen ango fraileak, aitz tarteko aterpe baten gordeta eukela, eta ango gatz koskor bat emon, neska gosea asetzeko gatza baiño obeagorik ez egoala-ta.

Baiña bermiarrak, lengoak eta oraingoak, andra ederren maitasuna bizirik zaindu eta erabili nai ei dabe, sentimenturik gazitu barik, gatza bizitzako beste gauza askotan erabilita.



1 118^

Ala jazoten zan edo guzurra zan...
agurak Torronteruen eztabaidan.

Bermeo'ko kantu zarra da
Torronteruen torrea dago
arri labraduz zerkatua,
portutxikian Santa Klara
iturria eta gaztelua

Eta bera aiña zar bearreko zan beste au:
Itxas barruen islea dago
arri garratzez osotua,
betidanik da gure Izaro
misterio, gurma ta laiñua.



Antxiñako Ipuin bat...

Izaro'ko fraile batek kutun bat euki ei eban Bermion.



Fraile maite-mindu ori, besteak lotaratu ondoren, igarian joaten ei zan gabero, Bernio'ra.

Itxasoan eta inguruan illun egonarren, zuzen elduten ei zan, bere kutunak kandela argía ipinten eutsalako leioan, gidaritzat.

Baiña bein diabrua sartu ei zan bitartean.

Kutunaren krisailu argia amatau, eta askoz urrunagoko auzo baten argia biztu.

Eta frailea, indarrak galduta, ezin elduta, ito egin ei zan.



«LAPAX» ETA «MUXARRA»



«LAPAX» ETA «MUXARR.A»

Bizkai'ko erri baten, erdi ganorabako, edo fede oneko, edo oso-osoko gizonari «lantzoia» esaten dautse.

Jakiña, lantzoia arrain izena da. Toki batzutan botakarra. Frantzeraz orphie, gaztelaniaz aguja, saltón.

Eurei ez eutsen izenak ardurarik emoten. Lantzoiak zirala esanarren, ba ekien erdi irrika esaten eutsela. Baiña 'euren artean: gu lantzoiak, baina «mamun-mamun klausk» egiten dogu ta or konpon.

Eurak, erri deituraz, «Lapax» eta «Muxarra» ziran.

Paperetan bata Gaudenzio zan, bere andreak esaten eban, barregurea emoten eutsala izen orrek. Ezkontzeko paperak egi-tean jakin ebala bere kutuna orrela deitzen zala, bestela ez zala ezkonduko. Besteak, neskei begiratzeko sekula ganorarik euki ez eban lez, ez eban ezkontzako paperik eginbearrik euki eta ez ekian ziur Teofilo zan ala Deogracias. Umetan Dio deituten eutsen ta orregaz obeto ebillan. Ama alarguna eukalako, solda-±itzara joatetik azke geratu zan, eta sekula ez eban pentsatu iñoiz paperik egin beariko ebanik be. Origaitik ez jakinda ziurrago ebillan.

«Lapax» eta «Muxarra» alkarregaz ibiltzen ziran. Euren denporetan arrantzaleak ez euken gaur aiña aukera eta negu luze eta gosetiak igaroten zítuen. Gaur aiña poztasun, era, aukera eta bizibideko erreztasun barik

Orain, gauza asko errosiarren, orduan sarri joan bear izaten eben mendira, itxasoterik ez egoanetan, txaloparako urkula, tre-

bol, atabaka, kaixa eta abarrak egiteko egurrak begiz jo, aukeratu eta ebagiten.

Bein, urkulak egiten joan ziran. Arrantzako tretza eta aparixuak ipinten ziran urkuletan, eskegita, sokak eta amuak nastatu barik erabili al izateko. Urkulak adar mez egiten ziran, alkarri alderdi baten batuta eta bestean zati banatan zabaltzen diran adar me baiña sendoekaz.

Orretan ebiltzala, baserri baten inguruan, ollasko bi ikusi zituen, alkarri pikoka, auskan. Iño!, oraintxe aukera gure gose pixkat kentzeko, esan eutsan bata besteari. Biak be aukera ori egoki billatu eben. O11askoak zela-ala atxilotu, ta gero eskutuan il, eta lumatu, eta tabernara eroan zituen, erregalatu eutsezala-ta.

Ziri ori ez eutsen sartu tabernariari, baiña arek, ixilik egonda lagunik ez dala galtzen eta gertu eutsezan. Bai atzaparrak mixkateko eran jan be.

Pasku aldia etorri zanean, an ebiltzan etxeoak autortzara joan bear ebelaka.

Ez gogo onez, baiña etxeo bakeagaitik joan ziran.

Sartu zan «Lapax». estu ta keixu, autorlekuan. Ez jakin abadeari zer esaten eutsan, baiña «Muxarra» alboko aulkian kezkatu egoan. Lantzoi alu orrek oraintxe be gauz onik ez dau egingo, esaten eban bere bostean, zain egoan bitartean.

Igarten jakon «Lapax»eri estu ebillala. Autorlekuko olak be kirri-karraka entzuten ziran, arek erabillan egon eziñagaz Luma ta guzti agertu eutsazan abadeari gertaerak. Abadeak ordaindu egin bear zirala, baten orde z bi zirala... «Lapax»'ek ez eutsan ordaintzerik agintzen, eurak be ba dakiela arraiña doan emoten eta orrelako aitzakiak ipiniz.

Urten ebanean, ixillean esan eutsan «Muxarra»ri: Parkatu be ez Abade zar orrek ez dau gaurko mundurik ezagutzen.

Andik geroago emakume bat sartu zan. Arek, betiko gauzak autortzen, luze ekin eutsan, gizonak gogaitu ta kirriotsu ipinteko aiña. Alako baten amaitu ta sartu zan «Muxarra»:

-Abe Maria. Betikua jauna.

Betikua zer?

Zer? Ba odol beruak, begi argiak, ezpan labanak, zirri ari-
ñak. Ba daki. Sasoiko gauzak.

Baiña ezkonduak edo ezkongaiak bitartean egon ez da
bardin.

Niretzako arrada bardiña. Jauna, beorreri erregalu bat egi-
ten dautsenean, sekula itanduten dau ezkondu ala ezkongai ba-
tena dan?

Kontuz. Ez naz ni autortzen nagona. Besterik?

-Jauna, egia esateko, sarri gogoratzen dot gauza bat. Bein
urkula billa joan giñan mendira. Urkulak egin al izateko arbolei
adartxoak kentzea ez da pekatu, ez? Eta baserri baten onduan la-
gun bi ikusi genduzan auskan, sekulako burrukan. Arei ezin lei-
ke baketan laga, esan gendun lagunak eta biok, odoluztuko dira-
ta. Joan giñan, kostatu jakun, baina aldebanatu genduzan. On-
onian geugaz artu, ta alkarri esan be bai: Oneik azke laga ezkeru
barriru burrukan ibiliko dira, ta obe geugaz eroan. Alaxe egin
eta gero...

Gero zer?

Mutututa laga genduzan biak, berbarik be ez egiteko eran.
Laurok batu giñan maian, alkarren aurrez aurre, apari antzeko
eder bat egin gendun eta baketan amaitu jaia.

Orregaz beste zure pekatuak parkatzeko merituak lortu
dozuz. la beste baten be ardura ori artzen dozun.

Eta abadea, ingurukoak be entzuteko eran asi zan: Nik par-
katuten dautsudaz_.

Ori entzun eta arrituta gelditu zan «Lapax». «Muxarra»
urreratu orduko esan eutsan: Zurelako gizonik ez dago. 011as-
koak zeuk ordainduko dozuzala agindu dautsazu ala?

«Muxarra»k: Ez dogu beti esaten guk lantzoi entzutea eu-
kiarren, mamun-mamun klausu egiten dogula?

Paskoak igaro ta uda eldu zan.

Udazkenean oiturazko izaten eben arrantzaleak urrengo
urtetarako artotzetan arto buruen apalak, banan banan batzea.

Azal onei malutak deitzen eutsen.

Baserritarrak asarretu egiten ziran, baiña, orduan nai ta ez-kotzat erabilten eben atuntsui sasoiaren artoaren maluta, atun arrantzarako, orriak amu lodietan sartuta ipini eta ontziaren abiadaz uretan erabilteko, atunei jatekoren bat dala itxuratu eragin eta euren atzean joan eta jatera erakarteko.

Arpegi latz batzuk, berba zoli batzuk erabilten zituen baserritarrekin, baiña konpontzen ziran.

Malutak ez ziran batu eta bereala itxasora eroaten. Sikatu eta zaindu egin bear izaten ziran, baiña ortaz ontzi jaubeak arduratzen ziran.

Mariñelak, arrantzaleak, geien bat ontzirako batzera joaten ziran, orduak igaroaz, eta gero maluta txorten ordeztan ontzi jaubeak emoten eutsen arduararako eskupekoaren truke.

Baiña udazkenean intxaurrak elduten dira, eta sagarrak eta ikuak. Baserri inguruak zer batu eta zer janez bete egiten dira. Indi-babak be orduntxe batzen dira eta artotzetan, ain zuzen.

Eta sagarra ba zan lenengo pekatura ten egiten ebana, zegaitik ez geroagoetara?

Baserritarrak tartetan zelatari ikusiarren, patxadaz artzen eben arrantzaleak euren egiñena, eta berezko emaitzak zirala-koan, eskubideak artu.

Eta bein...

Nai aiña iku jan ondoren, «Muxarra», ikopean galtzak erantzi eta berak bakarrik egin eikean zeregintxo egiten egoala, tarte batetik, eurak konturatu barik, mendizaiña ebillan euren zelatari, eta tiroa jaurti eutsan «Lapax» eri, eta tiroak «Muxarra» jo. Onen aienak eta arrantzak entzutekoak ziran, prakaen ardura barik,, saltoka ebillala.

Baserriko jaunak be arin-aringa urten eta an ebillan zer gertatu ete zan. «Muxarra» konturatu zan a beintzat ez zala izan tiroa jaurti eutsana. Etxeko andra gaztea, lotsatuta, leio artetik zelateka geratu zan. Eta beste iñor ez zan bizi etxe aretan.

Bestalde, txakurra an ebillan «Lapax» en atzetik zaunka eta

errexuma bizian, prakak be txatalka urratuten eutsazala.

Zer gertatu zan?

Ba mendian ze galdu egoten zan artean, erriak mendizaiña erabilten eban. Mendi-zain orreri eskopeta emoten eutsen, baiña gatzez betetako kartutxoekin, mendietan lapurretan oartzen zituenak zauritu barik, gatzaren erretasunez zirikatuta iges eragiteko asmotan. Beti be al zan miñik gitxien emoteko eran. Eta mendizaiña ba ekian lez bere tabernako lagun ziran biak inguru aretan ebiltzala, «Lapax» oartu eban kolkoa indiarrez beteten, eta berari zuzen jaurti barik, egalera jaurti eban tiroa, ain zuzen «Muxarra» nun eta zetan egon eikean gogoratu barik. Eta onen mamin bigunetara eldu, ain zuzen be, gatzezko brastada a

Mendizaiña, ori egin eutsena bera zala besteak ez konturatzearren, inguru aretako muna baten ostetik berealako baten errira joan zan, eta beti egoten ziran tabernara be bai, lagun artean kontu batzuk esan eta besteak zer esango itxaroten.

Agertu ez ziranean, eurak etorri eikezan bidetik mendiratzan asi zanz

An billatu zitun gure gizonak, bastertxo baten, illundu arte urreratu nai ez da, bata prakak apurtuta eta bestea galduta, .aurrean saku zar andi bat ipinitar

Arein zerbait asmatu bearra!

Eguzkitza baserri-etxe ondoan, lapurren batzuk ebiltzala, burrukaldi gogorra euki ebela itsu-itsuan, baserriko jaunak be ikusi zituela Ez ekiela ziur, ikusteko betarik be emon ez eutselako. Ez ekiela zeatz esateko, deabru antzekoen batzuk ba ziran be, ain bildurgarri agertu jakoezalako...

Mendizaiña barre gin, eurei ori gertatu bearraz, eta ez eutsen bererik agertzen.

Barrean ezin eutsita egoan, batez be «Muxarra»ren egoera ikusita. Eta «Lapax» gerri ingurua indiarrez beteta ikusten ebanean, bere burua garbi lagatearren, iñok ez daiala jakin ikusi zaituedanik eurei esan eta aurrera joan zan, bere bostean errian areik ze asmatuko eben ezin irudituta

Eta iruditu eben.

Biaramonean errian bolo-bolo ebillan «Lapax» eta «Muxarra» diabru baltz andi eta zatar baten antzekoak, malutatan ebiltzala arto-artean urten eta estu erabili zituela.

Biabru ori, artz baten antzera, uletsu zala eta gizon irudituarren, «Muxarra»ri bere prakak kendu eutsazala, ibilteko be lotsagarri laga ondoren. An eukazala mokorrak erpekadaz beteta eta gorri-gorri eginda. Eta beste artz-kume lakoa erabillala beragaz eta «Lapax»eri bardin egin naian ibili zala, baiña onek, nai ta zearo urratu eta gauza ezda ekarri, soiñean ekarri zitula bereak.

Oraindik geiago esan eben: Aitearen'ik egiten ez asteko egindu eutsela, orretan asi ezkerro begiak jango eutsezala-ta.

Ori esan eta errua mendizaiñak euki egiela, esaten eben, erritik aloger ona jasoarren, illuntzeraiño mendira joaten ez ziralako.

Eta erriko abadeak be, amarrenak eta baserritarren opariak artuarren, ez zirala joaten orrelakoetan konjuroak otoiztutera.

Errian bolo-bolo zabaldu zan eurei gertatutakoa, eta kale batetik bestera zabaltzean, geroago ta zatar, baltz eta misterioz beteago agertzen eben lez, ume koitaduak errukarri geratu ziran eta lotara be joan nai-ezka.

Abadeak, jakin ebanean, laster esan eban, berak, autortzetan, esaten eutsena eta eutsen lez sinistuteko agindua eukala, nai ta askotan sinistu ez, baiña deabrurik ez ebillala iñun praka zar billa, eta konjuro orde, bere eskuetan egon ezkerro, asunekin blastiatzeko aginduko ebala ori esaten ebiltzan biak, euren burutapen guzurtiekin ume guztiak aidean erabillezalako.

Alkateak mendi-zaiñak esanda jakin eban zer gertatu zan, eta «Muxarra»ren prakak nun egozan be berak egin zitun buzkantzen alboan. Eta pregoiak joarren, oraindik gertaeraren kate-rik eteten ez zalako, baserritarragaz tratua eginda, eskoletako umeak batu ta nai eben aiña sagar jateko baimenagaz eroan zitun arratdaldea igarotera Eguzkitza'ra.

Eta «Muxarra»ren prakak billatu zituen ikupean, eta ez ar-

tzik eta ez deabruen adarrik ez eben aurkitu.

Andik aurrera umeen artetik diabru uletsuaren irudia gal-
tzen joan zan, eta berrero azi zan illuntzetan Mari Beigañeko'ren
geriza umeak lotarako igarri barik menderatzen.


Eta andik aurrera, «Lapax» eta «Muxarra»ri deitura barria
ipini eutsen: «Guzurretako arauak».





«DORRONDU»

1984 urtean, «BERMEO» leiaketan, saritua



«BERMEO - 1984»

DORRONDU

Bizkai'ko auzo bat da Mañua.

Bermeo eta Mungi bitartean, batzuntzat.

Sollube'ren saietzean, bestentzat.

Itxas gaiñean. Itxasoari iges nai eta eziñean.

Ortuariak itxas-aizeen eta lurrunen yodoa artzen daben tokietan dagoz bertako soloak.

Baserri txikiak. Bakanak. Eta ez erraz erabiltekoak.

Gizon langilleák, biargiñak. Mutillak merkantetara urteten dabe, edo ta atunetara, ur andietara.

Neskak be apain, dotore, alai, irritsu, eder eta ondo egiñak an. Bermiotar mariñelentzat, baba loreak.

Eleiza txikia: Karmengo Adra Mari. Kanposantu baketsu ta ixi Ila.

Gaur, beste tokietan lez, eukaliptus eta piñua nausi ingurutant.

Gaurko au ipuiña da.

Egizko gizon eta andre, benetako bizitzadunen ipuiña.

Izena gitxienda da.

Baserriari ezaupide bat emotearren, Dorrondu deituko dautsagu.

Bertan bizi diran atso-agurei, Katalin eta Perur Gaztiei

Txomin eta Kontze.

Ba dago mutiltxo bat be, egunero Bermeo'ko frailletara joaten dana. Gorkar Espan gaiñea ule bigun baltzez illuntzen asia. 011o kakaz igortzi ei eban bein, bizarrak ariñegi urteteko. Eta gero damutu. Bera zarrena. Beste sei erreskadan, amar, zortzi, eta sei urtedunak, biña-biñaka ekarriak, edo eurak esaten eben lez, Jainkoak bialduak.

Peru zarra erromeri zalea zan bere denporetan. Mendietara nai itxasertzera joaten ekiana. Gaztelugatxe ta Bizkargi zitun begikoenak. Danetan ezagutzen eben. Katalin, barriz, etxeko zan Bermeo'n, danen ezagun, plazan.

Bezero onak eukazan, esku zabalak. Pobriak baiño aberatsagorik ez ti dago egon be ta sarri bialtzen eben etxera arrainez beteta Mañua'tik araiño joate-ordez errukia artuta, eta etxeko umiak arrain-tatoz indartu eiazan, gero itxastar sendo izateko.

Jakin be ba ekien Bermio'n lúrra baiño itxasoa mutil zalea-goala dala.

Dorrondu, etxe eta inguruak, jaubea euken.

An egozanak errenteruak ziran, gizaldi bitan be odol berekuak.

Eta piñu gorriña sartu zan an be.

Egun batendr..

Entzun bertako zarrak berbetan.

K.– Gaur, Peru, mingarri da benetan, baiña irurogei ta amarretik gorako urteen gomuta eta oroitza guztiak laga bear doguz.

P.– Egun osuan gauza berbeari ekiten gabiltz. Mesedez, ez dago beste zer esanik?

K.– Besterik zer? Sekula ainbestekorik jausi al da gure buaruaren gain?

P.– Benetan, ez.

K.– Zer besterik aitatu giñei gaur?

P.– Ezin ba da, mesedez, ixilikr

K.– Ixilik lotuarren *legea* bete bear.

P.– Nungo legea, Katalin?

K.– Ba dakizu. Gogoratu gaur amaitzen dala etxea lagateko epea Ain zuzen be gaur. Txómin eta Kontze ez dira agiri. Ikusi dozuz?

P.– Ortik dabiltz.

K.– Gureztat baiño arentzat gordiñago da gaurko bate bear au. Eta txikientzat.

P.– Nundik dabiltz eurak?

K.– Bi Bermio'n, Kose Komentu'n etxian.

P.– Len be an umez beteta ez dira bizi ba?

K.– Geuk ez dogu ikusi lau asten diran tokian sei be bardin asten dirala? Talaixeruek artuko dautsez beste bi. Eta Kresentanian beste koskonduak.

Pr.– Olakorik ez, Katalin. Olakorik ez. Geu ume barik bizi-ko al gara ba? Malkoak urreratzen asi yakozan Peru'ri. Kontze'k be ez ekian zer esan. Alako baten ugazabaren mandataria etorra-la ikusi eban eta bere senarrari esan:

K.– Ba dator Anton. Zur izan zaite.

P.– Berbetako adorea be kendu egin bear al dausku?

K.– Ba dakizu zegaitik diñodan. Ixil!

Izerditan agertzen da Anton.

Lengo denporetan lagun andi ziran. Orain lotsakor eta lotsagaldu dator. Arpegia emoteko bildur, itxura baten. Baiña be-rea egiteko, ugazabari ederkatura egiteko, aren esan-mezan guz-tiak beteteko, bat bateko eta lotsabako.

Zorrotz dator. Mintsu lez. Illuntze edo arratsalde onik be emon barik.

A.– Txomin?

K.– Ortik dabil.

A.– Eta Kontze?

K.– Ortík a be.

P.– Eta ni emen nabil. Ni emen nago. Ni, areik baiño lenago ezagutu ninduzun Peru, emen nago.

A.– Ikusi zaitut.

P.– Ez al naz iñor?

A.– Zetarako jakin bear.

P.– Edozetarako.

K.– Zer dakartzu?

A.– Dakizuena.

K.– Etxearen gorabera? Urteko epea eldu dala esatera? Ba dakigu.

A.– Baiña nik Txomin'engandik jakin bear dot ori. Bera-gandik entzun bear dot baietz ori.

P.– Ba dakigu.

A.– Ez da bardin zuk jakin eta arek jakin.

P.– Nai nebalako, ni neuk nai nebalako, beregana luzatu neban etxearen ardura bere inguru osuagaz.

A.– Etxea ez da errenta.

P.– Gure izerdien errenta.

A.– Izerdiena eta mesediena.

P.– Ori zetatik begiratu. Ikusteko dago.

A.– Ondo ikusita dago ori. Nik dakidana da aurrean ikusten dogun etxe au, orain irureun urte inguru egin zala. Ta egin zanetik gure gurasuen gurasoak zaindu zituela, errenta orde, etxe, solo, zelai, baso ta mendiak.

A.– Ta zer?

P.– Orain eun urte mendiak lendu eutsezan, mendi batzuk, pagoak ebagi ta saltzeko. Etxeak, bertan bizi zanak, bertan lan egiten ebenak, ezaban ezelako probetxurik artu. Mendiak kendu eta errenta geitu bai.

A.– Denporetako tratua.

P.– Orain berrogei urte, basoak kendu, piñuak sartzeko. Ori errenta jasotea ez ba litz lez, ni beartu ninduen zaintzera, e-

txea lengo errentan jarraitzekotan. Beraz errentarik geitu ez, baiña lana bai, eta norbere probetxuko lurra be kendu.

A.– Solo ta zelaiak geiago emon dabe azken urtetan.

P.– Ez neban besterik bear soloetako frutuak eta zelaietako bedarra kéntzea baiño. Eta errenta gora.

A.– Denporen legea. Baserriak be ekarri dauz seguruak. Ez keixatu.

P.– Ekarri dauz, nire lepora. Eta kontribuziñoiak. Orreik be nire gain.

A.– Ez negarrik egin.

K.– GURE lepoan egon da irerun urteko etxe zarra tente zaintzea be, zutik zaintzea, bertan bera etxe guztia galduko ez ba zan.

A.– Ori ikusi bear.

K.– Mundu guztiak ikusi leikena ikusteko katalejuri ez da bear.

A.– Dana dala, ba dakizu ni mandataria baiño ez naizala.

P.– Garbi esanda, txakurra.

A.– Mesedez

P.– Txakur azpijantzaillea.

K.– Ez zaite berotu, Peru.

P.– Esan bear dana esatea, ez da berotzea.

A.– Akerrak beti dira bero.

P.– Zer? Esan barrero, zer?

A.– Zertzeta. Len esana: Nun dago Txomin?

K.– Or nunbaiten.

A.– Etxean?

Beste barik Anton etxe atadira joan eta sartzeko asmotan igarten da. Peruk ezin ori iruntzi, eta bizi-bizi jarten da An-

ton'en aurrean, esanei

P.– Ainka azurrik ez sartu etxean, aurrez baimena eskatu eta artu bitartean. Peru'ren asarrea eta tentetasuna ikusita, Anton, albotik zear joaten da.

K.– Orrek ez dauka errurik.

P.– Ez asko esan. Inguruetan ez dago beralako satorrik. Ziur dakit ori.

Bermio'n, kalia, ez zan ondo jausi Dorrondu era orretan uztu bearra. Plazatik jakin eben andrak eta bereala zabaldu zan erri guztian.

Dorrondu'ko familia ondo ikusia zan. Eta **danak** jakin eben maltzurkeriz, engañuz **atara** zituela etxetik.

Udaletxe aurrian batu ziran batzuk, Ordurako jakinda egozan umiak zein etxetan artzen zituen eta umien errukiak zotin eragin eutsen askori. Laster zabaldu zan baserria eta ingurua Mungia'n bizi ziran jauntxoena zala. **Alkatiak**, juzgaduko auzia zala ta berak ezin eikeala ezer egin esan eutsen an batutakoei eta garratz artu eben emakumeak lepoajasote ori.

Gorka'k, eskolatik urteten igarri eban zerbait eta etxera joan zan urduri. Aitita-amumak billatu orduko asi zan:

G.– Aitita, ba dakizu errian zer esan daben?

P.– Zer?

G.– Nai ta ez gaur ustu bear dala Dorrondu.

P.– Bai txotxo. Ez al zekian?

G.– Baina nai ta ez?

K.– Alaxe da, maite.

P.– Irureun urte etxe onetan guretarrak.

K.– Esan nai da gure odolekuak. Gutarrak, bai

P.– Ez nago ni berbetan?

K.- Zu zeu be kirikixua lez laster jarten zara ezpiak tente.

P.- 011anda mentsua izan zara, ba, zeure bizitzan!

K.- Or beori, gangorrik bako oillarra!

G.- Aitita, irureun urte, ezta?

P.- Bai, txiki, irureun urte etxe onetan gutarrak egon ondoren, zure aitak auzia galdu dabelako.

G.- Aitak dauka errua?

P.- Kontuz. Nik ez dot ori esan. Zure aitak lez nik, nik-lez nire aita zanak, eta gaur zure aitak lez, biar zeuk eukiko zendun.

G.- Zegaitik galdu dogu?

P.- Ara txotxo. Euskalerrian, len, gizon artean, ez egoan paperik. Berbak eta kittu. Ugazabak lez errenteruak. Goikoak lez bekuak. Berbako izatea zan traturik ziurrena.

G.- Eta?

P.- Ba gizaldietan gizaldietako berba emote ori, ez ei da legezko. Edozetara eta edozelan be baserria kendu nai euskula ugazabak.

G.- Zetarako?

P.- Jakiña, piñu sartzeko.

K.- Ta gu ukatu egin giñan.

G.- Neuk be orixe egingo neban.

P.. Bai baiña...

G.- Esan, esan aitita.

P.- Ba etxean gendula sekula pentsatu ez gendun pekatua.

G.- Ze pekatu?

P.- Orain urte batzuk, gaurko ugazabaren aitaren berbazko baimenez, orma batzuk jaso genduzan etxe barruan, tokia egokitzeke asmotan. Guk etxerako mesedean egin, nai ta guretzako be ala komeni. Eta orain, etxetik kanpora jaurtiteko beste biderik, billa ibiliarren, aurkitu ez dabenian, orma orreik egiteko baimenaren papera eskatu. Zelan egingo gendun orretarako papera, irureun urtetan bestelako artu-emonen ezelako paperik be

egin ez ba gendun, ez guk eta ez gure aurretikoak?

G.– Origaitik izango da erriko asarrea.

P.– Leikena da. Guk beintzat ez daukagu baserritik urtete-ko lotsarik. Bizimodu garratza da baserrikoa, baiña mundua zabal da, txotxo, eta itxaso be bai. Lenago be Dorrundu'ko odola ba dabil itxas-zabaletan.

Anton, etxe jaubearen mandatariak, billatu zitun Txomin eta Kontze, etxe ostean, lagaten ebenari azken ikusaldia egiten.

Ez eben luze egoterik izan.

Areik, etsita egozan lez, ez eben trapu zarrrik atara nai izan. Zer esaten eban entzun eta... nausiari, ugazabari eskerrak emeteko, sornaz beteta agindu eutsan Txomin'ek.

Anton ez zan ausartu lengo bidetik biurtzen, nai eta txanda baten adiskide andi izan.

Beste bide batetik joan zan kotxea eukan tokira, andik iges egiteko.

Txomin eta Kontze itzal agertu ziran gurasoen ondora.

P.– Satorra ikusi dozue?

Tx.– Bai, gaur arimena jo orduko, onez urteten ez'ba dogu, indarrez urten bearko dogula.

K.– Dana da gaur indarra! Zorioneko indarra!

P.– Zer erantzun dautsazue?

Tx.– Nagusiari gorantziak emeteko, irureun urtetako etxe-kotasuna indarrez eskartu nai daualako. Eta jakin daijala, eta etxearen aurrean zin egiten dautsadala, nik beti euki dodala baserriari eusteko gogoia, baserria goratzeko borondatea. Eta nire mesedean ez dautsadala etxeari ezer kendu. Eta gaurko giroa ikusita, umeak kozkondu orduko, menditik kalera joateko ametsak eginda nabillela, aita-zarrei bakea eta umei bizibide ikasi eta onuratsuago bat eskintzeko asmotan.

P.– Eta zu?

Tx.– Mañua'n jaio ta bizi izan danak, ez dauksa itxasoari bil-
durrik, aita, ondo dakizun lez!

Illuntzean, abemaritako kanpaia igarri eben.

Bereala Kontze'k Txomin'eri: Ez zara gogoratzen, Txomin,
zenbat bidar alkarregaz erdi-asarre egonarren be, kanpai oneik
entzutean, batzutan biok, bestetan laurok, eta geroago umeak
lagunduta, bakeari otoia egiten gendun?

Tx.– Bai. Kontze. Irureun urtetan bakezko nai ori entzun
izan dauskuen arlanduok, geiago ez dabe entzungo emendik
gure eskari ori.

Esan egizu gaur, zeuk, aita, zueretatik ikasi eta guri erakutsi
euskuzun lez.

Eta aitak, zutik jarri ta malakoak begiak lausotuten igarten
jakozala, esan eban:

Gure aurretikoak bakea euki daiela zeruetan, emen euki
eben lez, eta guk be emen euki daigula, eurak zeruetan lez

Eta Txomin'ek berbak etenda, geitu eban: Emen edo Jain-
koak nai daben lekuan.

Arimen kanpai arte beste ía ordu bete geratzen zan, baiña
geroago ta negar geiago egingo ebela-ta, auzokoei be agur esa-
teko adore barik, azken tresnak batzen asi zirar

Udabarria izanarren, ia gaba egiten azia zan mendi bideta-
tik zear Bermio ingurura eldu ziranean.

Zar biak, senar-emazte gazteak eta Gorkar Beste sei umeak
goizean goiz batu eutsezan, len esan dogun eran.

-Ba euken nora joan, bezeru batek bilbotarrentzat udan
emoten eban etxea agindu eutselako, eurena erosi artean, eta
errenta barik.

Etxeko tresnak Mañua'ko abadeak laga eutsen aterpe baten
gorde zituen, euren aukera egokitu arte. Beiak eta abelkiak, in-
gurutako baserrietan erosi eutsezan.

Utsik eioazan, iñok ikusi edo igarri barik Bermio'n sartze-ko asmotan.

Mendi bidetik urten eta kalea baiño lentxuago, emakume aldra bat billatu eben. Tanboliña euken eurekin batean eta ezpatantzariak. Esan eutsenez, Bermio'k sartzen dana lotsa barik sa tu bear da, eta bertarako ziran lez, jator ikusi nai zituen. Eta alaxe, eurak Jaunkoagaitik bakea eta ixiltasuna eskatuarren, bermiar andra eta dantzariak gora Dorrondu'ko eroan zituen kalez-kale.

Astean bertan Txomin'ek itxasora joan nai ebalabazabaldurduko, ba eukazan iru-lau eskintza txaluparik ederrenetan.

Seme-alabak laster alkartu zituen eta urte batzutara txikien biak ezik besteak mutillak ziran lez, laster erosi eben etxerako txalopa be arrantzarako.

Baiña aita, gizon mardul eta gordiña egonarren, gau baten, itxasoan zirri-zarra andia egoan baten, txalopara salto egitéan, mollatik batelerako bitartea ondo neurtu ez, eta laprast egin eta uretara jausi zan eta portu barruan itto. Igari egiten jakin ba leu be, gau aretan mirari izango zan bizirik jasotea

Esaera da ez dagola familirik itxasoari opari ori eskiñi barik bertan ibili leikenik, eta Dorrondukoak be eskintza ori bete bearra euki eben. Orrela mariñel nortasuna irabazi eben.

Egunetara billatu ebenean, semeak Mañua'ko kanposantua baiño bake obeagorik inun ez dala billatzen eta bertara eroan eben, andik itxas aizeak artuarren, itxas orrurik entzuten ez dala-ta.

Eta eurak, edozein bermiar lez, itxasorik sakon eta zabaletaraiño joaten dira, gizaldien gizaldietatik bermiarrak itxas andietarako dauken eskubidez.

ITXAS LAPURRAK

1982'ko «Bilbo Udala» Ipuin Sariketan, aipamena



ITXAS LAPURRAK

Aitona, ipuin bat esango?

Zelako?

Gero Tele dago-ta sei minututik amarrera bitarteko.

Ai ene! Gatza kendu bear orretarako.

Zegaitik?

Ipuña berezkoa bear dalako.

Zelan berezko?

Kredoa lez, sortua, ez egiña.

-Jope! Asi zara filosofiakin.

Ez! Ipuin bakoitzak bere taketa bear dau.

Taketa zer da?

Izatea, gurpilla. Zelan erakarten daben jakiñezarren, ala egiten daben zereko zera.

-Nik gazduna nai dot. Umorez betea.

Azpaldi nabil unorez beteta.

Unorea ez. Ori gaixoa ez da ba? Joan zakidaz unore ta erreumakin. Jo! Umorea nai dot.

Baltza ala zuria?

Zerukoa edo...

-Dagonerako asiko gara zeruagaz pentsaten?

-Ez txotxo. Ba dakit orrelakorik nai ez dozuna.

Zelan dakizu?

Espanak be ulexkaz baltzitzen asi jatzuz-eta!

Igarten?

Sudurreko kandelen espelmak ez ba dira beintzat... 0110 kakarik ez zendun egingo biboteak urteteko, ez?

Txarra da ala?

Egin dozu, orretara?

Danak egiten dabe-ta

-Orretara ipuiña be baltza naiko dozu?

Baltz baltza be... ipuin baltzik geratzen da ala?

Zegaitik ez?

Bilbo'ko alkate batek ez zitun erre ba?

Bai zera! Ez dozu igarten Bilbo lako erri andi baten sua egiteko ez dagola ipuin bearrik?

Edozeiñena ba da be asi esaten.

Zeiñena? Fernando Amezketarrerena?

Ori berori bertsolaria ez zan ba? Gaiñera beti kontu zarrekín?

-Zuk ez dakizu gatz zarra lodiagoa izaten dala, egin ariña baiño?

Dana dala... ipuin txiki bat esateko orrenbeste kopla? Onezkero amaitu neban.

Zegaitik zeu asi ez?

Bizkai'ko erri txiki baten zan.

Gosea egoan. Urtetako gosea

Oraindik Gaztela alderako bideak egin barik egozan.

Itxasoak zigortuta ikusten zan erria.

Itxasoa eukanarren, ez ebillen bere inguruan arrain andirik, ez bestelako itxas abere lodi ta aberatsik. Eta orrelakorik ibili ezik, gantzik be ez zan billatzen janariak erretoko.

Arrantzaten zituen arrainak egosita jaten zituen. Eta bakoitzaren solo txikietan lortzen zituen ortuariak be, egosita.

011o banakak egozan, eta eurak be ez eukenzan famili askotan. Eta eukezanak be, eurei emoteko alerik lortzen ez eben lez, arrautzarik be ez eben batzen.

Gaztaña zan lortuten zan urungai bakarra. Eta sasoi aretan gaztañadi asko egonarren, urte bustiak gertatu ziran eta gaztain asko gorriña lakoak jota galdu egiten ziran.

Origaitik erria jota egoan. Edozein gaixok errez menderatzeko eran.

Umeak zituenak jatordu urduri eta garratzak igaroten zituen, euren negarrak ezin baretuta.

Zarrak jan da jateko, edaten eben txakoliñaren espiritu garratzkiagaz gosearen itzaltasuna ezin kenduta.

Sua egiten zan, basoak aritz eta pagoz aberatsak ziralako, eta ostoporik egoten ez zalako adar igarrak batu ta etxetako zerbitzurako ekarteko.

Argirik be ez egoan errian. Ota batzuk erreten zituen kalekantoi batzutan gabaren itzala eteteko. Egia esan, Abemaritako kanpaia entzun orduko kalekoak etxetan batzen ziran eta Arimen kanpaitik Albakora bitartean, gaixoen batentzako laguntza eskera urten ezik, iñor ez zan kaletan zear ibiltera ausartuten, kaleetan uste bako traba asko egoten zalako, eta arratoiak be gaba eurentzako artzen ebelako.

Orrela gabaren itzalean aizea sorgin zan eta ate bakoitzaren biurririk txikiena lapur.

Ainbat lagun ezagutu ziran burutik egiten, auleriak jota.

Albo errietara bialdu ziran gizonak, janari kontuetan konponketak egin nairik, baiña esku uts biurtzen ziran, auzo errietan be, urungairik ezean, egoera larrietan egozalako.

Origaitik erriko gazteak erbestera iges egiten asi ziran. Erbesteko itxasontzietan arrantzale lez sartu, an beintzat, lanaren trukean, bear aiña janari eukiko eben ziurtasunez.

Baiña andra eta umeak etxean lagata joan ziranak, edo gu-

raso zarrak euren arduetan eukezanak etxekoen ardurak erkitu, kezkarazi eta artegatzen zituen.

Etxekoen deiak larriak ziran.

Izurrite errien arteko joan-etorri eta artu-emonak eten ziran, gaixoa ia bat-batean zabaldu zalako famili askoren artean.

Patxi kapitanaren etxean txikien biak il ziran egun baten.

Etxekoak emakume bat bialdu eben Donibane'ra, Patxi egoan tokira, barri ori emotera.

Oi izaten zan lez, izurririk *ez* zabaltzearren, ingurutako erriak neurri zeatzak artuta eukezan. Zaindaria ipinita eukezan erriaren sarrera guztietan. Ez eben lagaten bidetan zear iñor ibiltzen. Origaitik ibiltaria atzera bialdu edo ta toki berezietan sartzten zituen, kutsutu barik eioazala ziurtatu artean. Origaitik egunetan be ez eben bialduaren barririk euki eta gero ta artega eta kezkatiago egozan.

Miñez egozan etxeetan.

Lengoa auzo erri baten geratuta eukela jakin zanean, gizon bat bialtzea erabagi eben, bide nausietatik barik bestelako bide-tatik ibili eikenaren bat. Ingúruko baserritar bat, ain zuzen errira esnea eroaten ia egunero joaten zan bat gertu zan orretarako.

Ba eukan buru-arin entzuten Iru egun gitxiene² bearko zitula joaten eta beste ainbeste etorten, pentsatu eben er itarrak. Mutillak zer pentsatu eban ez jakin. Andik zortzi egunera biurtu zan, mendi-bidetan galduta ibili ondoren. Noraiño eldu zanik be éz ekien. Itxuraz, buru galdutzat artu eta etxe askotan jaten emon ondoren, biderik errezena bialtzen eben, baiña berak, nunbaiten geratuko eben bildurrez, bide orreik laga eta basoeta-koak artzen zitun eta galdu.

Ori ikusi ondoren, erriko agintaria txalupa baten itxasoz lagun bi bilatzea erabagi eben, erriaren kontura

Urten eta egun erdira, iñora eltzeko denbora baiño len. aize zakar bat sortu zan. Ondagarritzat etsi eben erriarrak. Itxaropen guztia galdu eben. Eleizan batu eta sekulako arrenak egin zituen, len estu ta estuago lagako zitun gertaera aregaitik.

Txalopakoak, len be ekaitzari oituta, eta eutsi al izan eutsen nekez, baiña Ondarrabi'n sartzea lortu eben, zearo indargetuta, curen osterea geiago luzatzeko adore eta kemen barik.

Ango arrantzaleak ezagun zituen. Agertu eutsen zegaitik an sartu ziran. Eta inguru guztiko izurritea zala-ta bada-ezpadan porturik urrun egoan etxe bakarti baten gelditzeko esan ba eutsen be, curen asmoa eta zegaitia kontuan eukita, laguntasun pixkat emotera gertu ziran.

Ekaitzean apurtu jakoen erramuaren orde, al ebenean ordaintzekotan beste barri bat eskini eutsen. Bela zar bat laga be bai, edozein premiñetarako, txalopan eroanaren geigarritzat, urrengo baten biurtzekotan.

Ondarrabitarren artean gaixo kutsadura bildurrez nasterik ez sortzearren, erri barrura ez joateko agindu eutsen, bear zituen janariak eurak eroango eutsezala aginduz.

Alaxe egin eta nai ebenean, iñori begira egon barik, itxasoratzeke baimena emon eutsen.

Orrela, biaramonean, egun sentiagaz batera, argitu baiño len, Ondarrabi'tik urten eta ordu batzutara Donibane aurrera eldu ziran.

Ango sarrera zabalean *ez eben* iñungo txalopa andirik ikusi, eta curen ustez Patxi eta lagunak txalopa andienetan ibiliko ziran, bestela gaitz izango eben bizimodua ataratea.

Barrura joan baiño len, Sokoa'n geratu ziran, andik txalopen ibillera obeto ikusi eta azterrenak ziurrago atarako zituen ustetan.

Laster jakin eben curen erritarrak ebiltzan ango txaloparik andienak, alkarregaz ibilten zirala eta zortzi bat egun egiten zituela itxasoan. Eta egun bat edo bi geiago bear zituela, ezer gertatu ezik, euren arrantzutan, etxeratu baiño len.

Eta itxarotea erabagi *eben*.

Andik egun bira txalopak itxas urrunean agertu-ala, euren senide eta aideak molla inguruan batzen asi ziran, oi zan lez, arrantzuak jakin eta gizonei arrera egiten.

An etozanak laster asi ziran barrutik legorrékoei agurka eta ongi etorriak egiten.

Alako baten, ixiluna baten, Diopil! deadarra entzun zan. Angoak ez ekien nor zan be, baiña izena entzun ordukoxe, txalopa aretan etozan «beko euskaldunak». molla edo nasara begira geratu ziran, eta erritik bialdutako biak ikusi zituenean, artegatu ziran. Ain zuzen lenengo sartu zan txalupan iru ebiltzan, eta eurentzako ez croen ezer, baiña sekulako besarkadak emon eutsezan alkarri, txalopa lotu ebenean.

Berba ugari egin eta erriko kontuak esan zituen.

Bigarrena agertu ordukoxe, eta bestearen estiborrean lotu, lenengoan ebillan Diopil ara joaten igarri eben. Patxi'gaz egoten be ikusi eben. Eta bereala tosta gaiñean burua makurtu eta negarrez oartu eben au.

Txalopatik. urten eta erriko albistari biekaz egon gura izan eban. Oneik garbi agertu eutsen erriko gorabera.

Izurritea uste baiño bigunagoa gertatu zala, eta batez be ume txikien arteko gaixoa izan zala, jakin erazi eben. Errian amar il ziran, bost egunen barruan, eta ain zuzen euren artean Patxi'ren seme txiki bi ziran. Ori bein-beingo gertaera izan ba zan be, erriko egoera, gosea bitarte, gero ta makal eta negartia-go zala adierazi eben.

Patxi'k bereala itandu eutsen errira noiz biurtzeko asmoa ete euken. Eurak erantzun janarien batzuk bear zituela biderako, eta diru barik egozala. Eta eskean edo al eben moduan, areik lortu eta bereala urtengo ebela, ba ekielako erritarrak euren zain egongo zirala.

Biaramonerarte an egoteko eskatu eutsen Patxi'k. Euren jatekoa bere gain joango zala, bera arduratuko zalako ortaz. Baiña aurrez ebillan txalopako arraiña atara, kontuak egin eta mare-bakoitzak arrantzaliei ekarten dautsezan lanak egin bear zituela.

Lagun ontzat euken Patxi bere ontziko donibanetarrak. Ba ekien gizon ikasia zala, eskoletan be ibilia zala, eta an erbesteko

guztien antzera, legeak alaxe agintzen ebalako, arrantzale soil ibili bear ba zan be, bere erakutsiak ondo etorri jakoezan danei. Biargiña zalako eta gizon artean lagun jatorra zalako, danen lagun zan eta danak maite eben.

Eta Patxi'k, agertu eutsenean etxean zer gertatu zan eta bere errira biurtzeko asmoa eukala, danak miñez, baiña bidez-kotzat ezagutu eben bere erabagia.

Eukazan dirutxoak janari batzuk erosten eralgi zitun. Eta batelak artu eta jaso-ala urungai sartu eben.

Lengo biak eta irugarrentzat bera, kalma zuritan asi ziran etxerako bidean. Lenengotik bela txikia zabaldu eta era-erako zan aize bigunaren laguntzaz, uste baiño errezago egin eben etxerako osterea, kosta-errez, euren indarrak ondo neurtuta.

Itxasotik begirik galdu barik ebiltzan erritarrak Getari'ko San Anton igaro orduko igarri eben bateltxo baten irudia, eta eurena izango zalakoan, kezkatu egozan, eta urreratu-ala barra ondoan batzen asi ziran, ze barri eroango.

Patxi ikusi ebenan, aren semetxuekaz gogoratuta, danak ixil-ixilik, biozkor agurtu eben, lepokada samurrak emonaz.

Eta Patxi'k erriko alkatea ikusi ordukoxe esan eutsan Donibane'n lortu zitun urungai batzuk eroiazala eta erriari eskin-tzen eutsazala, premiñarik geien euken erriko umetxoen artean banantzeko, erriaren kontura, erriak bere guraria onartuten ba eban.

Eta alaxe egin eben.

Patxi kapitana zan.

Itxas kapitana.

Berezko doai eta berezko ikasiz.

Merkataritzan ibilia zan.

Azken urtean bere ontzia galdu egin eban.

Ontzia galtzea, mariñelen berbetan, txalopa ondora joatea

da. Eta ori bakoitzaren erruz izan lei, bai eta ekaitzen ondorenez, edo ta ontzi berberaren akatsez.

Ala, barrako sarreran, olatuen zirri-zarrako edo atze-aurreko indarrak eraginda eta eroanda, aitz ertz bat jo ordukoxe, zulatu, desegin eta ondora joan zan betiko.

Ez egoan barririk egiteko aukerarik.

Origaitik egoan etxean.

Gosea asmotxa dalako, milla pentsamentu erabillazan. Eta Donibane'tik ibili zan artean, bere burua geiago aizetu eta berotu zan.

Ikusi eban Donibane'ra sarri sartzen zirala gariz betetako itxasontziak. Baiña bere errira ezin, erregeak euren artean euketzan asarreakaitik, eta galerazota eukelako merkataritza zabalean ibiltea.

Urtero egiten ziran alkate aukeratzeak erri txikietanr

Ordurarte, iñoiz alkate izaten agindu ba eutsen be, ez eban sekula orrelako ardurarik artu nai izan.

Berea itxasoa zala esaten eban, eta ez uria.

Alaz eta urte orretan, berak billatu eban, nai izan eban, alkate izentatzea. Eta lagun batzuei esan orduko, euren botoa eskiñi eutsen.

Oi zan lez Urtebarri egunez alkate autu eben.

Biaramonean erriari deitu eutsan, eta batzarrean, ixilekoa izanarren, erri guztiaren mesedeko jokaeren bat artzeko konfiantza eskatu eban.

Amabi gizon eskatu zitun, gazteak edo mardulak, zarrik ez, berak agintzen ebana egitera ziñez (juramentuz) beartuko ziranak.

Arriskuz beteriko egitada egitera eioan.

Ondo urten ezkeru, danentzako mesede, Oker gertatzelotan... erriak be bere laguntza emon bearko eban.

Erritar askok igarri eben zetara eioan.

Batzuk atzera egin eben, odolik eta lapurretarik ez ebela

nai-ta Obe zela gosez il da, iñor il baiño-ta

Patxi'k kobardetzat atara zitun batzarretik orrela pentsatu-
ten ebenak, erri kobardeak berez ilten zirala-ta

Berak ez eukan iñor ilteko asmorik. Ez eukan lapurretan
egiteko pentsamenturik be. Ez eukan iñor ondatuteko gogorik.
Baiña erriaren biziak eskatuten eban, aulduta iltearen orde, ale-
giñak eginda bizitzea

Alkatea zanez, erriaren ona billatzera eskiñi zan.

Erriko txaloparik andiena bere zerbitsuan lagateko agindu
eban, nai ta ortarako jaubeak ezetza emon. Onez ezba zan inda-
rrez.

Erria ondatuko ebala; gizonak erbesteko kartzeletan laster
ikusiko zituela; txalopa barik lagako ebala portua... orrelakoak
esaten asi ziran.

Berak alkate diktadore batek baiño agindu zorrotz eta ika-
ragarriagoak zabaldu zitun errian.

Zoroa zala esaten asi ziran batzuk; batez be umeak il joko-
zenetik ezegaitik ardurarik ez eutsala; gaiztoa zala Damutu be
egin jakoen batzueri alkatetzarako botoa emona.

Bera gero ta ertsiago eta setatsuago egoan berean.

Alaxe, alkate aukeratu eta bostgarren egunerako, egun ar-
giz urten zan erritik, arrantzara eioalakuan, batzuen errukiz eta
besteen betozkoz, «Kaixarra» ontzia.

Barratik urten orduko belak eskegi zituen, aurreko nausia
eta latiñekoa Eta indarrrik galdu barik ikusi izan zan txalopea
Getari'ko san Anton aurrera elduten.

Iger muturraren egalera eldu baiño len illuna jausten asia
zan, eta andik zabaldu egin zan kanpo aldera, amar milla inguru-
tara, gaba an illunean igaro eta urrengo egunean itxasertzeko
begiraleak (talaxeruak) billatuko ez eben urandietan ibilteko.

Egunbi igari zituen, ezer ikusi barik.

Irugarrenean Patxi'k ontzi lako bat igarri eban urrunean.
Konturatu zan Donibanera'ko bidean etorralla. Berak ez eban

tokirik aldatu.

Eztabaidak euki zituN mutillen artean, txalopa andiegia zala ta alakorik menderatzerik ezin pentsatu eikeela-ta.

Patxi'k Aulestia'ko Bengoetxeatarren ikurdiko esaera gogoratuten eutsen: «Bekoak goikoa benzi leidi asmuz eta jakitez».

Lenago be ikusia eukan Patxi'k ontzi a Donibane'n. Ba ekian Bretaña aldekoa zala eta geienetan gari karrivan ibilten zala.

Aurrera, geurea da-tal esan eutsen mutillei pozez. Baiña beragana urreratu ordez, pixkat aldentzeko agindu eban, zalantzarik ez sortzearren.

Ba ekian txalopa a illunagaz batera Donibane'ko kai aurrera elduko zala eta an lotuko zala, egun barriak argitu arte. Eta kamaña azpian lotan geratuko zirala barrukoak, kapitana eta beste mutil bat goian zaindari lez geratuta.

Bitarte orregaz baliatu bear zan. Ez egoan beste aukerarik. Eta danak zur jokatu bearko eben.

Uste ala gertatu zan eta alaxe, argi barik, belaeen aize indarrez bakarrik, Patxi be Donibane aurrera urreratzen asi zan.

Merkantzontzia nun lotuta egoan igarri eben, berak eukan argi bakarretik. Gero ta urrerago ikusten eben argia eta ontziaren itzala.

Kontuz ibili bear ziran, ontziak alkar jo barik, eta iñor itxartu barik.

Orrela, ontziaren egalera urreratzea lortu ebenean, danak bat-batera gertu, lotuta eukezan aingura txikiak jaurti zituen merkantal-ontzira, eta euren esker, bat-bateko indarrez, txalopak alkartu, gizonak batetik bestera salto egiteko.

Kapitan eta zaindaria euren lo-konkorretik esnatu eta deardarka asi ziran, baiña bela nausiaren agatik salto egin eben bik, eta eurak uste baiño len eta indarkeri andi barik menderatu zituen.

Barruan erioezan mariñelen tanbutxoak be goitik sarratu eutsezan, urtetea galerazoz. Kapitanaren emaztea be antxe eto-

rran lotan, egal baten, gizonen artean.

Kapitana Patxi'ren txalopara aldatu eben. Kosta egiten jakoe itxastar kapitanei euren ontzia lagatea eta onetantxe euki eben indarkeririk biziena Mutillak ez eban eragozpenik ipini.

Merkatal-ontziak eukan kañoi txikiaren estopak ure tara jaurti zituen, eta kapitanak lema ondoan eukan trabukoa Patxi'ren taldeko batek artu.

Denporarik galdu barik, atoian lez ipini eben menderatu eben ontzia. «Katherine» eukan izentzat. Indar biziz, gauagaz baliatzearren, itxas zabalera atara eban.

Itxas zabalean geldi egon barik, Matzaku (Matxixako) aldera errezago artzeko bideak egin zituen, donibanetarren batzuk konturatu edo ta ango merkatariak igarrita, billa urten eta baitu ez egiezan.

Alaxe, illunagaz batera, Matzaku aurrera urreratu ziran eta gabaren luzea naiko izan eben Ondardi'ra eldu ta ango ondararte baten lotzeko.

Erri guztia batu zan, eguna egin orduko.

Asarre bizia erakusten eban bretoi kapitanak. Igesik egin ez egian lema eta erramuak kendu eutsezan «Katherine»ri.

Sekulako asarrea erakusten eban bretoi kapitanak. Alperrik angoen baretu naiak.

Lenengotik esan eutsen erriak gosea eukala, eta gosea kentzeko egin ebela egitada ori, eta ez berak ekarrenz ordaindu barik baliatzeko. Saldu orduko baimenduko ebela urtetera. Eta itxasoan indarkeri askorik egon ez zan lez, erriko ostatuan eukiko zituela, ontzia ustu, ekarrena saldu, eta ordaindu al izanarte.

Baiña egia, egi zeatza au zan: errian ez egoala dirurik ekarri eban aiña gari ordaintzeko. Eta auzo errietan be ez ebela emon nai, lendik be zor ugari lagata egozalako, Jainkoaren izenean.

Diru ordez burdinkiak jaube egitea pentsatu eben, orrela, garia saldu-ala dirua batu eta burdiña ori ordaintzekotan, ontziari bere errirako urteera burdiñaz beteta emonaz.

Burdin jaubeak be ez eban borondate onik agertu, nai ta

erriko abadeak be euren amarrenak ipini, erriak ordaintzerik lortzen ez ba eban, ordekotzat.

Alaxe, iru aste luzetan euki eben erbesteko txalopa Ondardi'n, eta bertakoen borondate zintzo eta kezkatia ikusita, bretoi kapitanaren asarreak baretu ziran, eta askoren lagun egin ziran errian.

Azkenean, euneko amarren bat falta zala konturatu zanean, bere aldetik erriko ospitalarentzat lagaten ebala zati a jakin eraso eban.

Alkartasuneko jai andi bat egin eben errian ontziak urten bear eban besperan, eta Ondardi'n eukezan oroigarri batzuk eskiñi eutsezan bretañakoei.

Erri guztia batu zan ondartzan eta bere ingurutan, merkatal-ontzia burdiñaz bete eta itxasoratu zan goizean.

Andik amar urtetara, Ondardi'ren aurrean erbesteko ontzi andi bat ikusi eben.

Laster konturatu ziran angoak «Katherine» merkatal-ontzia zala.

Ekaitz gogorra zan.

Ondardi'ko sarrera, ekaitz egunetan, ingurutakorik txarre-na zan, ondar asko eta ur gitxi batzen zalako bere bidean.

Erria konturatu zan txalopa a estu etorralla, eta txarto ibiliko zala. Eukezan soka eta txikotekaz urreratu ziran erriko gizonik bulartsuenak al eben bestean.

Txalopak tita-bira egingo ebalakoan, kanpora urtenda egozan neskaxo bi, eurei eusten beste gizon bi eukezala. Eta an eten zan olatu andi baten brastadak itxasora jaurti zitun.

Gixonak eta neskak laurak itto ziran ondarditarren begi negartien aurrean.

Kapitana bera txalopako aga bateri lotuta ikusi zan, ezer lortu eziñik, zoro antzera didarrez.

Lenengotan ao txarrekuak esan eben, txalopa a Ondardi'ra lenagokoa aiertuten (bengatuten) etorriko zala.

Baiña ziur jakin zan esker oneko oster bat egitera etorrala, txalupa erdi gariz beteta eta ainbat britaniako ardau ekarrezala.

Al izan eban bezin laster Patxi'k salto egin eban eta «Katherine» ontzia zuzenduten lagundu.



Patxi'k eta ango kapitana besarkatu ziran, estutasunez eta ittoteko eran, eta biak negarrez luzaro ekin eutsen.

Itxas gizonak ba ekien iñoiz gogoz aurkako egitadak egiten, errien biziak salbatearren; bai eta dana aztuta, eta askotan zegaitiak kontuan eukita, itxasoen zabaltasuna aiñako maitetasuna alkarri ezagutzea.

Patxi eta Jean kapitanak, Erregeak alkarri opa ez eutsen adiskidetasuna agertu eben, errege ez bardiñen menpeko biziaren.

Urrengo egunean, Ondardi'ko eleizan lau lagunak illeta egiten egozala, ango tellatuan itxas kañuak, urandietatik etorrira, alkarri bake eskintza egiten iñardu eben, eleiztarrak bake oparia egiten eben artean.

Itxasoak anaitasunaren ura eta gatza sartzen dituala esan be egiten da.






*Itxas egaletako ondartzak,
itxas-lapurren amets leku eta eskuta toki.*

FEDE ONEKUAK

«Bilbo Uri Zarreko» leiaketan, saritua. 1984.



FEDE ONEKUAK

Umetatik asi zan Antolin bizitzeari alderdi bigun eta alaia billatzen.

Ogi bedeinkatua lakoak ziran *bere* gurasoak.

Fede onekuak. Bizitza etorran lez artu ta «miseria»n bizitzea endazko lez artuta eukenak. Eta Jainkoaren borondate lez.

Antolin ezer egin barik eta ezetarako ez zala koskondu zan.

Itxasorako «gauza» lez etsi zanean, itxasoko otzara artu, etxean zarrekandik eukezan traskoak jantzi ta ez eskola ez ganora, itxasora. Berezko lez, besteak egiten ebena egitera.

Arrantzale izateko zetarako eskoletan burua apurtu eta osasuna mirrindu?

Duintasunik artzen alegindu ez ba zan be, jaiotzatik berezko gatza lakoia ekarri eban, estu nai oparo gertatu, bizitzeari arpegia emoteko.

Denpora estuak ziran bere umetakuak. Ez-aldi luze eta garratzak.

Etxean aita ta ama eta anai bi ta arreba bat bizi ziran. Beste iru edo lau, ez jakin zenbat, jaiotzean il edo aurrez galdu ziran.

Alaba bakarra urteak baiño len ezkondu zan.

Galiziar bategaz asi ordurako, beteta laga eban eta ezkondu bear, etxeko lotsaria kentzeko.

Martin'eri, ala zan aitaren izena, min emon eutsan orrek. Alaz eta galiziarren eroopenak eta illeta joteak bera zuritzea lortu eban. Jainkoaren borondatea ala izango zala ta.. eragin t an-

bolinari.

Martin «egin» zan etorrena artzera. Nekezago Malen, bere emaztea, nai ta amak alabei obeto begiratu.

Galiziarra «aita» deitzen asi jakon Martin'eri eta orrek sututen eban. Ori ezin eban iruntsi. Azpikeritzat artzen eban. Eta bein etxean ori eztabaidatzen ebiltzan artean, Antolin konturatu zan eta aitari esan eutsan: Zegaitik asarretu? Zer nai dozu ba, ama deitza?

Laster il zan aita.

Antxiñako oiturei jarraituz, izen bikotxa ipini eutsen mutillari bataiatzean: Pancraccio Antolin.

Pancraccio, abadearen gogoko izan zan, bataiatzen eben eguneko santua zalako eta eleizeari lenengotik lotsa artzen erakutsi bear zala-tar Orrela sartu eban abadeak lenengo ziriar Eta Martin'ek ontzat artu eban abadearen egitada. Antolin izena aita-besutakoak emona zan. «Kale bataioa» deitzen zan erakoa egin eben, au da, umeagaz andra eroantzaillea kalera urtetean lenengo billatzen zana ortarako eroanaz. Sarri egiten ziran onelakoak ezeukien arten eta aurrez umeekin zorionik euki ez ebenen artean.

Etxekoak Antolin deitzen asi ziran.

Ba euken etxequak gaineko deitura ezagunago bat, «Ari-meia»; itxuraz beti be endaz edo ta zarrekandik aurrekotasun bagako edo bizi argaleko ziralako. Baiña Antolin berari, itsasora joaten asi zanean, bere txalopan ebillan zirikalari batek zorioneko Pancraccio izena deitu nai izaten eutsan, adarra jotearren, baiña berak be garbi ezin aozkatu eban lez, ezin asmatuta ibiltzen zalako «Branka» deituten eutsan, arrantzaleak sarriago erabilten daben berba eredutzat artuta, eta ori zabaldu eta geratu jakon. Berari ardurarik ez.

Jainkoak egindako ume txatxar au, esaten eban amak, besterik ezean taloparea lakoxe zabala ba litz be, baiña estu, txiki, argal, mengel, igar au zetarako da berau?

Dana dala aita il zanean, galiziarra bere emazteagaz bere

sorterrira aldatu zan, an besterik ezean lurra be ba eukala ta, eta anai bi geratzen zirala-ta amagaz bizitzeko.

Antolin, soldadutza denpora eldu jakonean, arrantzale izanarren, legorretik joan zan eta kuartelean sartu ondoren, barre-gurea emoten eutsan berari Pancraccio deitu bearrak.

Gero abizena Garrogerrikaetxebarria eukan lez, sargentuak be ezin asmatu al izaten eban abizenik, eta azken baten Pancarro deitzen eutsen, Pancraccio eta Garro'tik nastuta

Sekula ez eban etxera idatzi, jakin be ez ekialako, eta beti be etxeakoak ondo bizi ziralakoa egon zan, barri txarra nunbaitetik artuko eban ziurtasunez. Ezin idatzi ez da be, ordurako ondo eta samur begiratzen asita eukan neskatilleari.

Origaitik etxean be ez ekien ziur Antolin nundik ebillan.

Nunbaitetik jakin eben Zaragoza'ra bialdua izan zala. Eta Katalin, osterarako dirua batuta, ausartu zan bertara joaten, Antolin bizi ete zan edo ez jakitera.

Uste eban kuartelera joan zanr.. eta ezin bere lagunaren abizenagaz gogoratu. Sekula ez zan arduratu be orretan eta zelan jakin? Alaz eta atean egoan soldaduari eskatu eutsan, mesedez deitzeko Antolingaitik. Pentsaten ebala «Branka» zala abizena.

Arek sarjentuarengana eroan eta an ibili ziran biak soldaduen zerrenda guztia ikusten eta an ez egoan Branka abizenik, ez eta Antolin izenik be.

Larritu zan neska, kezkatu. Bai lotsatu be, bere kutunaren deiturarik ziur ez ekialako. Baiña alegiñak egin zitun.

Iru-lau bidar deitu eban sargentuak zurkulu guztietara, neskak errukia sartu eutsalako. Edozer jokatuko eban sargentuak Katalin'ek nai eban morroi a an egon ezetz. Baiña alegindu zanr

Antolin'ek entzun eban «Branka» ,deiturea. Bi-iru bidar deitzen ebela konturatu zan ta bere artean esan be bai: Kontxo! Branka ori ni neu ez ete naz gero? Eta ez ba naz eta agertu? Sargento ozkil ori ez ete dabil norbait bere aurrera urreratu naian, gero komunak garbitzeko «plumia» emoteko? Eta ni ba nitz?

Kezkatxoa eukiarren, ez zan atera urreratu. Bere «kutuna»

erdi negarrez biurtu zan alperriko osterea eginda. Antolin'entzako erosita eukazan karamelu lodiak, adokiñak, sargentuari emon eutsazan. Eta onek agindu be eutsan zaintzako orduetan gertatu ez ba litz, pozik lagunduko eutsala geltokira.

Etixeratu zanean, Antolin'en amak lenengotan negar apurra egin ba eban be, nunbaiten ilda egon eikelakoan, gero, orrelakorik gertatu ezkerro errira deituko ebela sinistu eragin eutsen eta baretu zan.

Soldadutza amaituarte ez zan beiñere bere etxera joan Antolin. Euki zitun egun latzak, baiña beste zurrago batzuk erosi egiten eutsezan baimen orreik eta bere orde z baliatu.

Bitartean erdi itsututa bizi zan ama. Anaia luzaroko itxasarrantzutara joaten zan, makallau billa.

Bere denporak bete ondoren, etxerako baimen osoa emoten eutsenean, barruko umore z eioan. Inguruko batzuei esker, ez zan bidean «galdu».

Illuntze beranduan eldu zan errira.

Kale illuna zan bere etxea egoana, eta iñok ez eban ezagutu. Atadiak ez eukan aterik eta barrura sartu, eskillaretan gora igo eta bere etxean deitu eban ixiltsu, ezelako barbarik egin barik, ia iñok ezagutzen ete eban ikustearren.

Amak zabaldu eban atea, eta illunpean osta-osta norbaiten irudia ikusi ebanean: egon txotxo, oneik ez dira eskerako orduak, baiña egon. Barrura joan eta ogi koskor bat eta txitxarro brigidu bat eskuan eukazala agertu zan, esanez, a zala eukan guztia eta Jainkoren graziaz jateko. Eta atea itxi eban.

Antolin'ek ez eban ezer esan. Negar gurea etorri jakon. Eta amaren ogi gogor a eta arraiña, soldadutzako eguneroko txuskoa baiño sendoago begintanduarren, atsegiñez jaten asi zan. Eta kalera urten barik, ibillerako nekeak astunduta, lo zorroan geratu zan ate aurreko mailladian etzanda, biaramonean eguna argitzean amari deitu ta sekulakoak esatekotan, egiten eutsan ez ezagun arrera zala-ta Gaiñera esatekotzat eukiko eban betirako gertaera ori.

Andik laster goragoko etxean bizi zan gizon mardul lodikotea etorran eskillaretan gora. Antolin'en gorputzagaz topo egin eta bere gain jausi zan. Asarre jarri ta merezi zenduke atzeko zuloan txuntxur bat atarateko aiñako ostikadak emotea, zareana zarean orrek, jardun eutsan garratz, ezagutu barik, eta oin-daka baldar bat emonaz, eskaleren bat zalakoan. Ez dakizu erriko kartzeiako giltza nun egoten dan lo egin al izateko?

Ezagutu barik aurrera joan zan mar-marrean, esanez: Kostako jatsu emengo «Branka» datorrenean or lo egitea.

Antolin'ek pentsatu eban orrela berba egiteko, bere txalopakoren bat izan eikeala, baiña ez eban nai izan bere bururik ezagutu erazterik.

Andik gerotxuago eskoba zarata oartu eban bere etxean, ate inguruan. Eta bereala atea zabaldu zan eta ama agertu ate aurrean garbitzen. Ikusi eban, baiña ixilik bera. Amak eskobeagaz ikutu eutsanean, «ene ba, parkatu» esan eutsan. Lengo eskalea zara? Eta emen lotan? Alderdi txarreko norbait ez zara izango, ez?

Antolin'ek abotsa garraztuta erantzuten eutsan, tartetan estulen bat egiñaz. Ama errukitu zan eta esaten asi: Ene ba! Gure etxean berogarririk ez dago, baiña besterik ezean soldadu dagon mutillaren oea utsik dago ta etzatea nai izan ezker...

Eta amak, Jainkoaren izenean esanda, ez zein, ez nungo, ez zelako, «eskale» a barrura sartu eban eta argi makalean, gelako ertz baten oean kalean baiño obeto egongo zala ta an laga, loaldi on bat egiteko opa eta agurtuz.

Andik laster atea jo ta kixketa zaratea batera ziran. Katalin sartu zan.

Amagiñarreba izango zana bakarrik bizi zan artean, gabero joaten zan bakartadean zarrari laguntzera. Eta oiturazko eben lez, eskaratzea jasoten eben artean, otoitzetan jardun eben.

Antolin norbait egoala jakin eragitearren-edo, korroskadaka asi zan.

Katalin'ek nor ete egoan ikustera gelara joateko aizea artu

ebanean, ama zarrak esan eutsan, atean lo binan; **eskale bat** zala, gixajoa gose eta makal igarri ebalako. Zer egi n dautsazu, gurea be orrelako premiñaren baten dabillen be *ez* dakigu-ta!

Etxeko gelak aterik ez euken, kurtiñak baiño, eta une baten ama eta erregiña dardaraka egon ziran eskale a lenengo komunera ta gero eskaratzera pospolo argitan ibilten oartu ebela-ko.

Izan be ezin ase izan eban Antolin'ek bere ikusmin garra, ordu batzuk igaro ziranean. Baiña besteak konturatu ez zirala-koan, barriro gelan sartu ta an geratu zan.

Eguna argituagaz batera, ate joten oartu eben norbait.

Zein ete zan itandu barik, atea zabaldu eta sekulako goitik berakoak sentidu ebazan amakr Inguruko guardi-zibil bi egozan atean, Pancraccio'ren billa etozala-ta, semea kartzelara croan bear e bela-ta.

Ama berbera ez zan gogoratzen Pancraccio ori nor zan. Eta Katalin urreratu zan. Guardiak Zaragoza'ko kuarteleko deia euken, pistola bat falta zala ta Pancraccio'k eroana ete zan ustez.

Alperrik esan ez ekiela semea nun egoan, oraindik etxera etorteko zala, etxean meséde egitearren sartutako eskale bat bakarrik egoala eta abar, zaindarien etxea ikusi ta aztertu nai izan eben.

An egoan gure Pancraccio Antolin, zan bestean luze, oean, eukan manta bakarra burutik zear inguratuta.

Alto! Geldi! deitu eutsem guardiak.

-Ze gertaten da, itandu eban ametsetan ebillalakoan, Antolin'ek.

Nun dozu pistolea?

Olgetan zabize?

-Emen ez daukagu olgetarik. Atara pistolea. Kuarteletik deitu dabe.

Or nire makutoa. Ikusi!

-Zelan zagoz emen?

-Amari itandu... Eta orduan asi zan ama, orduantxe ezagutu ebalako semea, musuka jan nairik, eta Katalin be laztan bat emoteko tarterik ezin artuta.

Edozetara be, guardiak uste izan eben, etxeakoak ba ekiela Antolin an egoala, eta eskutatu nai izan ebela. Alperrik batsuen eta bestien esanak.

Antolin'ek pentsatu eban «guardia zibil» areik berari zirien bat sartu nai eutsen soldadu lagunen batzuk zirala.

Eta amak besterik ez ekian esaten, ondo egiñak eta batez be premiñan dagonari egiñak beti ekarten dauala barruko pozcn bat eta beretzat andiena, semea etxean eukitea zala.

Guardiak barriró kuartelera eroan nai izan eben Antolin, eurentzat Pancraccio, eta ez eben ezetara be sinistu nai esaten zanik. Azken baten alkateari deitu eta a izan zan gauzak nasai artu ta argitzeko eroapena euki ebana. Eta kuartelera deitu eban, bera egiten zala mutil orren erantzun bearreko esaten. Alaz eta andik erantzun eutsen pistola agertu zala ta parkatzeko.


Ain zuzen urte luzetan bere etxeko garbitzaillea lez ibilia zan Malen eta ba ekian a gatxik bako emakumea zala eta arek sekula guzurrik ez ebana esango eta agun aretan gertatua, bata olgetan eta bestea fede onez, esaten zana izango zala.

Laster zabaldu zan errian Antolin'en egitada eta *bere* «izakera»k zer esan ugari eta alaiak sortu zitun erritarren artean.

Izan be Antolin oraindik soldudatzako soiñeko eta oiñeta-koak kendu barik egoan.


Olaxe ospatu eban Antolin'ek etxerako sarrera, nai ta berak itai baiño biribil eta arriskutsuago urten.

Au guzurra dala ta ez jokatu ezer plazan, sinistu nai ez dabenak, ez dauka fede asko bare kalabazan.



«TOLL» UR TXAKURRA»

Euba'ko sariketa baten saritua



«TOLL»

«Toll».

Txakurra.

Zuri-zikin, gris nastu lakoxe.

Ule kirikolautsu, bete, lodi.

Ikus baterako, itxusi.

Ba egozan errian, gure itxasondoko erritxoan, bera lako beste batzuk.

Arraza bereziko ur txakurrak; zeatzago esanda, itxas-txakurrak.

Itxas-arrainen izenak, deiturak, ipinten eutsezan.

Alaxe ezagutu genduzan «Lasun». «Lixa», «Durdoi», «Korkoi», «Toll»... eta beste batzuk.

Kaletan ibiltzen ziran danon artean; umerik txikienak be ez eutsen bildurrik izaten.

Noiz-nai ikusten ziran erriko kale, kantoi, etxarte eta karkabetan, txalupetatik euretara aoan zerbait dindilizka eroaten, ura legortzeko lanbasa izan, nai txalopen azpi-ingurutan urak batu al izateko tangartak, edo kirtendun beste zerbait.

Arrantzale eta mariñelen laguntzaille ziran, orrelako zeregin txikiak egiteko zale, eta iñok ez eutsen kenduko eroienik.

Beste batzutan txalupak errira sartu orduko, lotzen asi orduko, etxera bialtzen zitun jaubeak, papardo, besigu edo kolaio-
ren bat aotik dindilizka, edo ta olakoetan sarri gertaten zan lez, kaneko bete kafesne beroa etxetik txalopara eroaten, andreak

edo amak senarrari edo semeari bialduta.

Orrelako serbitsu ta zeregiñetako erakutsita egozan.

Legorrean ez eben besterik egiten.

Eguraldi beroetan, umeak erreka ondoan igarian ibilten giñanean, eurak be gure ondoan ibili nai izaten eben, jolasean, ur egaletik jaurtiten zituen arri zuriak ondotik atarateko dzangadaka eta muska ibili ta aleginduten.

Bestetan, arraiñak ibai ertzean puzpuloka ebiltzanean, igarian joan, must-egin eta arraiñen bat agin artean artu ta jolasean lez ibilten ziran, euren duintasuna arro agertzen.

Itxasoan, geienetan, txalopak sokak luzatzeko eukiten zituen aurreko begi zuloen inguruan joaten ziran, edo ta branka-ko txopa gaiñean. Eta nai eta txalupan ezer egin ez, arrainkaletan gizonak nekez eta arriskuz beterik egin eikeezan lanak beteten zituen. Orrelako bat, sareak jaurti edo zabaltzean puntako soka batzea izaten zan; edo ta tertzak luzatu eta batzen astartakoan, tretza buruetako etenak ontzira eroatea; edo ta portura eldu ta molla egalera txaluparik urreratu eziñean, txikotaren burua agiñekin artu ta leorrekoeki urreratzea, an molla gaiñeko gizonen batek txalupa móllako zuloen baten sendo lotu al izateko.

Pozik eukiten zituen ontzietan, eta itxasorako bakoitzak eroaten eban jaki pototik, danak nai izaten eben txakurrari ondakintxoan bat eskintzen

Etxeko sukaldean lo egiten eben. Ez beti. Batzutan txalupa bakoitzak bere sare eta tresnak gordeten zitun aterpean gelditzen ziran. Olakoetan sare multsoen gain-gaiñean etzaten ziran, tresna guztien zaindari lez.

Danen lagun ziran. Leorrean ez eben etxeetan traba andirik egiten. Zikinkeririk be ez.

Ixillak ziran, leialak, asarre gitxikoak, eta umeekin be jolaszaleak, eta ba ekien, iñoiz andrak etxetik nunbaitera joaten, etxeko gaixoen zaindari zur geratzen.

Sarri lez Kristiña etxetik urten bearrean gertatu zan, Kontze zarra oean lagata.

-la Toll, ama ondo zaindu gero! Ez laga oetik urteten!

Eta entzun orduko, ama zarraren oe egalera joan eta etzan zan.

Ez eban lorik egiten olakoetan. Adi, adi, Kontze'k zer egingo.

Ez jakin zegaitik, orma egalean dindilizka egoan kurtzailloa bere ultzetik laban eta oe ganera jausi zan.

Garraxika asi zan Kontze oe gaiñean, sua indarra artzen igarri ebalako. Eta bera baiño lenago konturatu zan Toll, eta koltxilla zarra agiñekin tenka kaleko atadira tatarrez eroatea lortu eban.

Kalekoak igarri eben, batu ziran, eta oe adarrean sua indartzen oartu eben, Kontze zarra berbarik be ezin asmatuta, izerdi larritan egoala

Ibai ondoan sarri gertatzen zan umeren bat uretara jaustea, erreka ondoan uretara arrika ebiltzala edo ta batel batetik bestera igaro naian.

Geienetan orrelako umeak goiko kaletakoak izaten ziran. Erriberakuak oituago egozalako ur-ertzeko kantoi eta arriskuetara.

Orrelakoetan jendea garraxika asten zan: Umia! Umia! Umia uretara!. Eta ez jakin zelan, askotan, gizonak baiño lenago eta biziago artzen eben ur-txakurrak deadar larri ori, eta besteak baiño bizkorrago joan umea egon eikean tokira, eta azalean agiri ez ba zan, ondora joaten diran gauzak ingurutan lagaten daberen ubilla igarten eben tokian must-egiten ekien, eta jantzirik ba euker jantzi-egalen batetik aginka oratuta edo bestela samatik dindilizka ataraten ekien umea.

Toll'ek iru-lau ume atarata eukazan era orretara.

Baiña gizonak zartu egitera dira eta txakurrak be bai.

Arrantzaleak be kala andietarako indarrak galtzen dabez, eta txakurrak be etxearen babeserako joera artzen asi.

Alaxe, Erramun zarra inoiz gizon asarre, alegintsu, ausarditsu eta atzera-bakoa izan ba zan be, txalopatik urten bearrean aurkitu zan.

Txarrena, beste zar asko lez, astundu zala, zortu zala, lotu zala eta zartu zala sinistu nai ez da.

Ainbat denpora igaro eban gaztiekaz txalupan betoskoz, ba-zalakuan ezin elduta, beti mar-marrean eta nastetan.

Bein zartu ezkeru, arrantzaleak batel txikietan euren kontura asten dakienak ba dira. Eta Erramun'eri, txalupatik kanpora atarata geiago irabaziko ebelakuan, txalupako mutillak erosi eutsen bastertuta egoan batel txiki bat, eta orrela bere kontura asi zan arrantzan.

Jakiña, zarrak lez, kai aurretxoan, itxas-ertzean aurreko kaia txikietan arrantzaten.

Erramun'ek «Toll» eroaten eban, au be zartuta, besterik ezean «kontuak esateko».

Bein Arta azpian ebiltzan.

Ango aitzetan dagon «Ama Birgiña'ren zuloaren parez pare.

Eta Erramun'ek goitik berako arradea sentidu eban. Perlezi aizea lakoa.

Espanak okertu jakozan eta berba oguzkera galtzen igarri eban. Beso bat geratu be bai, eta gerritik bera be ez egoan ziur.

Karel gaiñean makurtu zan. Eta ez zan lerdentzeko gai.

Toll'ek orrela ikusi ebanean, bildurra sartuta lez, zaunka asi zan.

Lenengo Erramun'eri, eroiazan praketatik eta txamarratik tenka.

Gero antzera joan nai aurrera aldatu, eta tosta gaiñetik aize-tara eten bearrean zaunka.

Baiña inguruetan ez ebillan iñor. Ez egoan agirian beste iñoren batelik. Ez egoan urrun barrako sarrera, baiña nok eroan?

Arta-buru'ko, legorretik gizon batzuk igarri eben zerbait gertaten zala ia arra batera euken bateltxoan, baiña Erramun lo egongo zalakoan ez eben ardurarik artu, Toll'en etenbako zaunkadak urduri laga arte.

Eta eurak, ikusi eben Tbill, batelak lotzeko eukan txikota agiñekin artu, uretara salto eta igarian tenka eroan al izateko alegin biziak egiten. Baiña ezin batela erabilteko aiña indarrrik egin.

Keixatu ziran legorrekoak. Talaixeruak be arriskuetao ikurriña jaso eben. Kaian ebiltzan gazteak orregaz konturatu orduko, bateletara joan eta bizkor urten eben, geiagoko zertzelada barik.

Ez egoan urrun be ta laster eldu ziran. Eskerrak itxasoa bare egoala be.

Toll azkenetan ebillan, arnas-estuka, eta intziri batzuk egin zitun urreratu ziranean, poz-agerpen lez.

Erramun ez zan gauza zutik jarteko.

Batela atoian ipini barik, gazte bik salto eben Erramun'en ondora, eta andiagora igaro nai izan eben, baiña itxasora jausiko jakoelakoan, lengoan zela-ala etzanda ipini, eroiezan euren jantziak bere gaiñean zabalduz eta alaxe asi ziran, erramutan, egalean besteak eioazala, zer gertatuko kezketan, eta kiriotsu eta geldi-eziñik ikusten eben Toll'ezin zainduta.

Kaiara eldu ordukoxe, Kofradian gertuta egoten zan esku-oe txikian ipini eben Erramun eta etxera eroan. Berandu zala ikusten eben, arnas zorroa besterik ez eukalako.

Etixerako bidean, gizonen tartean, ia ankartetik kendu ezinda, euren inguruan joan zan Toll bere etxera.

Eta Erramun oean etzan ebenan, an egoan bera be basterxo baten, burua makur, zirkin barik.

Laster emon eban Erramun'ek azken arnasa, ezegaz konturatu barik.

Eta au gauza arrigarria!

Iñok konturatu barik, Toll be ilda egoala igarri eben.

Uretara jaurtiten zituen len ilten ziran txakurrak.


Norbaitek esan eban, gizonen mesedean ainbeste lan egin eban txakur arek ez ete eban merezi gizonen esker obeagorik.

Parrokoa ukatu egin zan kanposantuan tokia emotera, gixtiago Erramun'en ondoan, batzuk gura izan eben lez, baiña erriak molla barruan egin eutsan zulo bat, eta antxe sartu eben Toll, itxas olatuak egunero laztandu al izango eben tokian, egunen baten, itxastarrak itxas-txakurrei oroigarri ederren bat egingo dautselako, eurak, euren denporetan, gaurko teknika bako mariñelei egin eutsezan mesedien esker onez.

Ainbestean maitatu eben gure zarrak Toll.



ULE BALTZ



ULE-BALTZ

Ez zan eder.

Ez eta ondo betea bere.

Ogetak urteren bizitasuna.

Itxas ertzeko neskatillen gatza berbetan eta ibilkeran.

Etxeko bizitza neketsuaren ezaugarriak eta urratsak soiñean
sta jantzietan.

Ule luze, ardura baga zaindua. Baltza.

Arranoen pikoaren antzerako sudur luze okertua.

Betule baltz sakon eta usuak, eta begi nini baltzeranak.

Izartxo izena eukiarren, «Ule-baltz» deituten eutsen.

Ezagun egiten zan Bizkai'ko Kresaldi erri txikitxu ta arrain
sundatsuan.

Etxekoak, danak, ezagun zituenetatik asita, itxastarrak izan
zitun.

Aitita, arrantzalea, Santoña Ameriketara il zan, atunetara
joan zan urte baten, atun utsa jaten eta jan esteak sikatu ta bat
batera emon eutsan joaldi batetik.

Afta, perleziak jota, ezetarako gauza ez zala, lo orduak ken-
duta etxeko zokondo illun baten bizi zan. Kanpokoak ikusteko
lotsaz eta bera, andik, etxean sartzen ziranak ikusten, illunetatik
argitara.

Bata bestearen ondoko bederatzi anai-arreba (neba-arreba)
izan ziran. Iru neska ta sei mutil. Etxeko esaeretan iru «mielga»
eta sei antxoa txiki.

Neskak, lenengo biak il egin ziran, andratzen asi orduko, bularretiko gaitzez.

Origaitik Izar, bere koskontze denporan, etxeko bezeroen baserrian euki eben, besteen gaixoagaz ez kutsututeko, eta nai beste talo ta' esne eta errebero artzen.

Ordez, txalupetan etxerako artzen zan arraiñetatik, treotzarak bete bialtzen eben baserrira, astean iru egunetik bein plazara etortzen ziran egunetan.

Sei anaietatik iru itxas ondamentietan galduak ziran. Bi batera, beladun txalopa andi baten, aizearen indarra galtzeko, mas-ta nausitik belak beratzen ebiltzala, bat-bateko galerren baten. Txikota eten eta aize bunbada baten bela ta guzti itxasora tata-rez eroan, eta belapean nastauta, bertatik urten ezinda, alkarri oratuta itto ziranean. Ogetak urte eukezan, bizi-biziak ziran, baiña bela artean, olatu zabunetan, argirik ezin ikusi al izan eben. Eta biak, adore guztia galduta, besteen alegiñak igari arren amasarik artu ezinda itto egin ziran, eta euren bela moltsoan, sarean artuta lez, atoian eroan zituen portura.

Irugarrena, oraindik txikitxo zala, danen aurrean, barruko olatuak aidean jasoten ziran baten, portuko sarrera artzean, molliaren gaiñetik itxasoak gora egin, eta beratzean azpian artu ta batela tirabira eginda laga ebenean.

Oraindik zurtasunik ez eta zerbait zalakoan Anton zarrari laguntzen asi zan. Eta biak, alkarri oratuta, besurik igaritan erabili ezinda, barra onduko arrizetan galdu ziran. Andik iru egunera billatu zituen.

Eriotzaren irudiak itzala barruraino sartuta eukan Ule-Baltz'ek.

Bildurra eutsan itxasoari.

Ez eban nai berak maitatu eikean mutilla itxastar izaterik. Baiña nai ta ez lez, auzoan, errian eta inguruan ezagutzen zitun mutillak, danak, itxasotik bizi ziran eta igarri barik, berez, eguneroko ezagun edo laguna zalakotzat eukan mutilla, bere biotzaren jaube eginda eukala konturatu zan.

Eta konturatu zan, ezer egin barik, alegiñik egin barik, oean sartu orduko, beragaz gogoratzen zala.

Eta ezer jakin barik, leiora urreratzen zan bakoitzean, bera ikusten ebala etxe aurrean kaletik igaroten.

Eta txalupak arraiñagaz portura sartu eta nasa ondoan arraiña ataraten asten ziranean, arrantzaleak legorrekoeki borondatez emoten eutsen zapi bete arrain, atsegiñen eta ugarien berak emoten eutsala beti, ezer esan barik, irribarre bategaz bakarrik.

Eta kaletik zear igoeran, kaleko ardangelaren aurrean, kaia ta zarata igarri ta entzutzen zan unean igarota be, ezer jakin ezarren, ain zuzen be bera ingurutik eioala, orduntxe agertzen zala bera atera, zigarro ondakiña kalera jaurtitera.

Eta pentsaten asi zan maitasuna berezkoa ete dan; eta maitasuna sorginak erabilten ete daben, edo ta aizeak gidatuten daben, edo ta arnaseak alkartu eragin.

Egun baten, egualdi ustela zan.

Sargore lenengo. Gero, gero ta sarriago, aize bolada gantartsuak.

Itxas txoriak, kaivak, uluka lez, zarata bizian aurreratzen asi ziran eta eleizako tellatu eta torreak eurekaz bete ziran.

Poto zarrak tatarrez kaletan; etxetako ateak dinbi-danbaka, leiaren bat kalera jausi ta apurtu bere bai...

Ama zarrak argizaria biztu eban, ai ene gure txalopak! esan eta esanka eta «arima pielei» erreguka. Txalopen ordeztakoak ziran bere arrenen eskale. Aita, bere perlazi ta guzti, konturatuta, zerbait esaten ebalakoan, laiño arteko barbaro marmanean lez, kiriotsu ebillen.

Eta «Ule-Baltz» leioan, barrutik, begiak malkoz lausotuta, ezer ikusi eziñik, goitik berako dardaraz, gero ta kezkatia go, gero ta arnas ausi ta mintsuagoz, zer entzungo, zer jakingo, zer oartuko, zerua nundik argituko.

Kaiuen intziri mintsuak zerbait adierazten eutsen.

Eta gizonak arin-aringa ikusten zitun kai aldera, sokak le-

poan eroiazala; eta kanpaien durundia be oartuten asi zan belarrietan, eten eziniñik; eta tximisten dizdira be igarten eban zeruetan eta trumoien orrua, jentillen arri jokoan lez, urrunean.

Bera be, egon ezinda, gizonen ondolik joan zan.

Norbaitek deadar egin eban, mendebal aldetik, aitzetara noiz sartuko, txalupen bat ikusten zala, ikusi ta galdu, itxasoaren goraberetan.

Konturatzen asi orduko, aizeak tatarrez eroanda, Santa Clara azpian, txalopandi bat aitzak jo ta euretan kokatuta, ia erdibitu edo zatitzeko arriskuan geratu zala igarri zan. Entzuten ez ba ziran be txalopearen grabadak sumatzen ziran eta gizonen aienak iruditu.

Inguru ataratu ziran, keixu, gizonak eta andrak. Aitzetara jatsi ziran, bidetxior guztititik, bakoitzak al eban eran.

Alperrik.

Geien 'urreratu eikezan tokitik txalupea olatuen mende ebillan aitz egalera, bitarte andiegi egoan. Ezin ezer egin. Ezin urreratu. Igaritan astea zorakeri zan.

Zarata eta deadar asko batetik eta bestetik. Geiegi. Andrak éta agureak, goiko bidean, parkamenak zabaltzen iñardun abadearen ondoan, lenago be iñoiz egon ziran antzera, errirako ondamedi ziur bat biziten, eta albokoen artean alargun eta umezurtz barriak iruditzen.

Nun ete ebillen «Ule-Baltz»?

Gero ta gizon gitxiago ikusten ziran txalupan. Danak ekien, esan bear barik, amairu gizon ebiltzala bertan. An ebillan «Ule-Baltz»'en nebarik gaztena. Eta bertan bera be. Bera... Igarri barik biotzeko eban mutilla.

Itxas bits eta laiño artean, ez zan igarten ondo, baiña ziurra zan batzuk galduak zirala. Ez egozala beintzat txalopan. Eta aitzetan, olatuak brasta-brasta ertz batetik goi-goiraiño busti, garbitu, orraztu eta amorruez igaro ta urratzen zituen aitz artetan iñor bizi egotea gaitz zan. Miraria.

Bi edo iru ikusi ziran txalopatik uretara salto egin, eta ai-

tzetara ordeaz, itxas zabalera joan nairik, an zerbaiteri oratuta eutsi al izango eutselakoan, baiña euren alegiñak indarge geratzen ziran. Olatuak, eten eta apurtzeko goratzean euren mende artu ta aitzetara jaurtiten zitula igarri zalako. Eta itto barik, aitzen kontra il.

Gazte batzuk, txalupako aga luzeari euren gorputzak lotzen oartu ziran. Ala agakin batera txalopari, lapak aitzari lez, lotuta geratuko ziralakoan.

Baiña olatuak albo-alboka gogorretan erabilten txalopea, biurrikeri larregi eragiñaz, eta tarterik euki ezkeroko lepoz gora geratu edo desegino zala uste zan.

Orrela egozala, batel txiki batek urten eban portutik. In-txaur oskol baten antzera, gora-beraka ebillan olatu artean. Itxas barrura zabaltzen asi zan lenengo, aitz ondoan, kosterrez, olatuen mende geratu barik.

Arnasea etenda lez geratu ziran gizonak eta leorrekua kr Zein zorori buruan sartu orrelako egitada bate Ondamendia geitzea zan ori.

Laster igarri eben, aizeak aidean erabilten eutsazan uletatik, Ule-Baltz be barruan eioala.

Danak ekien edozein mutillek aiña egiten ebala igarian. Ez eukala orretan atzerarik. Alaz eta an, irakiten ebillan itxaso esnetuan, alperrik izango ziran bere alegin guztiak.

Batela, itxas kanpoa lortu ondoren, kanpotik barrura zuzentzen asi zan. A ittotasuna! Biotzaz ala buruagaz jokatu bear da or?, entzun jakon berba larriz gizon lodi bateri.

Danak konturatu ziran, batelekoak, olatuak eteten asten ziran tokira eldu ziranean, gelditu egin zirala. Eta bertatik, gerria sokaz inguratuta, eta eskuan salba-gaillu bat eroiala, Ule-baltz uretara sartu zala eta txalopa andia egoan aldera igarian asi.

Abadearen inguruan egozanak, erreguka asi ziran, negarrez Aitz ingurutan ebiltzan gizonak, barbarik alkarrak esateko adore barik, an zer gertatuko. Zorakeria zan an txalopara urreratzen alegintzea. Aurrez esanda edo bertara eldutean konturatu, igarri

eben Ule-baltz'ek jokabide zur eta on bat eroialar Al zanik urre-
ren eldu eta salba-gailluari txalopa ondoraiño itxasoaren inda-
rrez luzatzen laga, soken txistena batelean zainduta. Bein ori lor-
tu ezkeru, adorerik ba eukan, txalopan bízirik egozan gizonak
obe eben, bizi nai ba eben, uretara salto egin, salLa-gailluari eu-
tsi ta txalopatik egingo eutsen, tengadari itxaron.

Lenengotan zalantzan eta ezpaian egon ziran txalopan ego-
zanak. Lotuta egozan lez ziurrago egozalakoan. Ule-baltz'ek las-
ter igarri eban lotutako bat bere nebatxoa zala, ta gogor egin
eutsan, bildur barik salto egiala agintzen. Alako baten be, adore-
tu zanean, danak igarri eben uretáratzen, baiña asko ez ziran
konturatu noiz eldu zan salba-saskiari eldutera, eta alperriko
arriskutzat emon eben.

Alako baten batel txikikoak txikotari• tenga igarri zitue-
nean, eta gizona bertara eldu zala konturatu, txaloka asi ziran,
itxaropen aizez.

Mutillak, lenengotan berbarik egin ezinda, gauza garbirik•
ez eban esaten, baiña laster konturatu ziran txalopa andian agei
lotuta ikusten ziran beste biak baiño ez egozala. Besteak urak
iruntsita edo aitz zulotan odolostuta egongo zirala.

Ule-Baltz'ek, lenengoan egin eban alegin bardiña erakutsi
eban bizirik geratzen ziran beste bien alde. Berbera eskiñi zan,
eta bestiei laga be ez, barrero igarian ara urreratzen.

Lortu eban, lenengoan lez, biak adoretu ta euren saski bi-
tartz bateltxora urreratzea, eta an jasotea.

Leorrekoak, bildur ziran lez, laster ikusi eben txalopa andia,
olatuen joaldi baten, aitz zulotik urten ebanean, killaz gora
biurtzen.

Ule-baltz, bere nebatxua an eroanarren, itzal igarten zan.
Amar gizon galdu eta... a bera be bai.

Porturantz eioazala, ol zabal bateri eutsita, gorputz bat iga-
rri eben ur azalean.

Urreratu ziran. Oraindik bizi zan. Ez eukan almenik bere
aldetik ezetan laguntzeko. Eta eurak be ez indarrrik txalopara ja-

soteko. Ez euken tokirik be. Tira-bira egiteko arrisku andia bai.

Uretara salto egin eban, oraingoan be, otzak ilten egonarren, Ule-baltz'ek. Ezagutu eban. Bera zan, bera.


Adorea sartzen eta emoten alegindu zan. Irribarre bat atara eutsan, nai eta samiñez Ziurrago ibilteko, salba saskia be alboan ipini. Erdi negarrez, sekula ez eta, musu bat emon eutsan, itxaropen arnasa lez. Eta obeto lotuta, atoian eroan zituen biak, erramuei al besteko tengadetan.

Zerbait baretzen asia zan itxasoa. Molla musturrean, an egoan erri guztia. Txaloka artu eben txalopa txikia. Txaloka eta negarrari eutsi ezinda, ainbat ariñen jantzi eta berogarriak eskiñiz Eta leorrari ikututean, andre batzuk musuka jan eben Ule-baltz


Andik egunetara, santa Clara ermitatxoan ziran erromes erritarrik geienak. Alargun zarrak eta barriak. Umezurtz zarrak eta barriak.

Antxe ezkondu ziran, danen aurrean, Ule-baltz eta bera: Peru Aingira.

Eta andixek, barriro itxas arnasa artzen asi ziran, euren bizi-bidearen arduratan, barriro be, atzera egin ezinda, itxasoaren bide eta legetan.




potala
ARRANKILLA



§

ESKALEAREN ERIOTZA

«Euskerazaleak» en 1985'ko leiaketan, saritua



ESKALEAREN ERIOTZA

Madalena eta umeak ez euken artu-emon andirik errian.

Euren bizi-modu berezia eroen.

Lea errekan bizi ziran, erritik zerbait aldendu eta urrunduta, erdi uts, erdi lagata egoten zan etxe zar eta arrakalatu baten.

Eskoletara be ez.ziran joaten.

Errukiz inguratzeko, iñoiz iru umeak artuta, irurekin ibiltan zan ama, auzo errietan zear.

Errian agertzen *ez* zan denporaldiak eukiten zitun.

Eukan bizimodurako ez zan zikin eta loi ikusten. Nunbaitetik baliatzen zan beretzako eta umientzako aiña jantzi ta soiñeko batzen.

Umeak ez euken gose itxura andirik, nai ta ke usain eta ke kolore baltzeranaz ezagutu.

Bizi narraza igarten jakoen, atsegin eta poz gitxiko bizia, eguna tatarrez bete bear ebenen itxurakoa.

Ez amak, ez umeak, sekula osagillerik ez eben ezagutu.

Euren beraldi eta makalaldiak, ama berberak amakuntza ta erdibitzen euki zitun lez, Marta «Baltzak» jakin eta osatu eta eratzen zitun.

Auzo erri txiki baten bizi zan sorgiña lako andre igar eta argal a, eta bedar eta ostoen indarrez eta graziz egiten zitun bere egitekoak. Origaitik senditik etorkion «baltza» deituraren gain, Marta «Bedar» ez-izena be emoten eutsen. Eta irriz ekiten eutsean, Marta Bedar, Lekeitio bedarra, esaten eutsen. Bear ba da,

bere osagui ta enplastoak ainbat bedarrez beteten zitulako.

Madalena etxean etenda geratu zan baten, deitu eutsen. Laurel-niña zalakoan asi jakon lenengoz, ortarako bedar ur eta osabidetan.

Egun batzutara, on itxurarik artzen ez cutsalako, gogortxuago zan erremedio batera jo eban, egokiago zalakoan. Txokolatetan zorriak sartuta emoten eutsazan goizean. Eguerdian ardaotan. Eta illuntzerako arto bizarrekin egindako urepelctan.

Artegatu eta estutu egin zan, ikusi ebalako orrek be bere-tik atara egin barik, egun gitxitan argaldu eta indargetuta laga ebala.

Konturatu zan otzen batek artu ebala Madalena eta albo-ringoa be batu ebalat. Eta orretarako larra bedarra emoten asi jakon, birrikak leundu edo garbitu cragiteko asmotan.

Baiña Madalen errukarria, zearo auldu, aulcriak jan eban, berakada bixkor baten.

Azkenean ez zan konturatu bere seme-alabetxucuri agur egiteko unea eldu jakonik. Areik be, curen sasoi arteko eta ar-dura bako umetasuncan, ez eben amaren azkenik igarri.

Bildurtu egin ziran abadeari deitzen. Kanpairik joteko be ez eben agindu.

Biamonean, eriotza jakin ondoren, eta etxera gorpu billa joan zanean, abadeak itaundi eutsan Marta'ri, ia zergaitik, bere-tzat baiño geiago zala igarri ondoren, erriko osagilleari deitu ez.

Marta'k erantzun eutsan, ia zergaitik osagilleak eurak, ezer egin al ez dabenetan, bera lako andre ez jakiñekana gaixoa eroa-ten laga daben. Beragandik osagilleagana jotakoen artean, ez ebala iñor ezagutzen arek osatutakorik. Eta orrelakoen artean, atzamarrekin ezin kontatuala agertuko zitula, abade berberaren amagandik asita.

Asarretu ziran. Bata arrotxo ta bestea zital, bata destaintsu ta bestea petral, amaitu eben euren artekoa.

Gero, bata kuxtaren aurretik asi zan kantari eta bestea gor-putzaren atzetik, oialpen zelatari.

Negu ateko goiza zan. Egualdi illuna. Likin, laiño eta bustia. Kanposanturako bidean, apaindura barik, ordu ez-egokian, arin, anda bat.

Abadea, akolitoa ta lau erriko langille, lau kale-garbitzaillek eroandako kutxa.

Atzetik iru ume eta oial baltzez goitik bera estalduriko andratxo igar eta makur bi.

Gizonik ez, zerbitzariak besterik.

Itzegira eldu ta bereala, kutxa lepotik eratsi-ala, lurrean eginda egoan zuloan sartu eben.

An laga eta lurrez estalduten asi baiño len, abadeak ezpan-arteke otoi arin bat egin eban latiñez:

Umeak, neska bi ta mutil bat, irurak be amabi urtetik berakoak, ez eban negar andirik egin. Muxingak, inkeza bako negarrak.

Andrazkoak ez eben oialik jaso.

Zabaldu be ez eben egin kutxarik azken ikusi bat emon edo azken agurra egiteko.

Lizun usaiña zabaldu zan inguruan.

Egun bat baiño geiagoko illaren ondakiñak, ondo egin eta josi bako kutxaren lotuera eta tartetatik iges egiten lagaten dabena atsa artu eta zabaltzen zan.

Abadeak berbatxu batzuk esan eutsezan umeei: la txo-txo emendik aurrera zelan konpondutzen zarien. Zeuon artean eta zeuon auzokoekin.

Roketea kendu eta akolitoari emon eutsan sakristira erateko aginduz.

Bera, altzakuelloa kendu, paparreko izerdia zapi bategaz batu, buru gaiñea be igortzi eta zigarrotxo bat biztu ta erreten asi zan, ango atsik eztarrian zear ez artzeko.

Laster jaurti eban zuloegilleak kutxa gaiñean, parrastadaka, zuloa egitean alboan bastertu ta pillatua eukan lurrean.

Anda eroantzailleak, berba barik, ixillean alde egiten asi zi-

ran. Batek esan eban orraitio: Azkenean au be geuk jaso eta ekarri bear.

Beste baten erantzuna entzun zan: Txarragorik egiten dogu. Bizien atsa bigunago ete da illena baiño?

Abadeak, Marta'ren ingurutik urtetea: la zelako «tituloa-gaz» bialtzen daustazun eriotzako papera, nire liburuetan agertzeko.

Botikarioen bizio paperak be sobre geratu dira orain onentzat, jauna.

-Errezena egiten dozue. Ii dala ta or konpon.

Beste batzuk egiña be ez da gaitza: Paternoster ta amaitu laster.

Zer da, ba, egin nebana?

Besterik ezean ume koitadu ta errukarri onei eskupeko bana emon.

Eztarriko garrama zarata entzun edo oartu jakon abadeari. Eta andik aldendu zan.

Lur emontzailleak, lurra jaurti, landu -ta gero:

Kurutzerik ekarri ete dau iñok?

Ba eukan kolkoan, erantzun eban alabetako batek.

-Ez, beretzat ez, lur gaiñerako baiño.

Umeak alkarri begira geratu ziran.

Bera izan da ori naiko kurutze, tartetik Marta'k. Emen ez ba da be Josafat'eko'zelaian ezagutuko dabe beintzat.

Asko dakizu.

-Ez dabe esaten, ba, emen dagozan erritar guztiak ormarik ezin billatuta ibili bearko dabela an, lotsatuta, aurreko praille edo monja abitua eukiaren, atzeko eztagarri barik kutxetan bialtzen dituelako?

-Orrek munduan euki naiko lotsari, emengo destain eta zer esanekin. Eta berak eukantxoagaz atze ta aurreko gonatxoekin bialdu dogu. Beste asko baiño obeto.

Umeak ez eben ezer ulertu. oraindik bizarra urteteko eu-

ken. Jakin be ez erriko oiturarik.

Beste andratxoak, ordurarte barbarik egin ez ba eban be, umiei begira egon ondoren:

-Guazen emendik, zeuon zorakeriekin «difunteak» bakerik galdu ez dagian be.

Eta umetxoei esan eutsen: Ia, ez daitela gaurkoa izan amagaz gogoratzen zarien azkena. Bera zan erakua ba zan be, eten-enda laga zenduen eta or azkenenan.

Umeak ez eben esaeraren luzetasuna eta sakontasunik artu. Oituta egozan lendik be antzerakuak entzutera.

Biaramonetik eskean ekin eutsen umeak. Ez eben nai izan iñun sartzerik. Oituta egozan euren erako jatekoak egiten.

Marta'k ikertuten zitun tartetan euren etxe zarrean, jantzien bat eroateko. Orretan, ba eukezan laguntzen eutsenak, etxetakoak gordeaz.

Eurak eskale jaio ziran, eskale kozkondu ta eskale biziteko makurtasuna euken, eskiñi. eutsezen laguntza guztien gaiñ.

Ez ekien aitaren barririk. Orraitio amaren itzalik ez eben galdu. Eta amaren esana gordeten eben: Eskale bai, lapur ezr

Ori izan zan amari eskiñi eutsen kurutzerik onena. Eta tartetan, loratxoak eroaten eutsezan kanposantura.





PERU eta MARI ONDARRUTARRAK

Peru ume zain


Peru amugiña

Peru kanposantuan

Mari, antxoei buru kentzen

Peru eta Mari errietan

Uretatik ataraten



PERU ETA MARI ONDARRUTARRAK

la berbetan ikasi orduko asi giñan Pcru eta Mari'rcn ipuiñak ikasten.

Gogoratzen alako...

Pcru eta Mari
biak egurrctan,
aizkora galduta
biak errietan?

Ordutik gero, nai ta...

O mutil tonto
jateko pronto

izan, zenbat Pcru eta Mari bizi ezagutu?

Fernando Amczketarrcn ipuiñak baiño geiago batuko gendukez, gure Peru eta Mari'ren kontuetan. Batzuk gatzez beteak, bcstcák negarrak bustiak; arda kolorekuak tartetan, izerdi likiñetan banakak, antxo usaindunak sasoian, edo ta diru zaleak eta abar.

Gaur batzuk gogoratuko doguz, gure ipuin sail oneri azala itxiten, gure Marixe Beikañeko Arrigorrin bueltan agertu baiño len, bctazalak beratu ta loa ekarten.

Peru ume zain

Bost seme-alabak gerra ugari emoten dabe, baiña eurak alkarren gaiñckuak ba dira eta txiki-txikiak zer esanik ez.

Bost neska mutil eukazan Peru'k, danak zortzi urtetik berakuak. Berak ez zitun asko ezagutu izan, emoten eben ardurata buruko miñetan beintzat. Itxasotik etorri ta esate baterako otza-

ria lagateko unea bakarrik artzen eban Itxian.

Sarri esaten eutsan Mari'k: Baiña Peru, etorri orduko kalera? Seme-alabatxuak cta...

Aziko dira orreik kezka barik.

Pixkabat eurak garbitzen be ez daustazu laguntzen.

Arrigorri'ko ijituak ez dozuz ikusten zelako kaskagorrrak izaten diran? Olako koplarik ez dabe erabilten areik!

Ara, Gorka'k prakak apurtuta daukaz. Konpontzeko tartetik ezin artu al izan dot.

Dabillala batere barik! Zera... Zein arrituko da gaur batere barik ikusiarren? Obarik ikusten da gaur!

Ori ez da kontua. Begotxu'ren gorontzari be zintak falta yakoz. Ekarriko dozuz dendatik?

Neu gorontzen zintak erosten, dendara? Danak niri barezka ipinteko?

la ba, nik ezin neike-ta. Emongo dautsuz Xeles'ek iñor konturatu barik.

Gaur dagon beroagaz zetan umeari gorontza jantzi?

Igor koitadua be beruzkotan dabil. Lau bidar aldatu dot gaur, lau bidar.

Erakutsi egin bear ez zikintzen!

Iru urteko ume gixarajua! Itziartxu txikia be... Elgorria batuko dauala uste dot, elgorria.

Baiña... zelan agertzen zara ni etxera sartu orduko beti ainbeste illeta joten? Apustu egingo neuke Txomin'en andreak olako koplarik erabili ezetz.

Ara, ikusten oraintxe be? Norbera emen etenda, eurokai-tik norbere buruagaz be ardura barik ibili ta... ara eskerra! Zegai-tik ez ziñan ezkondu zeu Txomin'en andreagaz?

Ortik asten zan etxe beteko matxiñada. Minutu gitxi barru, ateari danbada gogor bat emon ta iges egiten eban Peru'k etxetik lagun artera, eskillaretan bera mar-marrean. Andrak dira oneik, ala? Bost ume pongoliño zaintzen be ezta-kien andrak?

Illuntze baten, tabernan egoala, baba lora lako mutil guri-guri bat aurreratu jakon: Aita, Gorka eta Igor auskan dábiz.

Eurei alderdiko eder bana emoten ez dakizu, zeuk jakin ez?

Kepa'k be salako albaakeari txis egin dautsa.

Neuk lokatuko dodala, esan.

Itziartxu'k be gonak-eta, erropak-eta, zikiñez untauta daukaz. Garbitzen ez dausta laga.

-Amarik ez dago etxian edo zer?

-Bai, oean dago negarrez. Len be jaiki egin da, baiña ondesak jo ta barrero oe gaiñera joan da. Geuk tapatu dogu, otzaz dardaraka egoalako. Geuk tapatu dogu... Esan dau gripe batu dauala.

Lotsatu zan Peru ta gogo txarrez joan zan etxera, bere bosteari berbetan: Andra memelak! Gripe be ienengotatik batten dabe oneik. Agertu baiño len.

Bost egun egin zitun andreak oean.

Peru zelan konponduko zan etxean, bakoitza konturatu.

Seigarren egunean tabernara joan zan ordukoxe, asi jakozan lagunak zirikatzen. Berak be begiak puztuta, erdi gaixo antza erabillan... Doministikun andi andi bat egin eban, otzikaraz. Sudur-azpian, pañelua ataraten eban lakoan, umeren baten kuleroa atara eban patrikaratik eta ez garbi-garbia.

Txo, ganbaratik ondo gabiltz geu?, esan eutsan batek.

Lotsatu zan eta arin eskutatu nai izan eban ta beste sakeletik itsumustuen beste zerbait atara, kandelak be dindilizka eukazan-eta. Zabaltzen asi zanean, len baiño luzeagoko zerbait jausi jakon eskuetan bera. Begotxu'ren lotugarria zan.

Barre algara egin eben danak.

Ume demonienak!, esan eban berak, zerbait biribildu nairik.

Peru gixajoak ume zaiñean egon bear izan eban bost egunen buruan, zer egiten be ez ekian ta nun eguan be ez. Alako denporalerik!

Peru amugiña

Zentellak artuta ebillan Peru amugiñan san Pedro txiki egunean.

Arck bere artean erabillan eramana etzan olgetakua!

Batzuen gibcla! Azi ez? Bai Akilla'ko tontorra baiño andiago be!

Ncu esaten beti: Pello, amurik bear ezkerro, sasoiz esan gero.

-Amuak? Zetarako? Beste obarik ez dago orain, bestela be!

Antxoia sasoia amaitueran, barriro be nik: Pello, sasoia ba dator eta amurik bear ba dozu...

Amuak? Gure andreak komoda zarrian diru papera baiño obeto daukaz, amuak.

Oraindik arañegun be, barriro nik: Pello, badakizu gero azken orduetan zer gertatzen dan.

-Amu zikiñekaz zabiltz orain be? Amar urteko atuntsuak emongo doguz guk daukaguzanekin.

Errepatxi! Amuak sobre ta... nun dira orain?

Gaur goizean ara nun datorren bera atea jo ta jo, zarataka, nai ta ez bere amuak emoteko-ta!

Berak errazoia, gaiñera. Emen orain ni, txori txiki zikin bat ez ba neuka lez, San Pedro Txiki egunean amugiñan.

Orrelako barriketan ebillan Peru amugiña eta konturatu be ez zan egin tanborra entzun arte pregoilaria aurrean eukanik. Onek, Kortzeleko Mamuak be itxartuteko eran, pregoia esan eban: Como ha llegau un cambion con patata, venderá kilo dos erreales, el que quiera tomar por saco que vaya ande la Pasajera».

Pregoa amaitu baiño len kurriskada otsa entzun zan goiko leioan eta andik musturra agertuta Txankustel'ek:

Ze pregoi, Matxin?

Onek, eukan genio biziagaz: Gogorra da gero beti batzuk izatea ainka sartzailleak! Amaitzen lagako dozu, ala ez? Txatxala,

biata, mika, sorgin ustela!

Barriro tamborra joten asi ta amaitu baiño len, Txankustel'ek:

Ze pregoi, Matxin, ze pregoi mesedez?

IXILDU ZAITEZ MESSEDEZ BARRITXU ORI. DIRU PARTILLA IZAN BA LITZ ENTZUNGO ZENDUN BARRUTIK BE!

Eta Matxin asi zan bere dei barriagaz: «Como habrá... cómo habrá... (Eta Txankustel'eri begirakune zoli bat egin ondoren) Barritxu demoniena! Aztu eragin daustazu zer jo bear dodan be! Txotxin, memela, ganorabako...! (Eta patrikaratik papel zati bat atara ta Peru'ri erakutsiaz)

-Peru, ze ipinten dau emen?

Zetarako daukazu papera ba?

la ba, bestela kanpotarrak pentsatuko leuke -irakurten jakin barik, neure bostean esaten dodala-ta.

Peru'k, Matxin'eri, papera irakurriaz: «Hoy habrá mante-cau...

A, bai. Tio Merke'rena da Eta deadarrez: Como habrá he-lau frio y caliente ande Tio Merke. Kukurutxo un erreal y la tanga una peseta

Txankustel'eri irrizko kiñu bat egin eta, entzun dozu ezta?, esanaz, aurrera dua

Irrizko kiñu ori igarrita, Txankustel brixak urtenda asi zan barriketan:

Ikusten berori? Eraztuna jausiko jako orreri kontixu guri azalpena emon da.

Neuk ba dakit, eta or konpon, sartu zan bitarteko zirikalari, Peru.

Naiko izan ziran alkarrentzako ziri biak, etxe betekoa aste-ko. Gogoratu be ezin leikezan berbak esan eutsezan alkarri. Eta azken baten, Txankustel'ek leioa sarratu naian, uste baiño otz andiangoa emon, eta an jausi ziran kristalak Peru'ren lepora

Len bero ba egoan, irakiten jarri zan oraingotan Peru. Aren begirakune utsa naiko zan bat konort barik lagateko.

Aztu jakon ze egiten ebillan be. Bere tresnak artu, barrura jaurti, etxe guztia tatarrez ekarteko aiñako tangada egin ateari ta asi zan joaten. Bira egin orduko nun ikusten daben Pello amuak gertu ete zitun itaunka

-Amuak? Barra musturrean atunak agertzen ba dira ao za-balik be, egon bearko zara nigaitik.

Alperrik asi zan Pello erreguka. Peru'k ez eban ezer entzuten. «Sekula bitan eternan», esaten eban berak, neuk eneban pentsaten olakorik. Eta geiagoko barik, iñori jaramonik egin barik, an joan zan, san Pedro'k bere eguna bear ba eban, Peru'k be berea bear ebalaz zarataka.

Peru Kanposahuan

Basoerdi bateri ten ta bestea irunsi, kirtenkeri eta berregarrikeriak esaten eta asmaten iñarduen bein gazte batzuk, euren artean Peru zala.

Tabernetako joko oneik apustu barregarrietan amaitzen ekien eta alaxe gertatu zan oraingo onetan be.

Kanposantura joan eta illobi edo sepultura baten ganean minutu bat belauniko igaro ezetz iñok gabeko amabiak ezker, bota eban enbido lez «Txomorrok». Kondisiño, baldintza bategaz egon ete zan edo ez ziur jakin al izateko, ezpata bat sartuta laga bear zala illobi baten gaiñean.

Peru'k, irro-arro, berak egin baietz.

Dirua batu eta apustuaren ziurtasuntzat tabernan gorde zan. Euri zaparrada gogorra zan.

Kanposanturako bidean asi zan Peru, arnas estuka, izerdi likiñetan. Kanposantua urrerago ta tuku-tuku geiago. Amabiak joten asi ziranean, iltegian sartu eta belauniko jarri zan esandako illobiaren gaiñean, biotzaren taupadei eutsi ezinda

Amar segundu igaro ordurako, geiago egoteko adore barik, zast!, ezpatea lurrean sartu eban ta jaikiten asi zan. Ezin baiña, soiñekuak ten egiten eutsalakor

Berari bildurra sartzeagaitik alboan lagunak batzuk ete

egozan pentsatu eban, albora begiratu ta iñor ez. Orduan larrituta, goitik berañoko otzikara ta otz-arradaz, deardaka asi zan, negar sispurutan: «Arima bedeinkatuak, itxi, laga mesedez, parkatu mesedez, ez nagizue emen lotu...» Eta tengada andi bat egin ondoren, zoratuta lez, estu-estu, berbia be erdi galdurik, ariñeketa bizian igeska asi zan, itsu-mustuan.

Barrez egozan lagunak, iltegiko ate nausiaren sarreran, baiña bera danen artetik zear igaro zan zer esan ez ekiala, arin be arin, iñor be ezagutu barik, zoro antzera «arima-pielak, arima pielak» baiño beste barbarik esan eta aozkatzen ez ekiala. Bai etxera joanaz batera oean sartu be, eta etxetik urten ez egun bazutan.

Zer igaro zan?

Illobi (sepultura) gaiñean ezpatea• sartzean, soiñean eroian euritako kapa gaiñetik zasztadea emon konturatu barik, ta jagitean ezin kapa ori askatu lenengoan. Gero, estutu zanean, tengada gogor eta zazkarrez ezpatea lurretik ataratea lortu eban, baiña kaparekikoagaz konturatu barik.

Etxe aurrera joan ziran beste mutillak berari jarraika, eta arein mar-mar eta zarata entzutean, orduan begizkoak kendu eta uxatzen ezaguna zan Mari zarra balkoira agertu ei zan mutillok ze algara ete ebillen jakin nairik, eta Peru orrela ikustean, bertsoan jardun ei eban:

Ai, Peru, Peru,
gure Artoberu,
zetarako apustuan
ibil, itsumustuan?

Mari, antxoei burua kentzen

Antxoa sasoian, fabrikarik geienak bardin samarrak izaten ziran. Txiki nai andi, antxoaz beteta agertzen ziran. Eta jakiña da, antxoari, burua kendu bear izaten jakola. Banan-banan kontatu ezkeru millaka antxoak eta millaka buru kentzeko.

Izaten zan dearra ta zarata naiko orrelako lantegietan. Eta

kantu eta soiñu, otoi eta erregu.

Albo baten umeak antxoei buru kentzen estropadan. Antxoaz betetako tiñak alkarren leian ipini, ume taldeak bakoitzean, eta zeñek ariñago burua kendu, estropada egiten zan. Irabazten ebanari, ariñen bere zeregiña amaitzen eban taldeari ogerleko bat emoten eutsen. Umeak pozik, baiña jaubeak poza-go.

Orrela umeak albo baten, buru kentzen; arutzago andra egiñak, burua kendutako antxoa ori arroa bateko latetan sartu eta banan-banan ipinten, «empakaten», eta bide batez autuak kontaten, erdiz-erdi entzunak biribiltzen, atzaparra zana besua lez anditzen.

Ugazaba agertzen zanetako «kopaleta» berba euken ezaugarri edo kontraseñatza, eta orduan buruak makurtuta eta ixil-mixil lanean ekin. Bitartean...

Egun orretan gangar eguna zan. Ze erabili zan an! Matxakito'ren bibotia, «Koipesto»ren moskorra, «Itxaskabriaren» dantzak, «Ainkoker'en oiñetakuak, «Mari Mielga»ren kristalezko azpiko gona barria... An ziran autuak, an! Nire belarrietara onelako esanak elduten ziran:

-Gogoratzen atzoko Anixeta'ren berotasuna?

Bele-bele kantaten ebillan, ez?

Zer dabil, baiña, emakume diamotxu orrek, beti taketa atrapata?

Alaba ordea ezkontzen jakonik ez dakizue?

Ori guzurra beintzat.

Sits eta bits zeuk jakin bear dozu dana, ala? Guzurra dala?

Auzuan bizi ezkeron nai litzake.

Ume zistrin a ezkondu? Beata lez beti eleizan sartuta dabil-eta?

-Asko ez esan, txikiña. Arek berak ba daki mamun-mamun klaus egiten.

Pozik egongo da orretara, Mikela?

-Pozik? Erraintzako begiz jota eukan eta erdi esanda be bai, eta ez dau jakin ba nobio bat egin dauala Donosti'n? Zeñeri zo-

ratu ta Miela'ri buruak artu!

Miela'k igarri bear leuke orrek ez daukala egi itxurarik.

Ezetz Orretantxe dago bera! Maskata daukazu!

-Nok daki, baiña, ori? Ni-neuk sinistu ez beintzat.

Ai fede oneko mantziña! Gaur gero... Ara, iñori ez esan, baiña neuk kontatuko dautsuet zer gertatu zan. Karterua ibili zan ate joten. Etxian iñor ez eta Krispiña auzokoak artu karta ori.

Ene ba! Asko daki Krispiña berak zeñen kartia zan. Nun-go eskolan ikasi eban berak? Jokatuko neuke mazi barrillaren txiringolia baiño o andiago bat erakutsi ta ze letra clan igarri ezetz!

-Kustiñoia da ze Proillan'eri erakutsi eutsala nundik etorran ikusteko ta...

Likona zarra da bestela be a eskolan. Zein eta gure Proillan?

Ixilik egon zaitez Laga egiozu amaitzen. Zelako barritxua da berau?

Emen berau, Mari-zistrin. Esan, esan lapiko txiki oneri autu ori, kontaten ibili daiten.

Ni lapiko txiki? Nai dozu beste bein berba ori esan ezetz? Zuk ori esan niri, gizonaren alkondararik be garbitzen ez daki-zun orrek?

Ori esan eta eskuan eukazan antxoak jaurti eutsazan arpegi-ra Mari'k bere aurrekoari. Onek bardin erantzun.

Autua berotzen asi zanr Ez zan asko bear uletatik alkarri tengadaka asteko be.

Euretariko batek bere lata antxoaz beteta eukan lez, mai ondotik urten eta latak alkarren gaiñean egoten diran tokira joiala, eurak ikusi barik sartu eta upel atzean eskutauta egoan ugazabaren arpegia igarri eban, eta ikusi ordurako, ezer pentsatu barik, itoteko moduan, «Kopaletaaa!» deitu eban deadar larri baten.

Laster igarri eben besteak zer gertaten zan. Autuak bertan

laga ta an zan ixilleko estropada! An ez eukan iñok txistik.

Ugazaba piper miña baiño zoliago zan eta brasta-brasta esaten asi zan, esan be ezin leikezan batzuk, eta mai gaiñean egozan kopaletak kontatu eta erakutsiaz bat, bi, iru, lau, bost, emen bost kopalet. Seigarrentzat neu nai nazue?

Igarri eben emakumeak zer gertatu zan. Mututu ziran.

Egal baten, aulki baten jezarrita, Mari zarra lanean egoan, ezpan artean erreza eta errezaka

Oneik andra gasteok, esaten eban gero, triskantzak egingo leukiez autu zoro bategaitik be.

Gu antxiña guzurrak itxuratzen ibilten giñan, edo al ba zan tapaten, lagun arteko karidadea gordetearren, alkarren maitasuna ez galtzearren, erriko bakea zaintzearren, baiña oneik... nik ez dakit ze aizek jota dabiltzan. Ai, gure denporetako lagun arteko lotsa!

Baiña gureak ipuiñak *ei* dira! Peru ta Mari'ren ipuiñak! Orretan dago mundua!

Peru eta Mari errietan

Peru eta Mari, besteak baiño gitxiago ez ziran lez, batzutan errietan eta alkarregaz txopinka ibilten ziranarren, ba ekien iñoiz maite-miñetan berotu eta zentzunez jokutzen.

Eta euki zituen seme-alabakr Erreskadan.

Asier zan lenengo, asierakoa. Azkena izango zala igarri eutsenari, Amaia ipini eutsen izentzatr Uzkar umea.

Eldu jakon Asier'ri soldadutzara joan bearra

Etzetik urteeran, eukezanak eta ez-eukezanak emon eutsezan Peru eta Mari'k. Azken oneik geiago, eurenik ez eukelako eta auzoan eskatu edo emonak batu zituelako.

Asier izerdi asko barik biziten oituta egoan. Eta aste bete baiño len, aoa zabalik ebillan.

Peru eta Mari'k, uste baiño lenago, karta bat artu ebenr

Mari'k ez ekian irakurten. Peru'k bai. Eta au izan zan karta

ori zabaldu eta begirakada baten irakurri ebana. Esan be egiten eban Asier'ek berak karta askorik ez ebala egingo, eta egiten ebanean lau berba bakarrik ipiniko zituala, etxeagazko lotuerarik ez galtzarren, eta etxekoen sentimentuei ikututen. Asmotxa zan eta alaxe egin be. Kartan lau berba soil eta zeatzak etozan: Ondo nago, bialdu dirua».

Ori irakurri, mai gaiñean kartia laga eta Peru mutillaren gelara joan eta ango komoda zarreko kajoiak aztertzen asi zan.

Mari urreratu, eta zitalki esan eutsan:

Zer dabilzuz Peru, beti lez dana naastuten?

la, ox dabil zure semea, bialtzeko-ta.

Zer bialdu, eukazan jantziak eroan zitun-eta?

Ez da ori.

Esaidazu ba, neuk billatu neike-ta!

-Dirua, dirua bialtzeko diño!

-Eta diru billa zabiltz?

Bilatzeko diñonez...

la, zure eskutuko kajatxoa nun daukazun.

Zeuk emonda, nik!

Eta Peru eta Mari berba gitxigaz geratu ziran kiriotsu eta asarre. Eta aidean, kantu zarra ebillan, antxiñako eran:

Peru eta Mari

biak errietan,

dirurik ezin billa

komoda zarretan.

Uretatik ataraten

Ondarru itxas aparra da, itxas bitsa, itxas lurruna. Bere arnasea, kresala.

Itxasoa dauka aurrean. Itxasoa oñetan, itxasoa gerri gerrian.

Artibai ibaiaren bidea itxaso biurtzen da egunaren ordu askotan.

Umeak, edónun be umeak dira, ta itxas ertzean ibilli nai izaten dabe sarri askotan zerbaiten billa, edo jolasean. Eta tartean

tartean jausi egiten dira batzuk uretara.

Jakiña, uretara jausten diranean, laster asten dira nungo umea ete dan jakin nairik eta beti be goiko kaleetako umeen bat izaten da, ez molla aldekoa.

Sarri etorten dira periodikuetan alako toki baten, itxasotik edo uretatik ume edo zaarren bat atara dabela ta, alako bateri edo besteari domiñak, medallak emon yakuezala.

Olakoetan beti gogoratzen naiz errietako gizon eta emakumeekin, zirazko erropak kendu barik edo soñekoak soñean, soñeko ta pitxi guztiak aldi, bete betean eta arriskuari begiratu barik dsanga egiten dabenakin, uretara norbait jausi dala ikusi edo entzun orduko. Ainbeste geratzen dira olako errietan ixilean, ori eguneroko gauzatzat etsiten dalako, inportantzirik emon barik.

Orrietako bat, ara:

Ibai egaleko molla-ertzean, zubi-zar eta kantoipe bitartean dauka dendatxua. Berak be eztaki zenbat bidar uretara salto egin daben ume ataraten. Ume bat uretara jausi orduko, ur gainean umeren baten gorputza plisti-plastaka igarri orduko, andren garraxi, txilio ta didar urduri ta larriak entzuten dira, leyo, balkoi eta atetatik edo 'ingurutako kale, kantoi, zubi, karkaba ta zurkuloetatik: Umi! Umiii! Uretara jausi da umi!

An inguruan gertaten ba da, gure gizonoi sekula ez da gelditu izan bustialdi bat artu barik.

Bein, udazkenengo egun baten, bere dendatxuan lanean egoala, kaleko zarata entzun eban ta andre garraxci larri bat: Et-et-et-et-et...!!! Eta «plaust», uretara zerbait jausi zanaren zarata, otsa, plaustada.

Bere dendatik itsu mustuan urten ta sarri lez, gure gizonak, soñekoak soñean, uretara dsanga egin, musean ibilli ta arnasa beteterakoan ur azalera urten eban, keskaz eta larri, deiezka ta arrenka: Nun dago, nun?

Umea... egun aretan, atun buru eta atun baten barruko gantzak ziran. Boskarren pisuko andra zaartxo bateri, betiko ant-

zera, etxeko zakarrak balkoitik uretara jaurtitzera eioala, eskue-
tatik txirrist egin eutsan paketeak eta kalera jausiko yakoalakoan,
kaletarrei deika asi zan, et-et-et-et *dei* urduri ta larri arekin.

Ille batzuk geroago, beste alderdi baten, neskatil bat uretara
jausi zan, eskalletan olgetan ebillala. Ez ekian igarian. Ta berari
begira eukan mutil gazte batek, trajerik onena soñean eukala
konturatuta, eutsi, eutsi pixkabaten, deadar egin eutsan, eutsi al-
datzera noan bitartean!

Ori entzun eta jakitean, lengo zaarrak esan *ei* eban: Nire
modura ondarrutar odola euki ba leu..!!






*Eleiz inguru eta goietako «Mamuak»
Kontu jakítunik onenak eta mutuenak.*

ZIMARROI ZARRA

1983.ko «BERMEO» Literatura Leiaketan, saritua



ZIMARROI ZARRA

Egunero egiten eban ibillalditxoa Diopil'ek.

Etzetik urten, Torronterura joan, andik Salbatxe, Boniatx, Laisuek eta inguruak begiztu, ta eguerdiko basoerditxuren bat artu naian Lamera aldera urreratu, Kofradi atzetik, gaztelutik zear laguntzarrak ikusi eta portuko ontziei «errepasua» egin eta an batuko zan, molla aurreko taberna zuloren baten bazkaitara-ko ordua eldu arte.

Egia esateko, ez zan edantzaillea. Azurrak ez gogortzearren eta kontuak jakin naian egiten eban bere urteera ori. Eta San Miel'go eskalletan gora etxeratzen zan.

Arratsaldian etxe inguruan geratzen zan.

Arratsaldia luzeegi zala, esaten eban, ta nok zer emongo begitansiñorik eragin barik, etxe aurrean ibilten zan, auzokoei euren itxas tresnak zaindu, eratu edo gertuten.

Aparixuan mokolojiak eta nasteak, tertza enpatxuak azkatuten, esku oneko zan. Berak esaten ekian eskuak bakarrik barik, begia be argi bear zala onetan, eta batzuk lez tabernarik taberna ibilli ezkeru, durdura sartzen zala igarri barik. Ezpane an erabilten eban esaera zarra: «Agure zarra durdura, zopak jan eta egin logura».

Eta bein berrogetak urte itxasotan ibili eta gero... ez egon mai-egalean erdi lotan iñoren barregarri egotekotan.

Sarri elduten dira Bermio'ra bilbotarrak-eta, arrantzalien bizitza eta gauzak jakin nairik.

Orrelakoetan Kofradian lepoa jasoten dabe eurak arraiñari eskamak kentzen ibilteko denporarik ez daukela-ta. Orrelako esaerekin bialtzen zituen «fede onian» Udaletxera. Ango morroiak tutik jakiten ez daben lez, orreik itxastarren gauzak dirala-ta, erriko zarrekana joan eragin. Eta kalean zerbait igarri ordurako, umeak be jakiten eben orrelako gauzetan «eskolaue», nai ta firmaten ozta-ozta jakin, Diopil zala.

Eta onek, igarri ta bereala, birritan eskatu barik, kordak uretara jaurtiten lez ekiten eutsan berak ekiana luzatzen:

Ni nor naizen?

Diopil arrantzalia.

Ez dakit, garbi esateko, nire abizenik, apellidurik.

Izena, abadiak esan eustanez, Tiopillo da, baiño Diopil dei dauste. Ala izango da gure berbetan.

Erri guztian Diopil Olagarro lez ezagutzen nabe, nire gura-soak, aititak eta arein aurretikoak be Olagarro deitura edo gaitzizena eroaten ebelako.

Nik dakidala, gure odolekuak beti izan ziran arrantzaliak.

Arrantzale lez pobria eta pobre lez zeruko loria, esaten ekian, mindu bearren arro, gure ama zanak.

Ni, txikitan, gose asko igaroa naz, nai ta udaetan asun tatoakaz loditu. Ez ni bakarrik. Erri onetan danok.

Atun tatoak jan eraginda indartzen ziran gure denporetan umeak eta zarrak. Oraingoak, atunak sikatu egiten dabela ta orrelako aitzakiak ipinten dautsez. Txo! nungoak gara geu ba? Beti nai aiña ba lego..r!

Gure ama zarrak au esaten eban: Don Domingo abadiak be ori ipinten dau gero «Kresala» irakurgaian. Emen lenago be umiak atun oekaz janaritzen zituela, eta arek asko ekian gero!

Gure ama ondarrutarra zan. Andik ezagutzen eban arek abade a. An alargun geratu ta abaderen batek billatu eutsan emen bere antzera egoan laguna, ta gure aita be itto ez ba litz, «Olagarroz» beteta lagako eben Bermio gutzia.

Ogia be kozkan emoten euskuen, ortarako eroan bear izaten gendun zotzean ogi bakoitzeko koska bat eginda, antxoatan edo atun sasoiari ordaintzekotan.

Eskerrak antxoari! Ba dakizu zer esaten eben gure denporan? Antxoak jakingo ba leu zenbat zor ordaintzeko daukazan, bururik ez leukela agertuko. Eskerrak arrain areri!

Eskolara joan baiño, eskola igesi geiago ibili nintzan, nai ta aitaren alkondara zarrez egindako «karteria» beti Katon'agaz erabili.

Ortozik ibiltzen giñan gure ume denporan, eta brusa izaten zan gure jantzia, edo amak añatzatik ekarten euskuzan jertzak.

Aita be brusagaz ezagutu neban, maonezko brusagaz eta amuma il zanean auzoko etxe baten laga eutsen «okasiñoetarako» txamarria, eleizara txukun joateko.

Olaxe bizi giñan, eta itxurak baiño urte gitxiago daukadaz

Itxas bizitzaren. barri ondo dakit. Lenakoena, geienbat entzunda. Oraingoa, sinistu be ez egiteko aiña aldakuntza ondoren, ni-neuk bizita

Gaur...

Euskalerriko kaiak, portuak, arrantzari dagokionez, egokitu egin dira, bai bertako nasa (molla) eta tresnei begiratuta, bai eta itxasontzi edo txalopen goraberran.

Gaur motorrak, dira ontzietako indarrik nausi eta ezagunak, ia bakarrak.

Lurrin ontziak baporak, lengo gizaldiaren azkenetan asi ziran emen sartzen.

Esaten dabenetik Donosti'ko «Mamelena» entzutetsuak ziran orrelako lenenak, Inghaterratik ekarrita. Emen Bermio'n gure gizaldiagaz batera, 1900 urtean, asi ziran arrantzarako ontzietan sartzen.

Aurrerapide andia izan zan, baiña biar asko emoten eban eta zikiña zan.

Emengo «makinista-fogoneruak» legramua baiño baltzago

bizitzen ziran, arrikatz pastillak gabarretatik bakoitzaren txalopara eroan, sartu eta orrelako biarren ondorenez Ezkuz egiten zan dana.

Lurriñezko ontziak, baporak, arrisku ugari euken itxasuan. Ainbat lertu ziran igarri barik, edo ezaupiderik ezagaz

Ordurarte egozan txalopa andiak erraz be erraz egiten eben tira-bira, maste nausi luzeak eta belak aizetan eben indar, zotin eta eroso aldiak, konturatu baiño len aidean eta tatarrez erabilten zituelako.

Txalopetako belak ba eukezan euren izen jatorrak: Nagusia, trinketa, bitartekoa, burriketa, balistoia, artzaina eta abar. Gure txalopetan sei orreik ziran erabilienak.

Gaur sareak be niloizk, oak dira. Uretatik atara-ala sikatzen dira eta ez dabe zeregin an Iirik emoten.

Gure denporetan arizkoak ziran, eta itxasoan erabili-ala legorrera atara bear izaten ziran, agaetan eskegi eta sikatzera. Gaiñera urtean bi-irutan tintatzera eroan bear izaten genduzan.

Molla-egal, barra-ondo eta al zan tokian egoten ziran sareak sikatzeko agak. Asko bear izaten ziran. Geienetan txalopa bakoitzak bere toki jakiña eukiten eban. Baiña toki ori lortzeko, erririk geienetan gabonzar eguneko gabeko amabiak jotean, txalopetako jaubeak eurak aukeratutako tokietan estakak sartzen zituen, urte guatirako agak toki aretan ipinteko eskubidea artzeko.

Len sareak, kortxoak eroaten zituen goian, azalean eusteko, eta beian beruna, sarea zuzen geratzeko, eta alaxe lagaten ziran itxasoan, arraiñik ba egoan edo ez «abenturan» luzatzen ziranean, euren ingurutik igaroten zana sarean sartuta, «enpatxata» geratu eta arrantzatu al izateko.

Sareko arrantza orrek, gero kaira etorri eta saretik arraiña banan-banan ataratea eskatzen eban. «Depeska» deitzen jakon zeregin orreri eta gau osoa itxasoan igaro ondoren, barriro orduak eskatzen zitun molla-aurrean edo arlanpetan arraiña saretatik atara eta saltzera eroateko.

Andrak eta umeak be zeregin orretan lagunduten eben eta lagundu bear, barrero itxasora urtetea nai ba zan.

Orain sareak, batzuk, ondoan erabilten dira tatarrez, «arrastera» deitzen dan eran. Asieran tira luzeak eukiten dabez, eta gero, estutu ala, atzean, mailla lodidun sakua, egalak artu edo erabilten daben guztia saku orreitara sartzeko eran. •

Sare oneik ez dira geldi lagaten, erabili baiño, itxas ondoak arakatzen. Eta mota askotako arraiña batzen da saku orreitan.

Orrelako sareak darabillezan ontziak bikoteak izaten dira geienetan, «parejak», ontzi bakoitzak sarearen egal bat lotu eta bien artean sarea arrastaka darabillala. Ba dagoz lan ori bakarrik egiten dabenak, au da, «bou» edo «Bakak» deitzen dautsen txalopak. Oneik egur edo burdiñazko ateak lakoak zabaltzen ditue euren atze aldean • alde banetara eta ate orrei lotu sarea, orrela biren zeregiña ontzi bakar batek egiteko eran. Onelako ontziei «atedunak» deitzen dautse.

Baiña orrelako arrantzan bermiarrak be ibiliarren, emengo ortarako txalopak beste portu baten, geien be Ondarroan dauke euren kaia.

Emen len esan dogun sareko arraintza galdu zan eta orain «manjua», «traña» «bolintxe» eta beste eratan geiago ibilten dira sasoi danean.

«Bajura»ko arrantzalien oituretan, ur goietako arraiñak moltsotan inguratu, kopatu, eta euretan batzen dana, len nekez eta ezin jasota erregin edo sarabardoekaz txalopetara batzen ebena, orain «aladoaren» bidez errezagot eta ariñago egiten dabe. Bai eta «txupoiekaz» be.

Len itxasoan arraiña nun ebillan «gorrietatik» igarten zan, edo itxas azalean ibilten zanean «blankuretatik».

Askotan leorretik talaixeruak suaren bidez jakin eragiten eutsen txalopei nun ebillan edo nun egoan arraiña.

Talaixerja portu inguruko mendi edo tontortxu baten egoten zan: begirale (kataleju) luzeak eukiten zitun, eta egunik geiena itxasora begira igaroten eban, batzutan txalopak zaindu

eta bestetan arraiña nun ikusiko. Eta arrain moltsoa igarten ebanean, sua biztuten eban bere aterpe edo talai albuán, ota eta lar ezeekin ke baltza atara eragiñez Eta itxasoan ebiltzan txalopak konturatu eitezán arraiña gitxi gorabera nundik ebillán, talairen alde bat edo bestean egiten eban ke ori, orrela zuzenbidea jakin edo igarri eraziz.

Bestetan, batez be arrain txikietan, izurdak edo «arrain gaiztuak» ibiltzen ziran ingurutan, arrain txiki ori irunsi nairik eta ortik igarten zán, euren atzetik ibiliagaz, arrain moltsoa nun egon eikean.

Gaur txalopak, itxasoan dabilzának, gaurko teknikazko ikusgaillu eta iragarleak daukez, ondoetan dabillán arraiña jakin eragiteko. Ala radar, godnio, elektra-sonda eta besteak.

Len txalopak, arraiña artu-ala, portura croan bear izaten eban. Gaur izotza eroaten dabe edo «frigoak» daukez, ordu luzetan edo egunetan arraiña gardeteko. Emen Bermio'n 1933 urtean asi ziran «gela» eroaten.

Lenengotan, jendeak ez eban ondo ikusten, arraiñari azala galdu eragiten eutsala izotzak, bere osotasuna kendu eta antzera-ko aitzakiak ípiniz. Gaur ez dabil iñor orren aurka, eta bere mesedeak ugariak dirala autortu bear.

Gure denporetan, urrunera joan bear giñanetan, gatza eroaten gendun bertan gatz aide bat emoteko.

Arrain freskua plazetara bialtzeko len otzaren gaiñean irak (garoak) ipintzen zituen burdietan beroak ikutu edo galdu barik joan eitezán. Gaur kamioi ederrak eta bide onak dagoz edonora egunaren barruan bialtzeko.

Euskalerritik Castilla'rako bideak lengo gizaldian egin ziran, eta entzutea daukat Lerma'ko zubia egiteko (Burgos'en), itxas portuen mesederako be ba zala-ta, emengoak curen zatitxoa ordaindu bear izan ebela

Bestetik gaur arrain asko, antxoa, sardiña, txitxarro, berdel, makarel, atunkiak eta abar, gure errian dagozan lantegietan zaindu eta gertuten dira, orrela konserba janari lez saltzeko. Baiña

antxoa gazitua eta erbestera bialtzea gure gizaldiagaz batera asizan. Italiarrak izan ziran onera etorri ziranak eta eurentzat gertutentzen asi.

Beste arraiñak «eskabetxean» bakarrik ipinten ziran, brixidu eta ozpiñetan, eta barrika (upel) txikietan sartuta saldu, oraindik ojalatarik ezagutzen ez zalako.

Len gure txalopak ainbeste joan etorri egiteko egokitasunik eta alik ez eukelako, atunerako denporan Santoña aldera joaten giñan edo Asturias'era. An ondo arrantzaten zan arrain ori eta dirua lagaten eban. Origaitik ara joatean «Santoña-Ameriketara» giñoiazala esaten gendun. Eta andik ibiltzen giñan, illa ta erdi inguruan.

Orduan potin andi edo txalupa andietan joaten giñan.

Atunetarako aparixuak eroaten genduzan. Aparixu orreik, soka, loro, tantza eta amua eroaten eban. Amuzkitzat malutak ipinten genduzan amuan. Maluta arto buruetako azala izaten da. Ba egozan emen arto denporetan orri orreik batzera baserrietara joaten ziran gizonak, eta gero, batu ondoren, ganbaretan sikatu eta txalopei saltzen eutsenak. Tantzea, zaldien buztaneko zurda izaten zan.

Gaur, ontzi bakoitzak, arrain bizia gordeteko toki bereziak daukaz, «bibero» deitzen dautsenak, eta sasoia eltzen danean, Bilbo'ko Abra, edo ingurutako arrain tokietara joan eta batzen dabe «karnatea», au da, antxoa txiki, txitxarro edo antzerako arraiña eta «bibero» orreitan bizirik sartu eta erabili. Gero, ur andictan, txalopen aurretan abor-estibor espetak zabalduetea, aparixuak euretatik dindilizka daroezala, atun billa asten dira. Bestetan, nun egon leiken igarten dabenean, arrain bizia jaurtiten asten dira, aren atzetik atunei urreratu eragiñaz, eta gero sareagaz inguratu eta bera arrantzatzen ekiñaz.

Emengo txalopak gaur ez dauke bildurrik atun billa Azores'etara joateko be, eta joan be alaxe egiten dira, gaurko teknikak bakartadearen bildurra galdu eragiten dabelako.

Gaur askorentzat, Canarias eta Dakar'era joaten be, len

Elantxobe'ra joatea baiño errezago egiten da.

Lengo txalupak, au da, plata, txanel, batel, treiñeru, meñaga, txalopandi, potiñandi, bapor, bolintxeru, eta abar, gaurko motor andi eta arrasteruei bidea laga eta tokia emonda galdu ziran.

Len eskuz erabilten ziran ontziak edo ta aizearen indarrez. Orretarako erramuak bear. Gaur erramuak premiñan baterako bakarrik eroaten dira eta banakaen batek. Len txalopandiak belaz beteta joaten ziran. Gaur bakarren bat edo ta ziurrago batez.

Len ontziak lotzeko arlanka, arpeua, karpina, ankillia erabilten ziran. Gaur azalean lotzeko txupoiak.

Arrantzarako sareak, len, mailla-bakarrak, iru-maillakoak, bolintxa, sareak eta treiña izaten ziran. Gaur geien erabilten diranak arrasteko sare lodiak dira, edo ta bestela, bajurakoetan, treiña.

Trein batek bereak ditu: berunak, mamiña, kortxoko soka edo erlenga eta beruneko erlenga, goiburua eta bietzak.

Bein zabaldu ondoren, edo itxasora jaurti ondoren, era onetara deitzen dautse: Eskua, papuak eta beiak.

Sarea brazaka neurritzen da. Batez be trein bakoitzak 180 braza eukiten dauz luze eta 50 braza sakon. Braza bakoitza metro bi dirala kontuan euki

Sare oneik, arraiña erara etorri ezkeru, milla kilo asko, erraz inguratu eta arrantzatu leikiez.

Oneik, eta beste asko, nik dakidazanak dira. Eta ori, eskolan ibili barik eta gaurkoak lez ikasi barik.

Eta entzutetik...

Gaurkoak antxiñakoa jakitea be komeni dala uste dot. Ori gaitik zerbait esaten asi gaitezen.

Zer egiten ete eben itxasertz onetako arrantzaleak antxiñetan?

Antxiña, ur ertzeko arraiñak, jateko lain emoten eban, bai-

ña ez biziteko. Origaitik arrain andien billa ibili bear izaten eben, urterako koipe eta gantzak arrain andiak emoten zituelako. Arrain saiña daituten eutsen.

Benetan arrigarri izan zan gure zarren bizia, batez be, arrisku andietan, arpoiak baiño beste izkillu barik, arrain andien atzetik ibili bear izaten ebelako. Ortik sortu ei zan bale-arrantza

Esan be egiten da, amargarren gizalditik amasei garrenera, euskaldunak zirala munduan bale arrantza eta bere industri eskuetan eukenak eta geien ekienak.

Lenengotan ementxe ibiltan ziran, gure itxasertzean, abere orren atzetik. Sasoi aretan, jakitunen artean, bizkaitarren balea deituten ei eutsen emen artzea zan ereduari. Italiarrak euskaldunen balea aitatzen ei dabe eurekin egin ziran itun edo tratuetan.

Geroago, bale jatorrak 'galdu edo aldenduetan, beste andi mantsuago ziranak agertu ziran emendik. «Seda» deitzen ei eutsen emengoak.

Neguko arrantza izaten zan emen bale-arrantza

Jakiña, batzuk esango dabe ia arrantzale batek zelan deitu leikion arrantza zeregin oneri, danok dakigulako baleak izabeareak dirala, itxas abereak, eta ez arraiñak. Baiña ori baiño pekatu andiagorik esaten da orreitan eta iñor lotsatuten ez clan lez, guk be geienak edo asko zabaldua erabilten daben esaera erabiliko dogu. Egia esateko, gaurko gure gazteak izena bera be galdu egin dabe eta bale orde, ballenia erabilten dabe. Or be ba dago pekatua.

Baleak, emengo urak epeldutean, Artico' a joaten ei ziran.

Gure zarrak esaten eben lez, itxas orratza (konpasa) agertu zanean (eta ori, diñoenez, orain sefreun urte inguru izan zan) arraiñen segika urra nduten asi ziran emengo arrantzaleak. Andik berrogei urte geroago eldu ei ziran Islandia'ra eta beste eun urte geroago Groenlandi ingurutan ezagutzen ei ziran. Berrogeitik eun tonelada bitarteko txalopetan joaten ei ziran.

Orduan ez egoan, gaur lez, berreun millako buruausterik!

Emen ibiltan ziran artean, eukiten zituen bateko ta besteko asarreak, batekoak balea ikusi ta arpoia sartu ta bestekoak bera-gaz jaubetzen ziralako ta abar.

Ortik etorri zan geien bat be arrantzaleak, euren buruak aldeztuteko, alkartasunak sortzea. Au da, gaurko Kofradiak sor-

tzea. XIII garren gizaldirako ba egozan Kofradi oneik eta geria-go ezagunak dira bale-arrantzari buruz Donosti, Mutriku eta Getari'n artutako erabagiak.

Askok nai izaten dabe jakin emen Bermio'n noiz sortu ete zan Kofradia.

Emen, ziurtzat emoten dabenez, 1353 urtean egin zan Kofradiako legeak paperetan ipintea. Eta bertan esaten da, lege orreik etozala, bosteun bat urte aurretik, gizonak be gogoan ez eukezan denporetatik... Eta emen lez, Lekeitio eta Ondarroán be.

Bale arrantzako erabagietako baten garbi azalduta laga eben, bein portu batekoak balea jo eta zauritu ondoren, beste-koak ez ebela bertara urreratu bear.

Terranoba'ra joaten ziran galeoietan larogei lagun inguru joaten ziran danen artean, eta galeoia prest egoanetik asi eta beste bederatzi illabetetarako danentzako ogi, sagardau eta ardau eroan bear izaten ei eben.

Esaten dan lez galeoi bakoitza beteta etorten zan andik; arraiñandik gain, milla ta berreun barrika 'sain inguru. Kapitan, pilotu eta arpoilariei, soldataren gain, saiña emoten ei eutsen, amarna edo ogeina barrika.

Orrez gaiñera baleen bizarrak be emoten eutsezan. Baleen bizarrak mandibulako alde bakoitzean 250 egoten ziran. Bizarrak barik, ala deituarren, azur antzerakoak ziran. Eta berebizikoak aiztoen (kutxiloen) kirtenak, kortseen eutsigarriak, abanikoen egalak, kapelen tentegarriak eta antzerako sendogarri edo gogorgarritzat.

Inguru oneitan arrantzaten ziran baleetako miña, bear ba da paparra esatea egokiago litzake, eleizari eskintzen zan eta zati bat molla eta kaiak egokitzeko.

Lengo euskaldunak, Terranoba'ra lez, Canarias aldera be joaten ziran antxiñetan.

Lanzarote ugarte (isla) euskaldunak billatu eta menderatu ebela esaten da beintzat. Urtea be esaten dabe: 1392.

Sasoi orretan euskaldun pil"otoentzat Ikastetxe bat egon ei zan Cadiz'en, esaten dabenez, arrantzatik kanpora, euskaldunak izan ziralako Mediterraneo'n ibili ziran merkataririk ausarditsu eta bizenak.

Ainbeste esan eta esan eta oraindik Diopil'ek tantza luzea eukiten eban.

Berak, naste-borraste, arrantzalien jakingarriak ziur agertzen zitun. Eta azken baten esaten ekian:

Ni arrantzalia naz. Eskolan ibili barik, asko ikasia. Bai arrantzan eta bai itxas gaietan.

Luze eta ordutan jardungo neuke, batez be guk ezagutu dogun biziari buruz. Eta negar eragin be bai, gure estutasun, larritasun eta tirabirak kontaten asi ezkeru. Abe Marie! Orretan dago zer konta ba!

Bañña beti negarrez eta illeta joten ez gara ibiliko,-ezta? Olakoentzat or dago goian, etxe andia

Gaur, zorionez, itxas gizonak len baiño arrisku gitxiago dauke; itxas-lana lenbaiño erosoago egiten da; irabaziak, alegiñaren truke, len baiño onura geiago dauker..

Eta dana esan bear al dogu egun baten?

Dana esan ete eutsan Peru Abarka'ko baserritarrak Maisu Juan'eri ao zabalik laga ebanean? Bakoitzak berea eta urrengoak geiago.

Ni Diopil arrantzalea naz Gaur ba dagoz milla kapitan geiago esan leikenak. Emen Bermio'n bertan ber.. Au Bermio da gero!

Eta orrelako gauzak doan (debalde) esan eta agertzen diran lez, Diopil bizi zan lez il be egin zan, borondate andiko gizon, baiña errukarri.

Il baiño lentxuago, etxeko illoba txiki batek itandu eutsan:
-Osaba, zu orain gaztetuko ba ziña, zer naiko zenduke izan?

Eta ainbeste ekian arek, ainbeste naigabe eta itotasun eroan eban arek, berak sarri abestuten ekian au gogoratu eragin eutsan illobatxoari:

Leor eta itxasun
arrantzale beti,
uda ta negun
arrantzale beti,
barriz jaioteko
arrantzale beti,
nai ta itoteko,
arrantzale beti!



IZTEGI LABURRA

- Abor-estibor.** Ontzi baten ezker eskuma.
- Adin:** Urteak, edadea
- Agaetan eskegi:** (Colgar en los paños).
- Aiñatza:** Andrak, besteen umeak azten egiten eben denporaldia
- Amu:** Arrantzarako gaillua.
- Amuzki:** Amutan ipinten dan jantzia
- Arlanka: Itxasontziak ondoan lotzeko tresna.**
- Ankilla:** Arlanka txikia'
- Arpeua:** Erderazko arpón.
- Artegatu:** Urduritu, keixatu.
- Asunakin blastiatu:** Asunekin igortzi.
- Atabaka:** Egurrezko "kajatxua.
- Atoian croan:** Lotuta erabili, atzetik
- Ausartu:** Atrebidu.
- Auskan:** Alkar jotzen.
- Bale:** Ballena
- Blast:** Zerbait jausi edo botatzeko egitada.
- Bela:** Ontzietan zabaltzen dan euna; velamen.
- Berun:** Plomo.
- Braza:** Beso zabaldunen neurria
- Brusa:** Blusa
- Egur ezea:** Egur buztia.
- Erramua:** Arrauna, remo.
- Erramutan:** A renio.
- Erlenga:** Erlinga.
- Erresaka:** Uraren sakada indartsua.
- Esparbela:** Arrantzarako sare mota bat.
- Eskola igesi:** «Eskolakiesi», eskolara uts egin.
- Euin sarga:** Zirrikitona
- Gizaldi:** Mende, siglo.
- Gooldi:** Itxas musgoa.
- Gorriak:** Arraina molto soan ibiltzan, ur gaiñean lagaten daben illuntasuna.
- Inkesa. Inkaza:** Negar biurria
- Izurdea:** Tonina, itxas urdea.

Ira: Garo, helecho.

Izotza: *Gela*, hielo.

Kalapitxi: Mitxeleta

Keixu: Urduri.

Karpifia: Askotarako amua (Anzuelo múltiple)r

Kosterrez: Itxasertz inguruan, alb otik.

Kotak kenduta: Ondo gertuta

Laidoa: Desprezioa

Laifioa: Gurena

Lapax: Lapa berbatik izen itxura emona.

Lasta: Karramarrau zapala.

Legorra: Lur aldea. Bai eta zikua.

Lemakania: Lemako burdiña.

Lemia: Ontziak gidatzeko tresna.

Loro: Alambre.

Makallau: Bakallau.

Makatza: Madari zugatza.

Mamarro, mamorro: Kukaratsa.

Mandazaifiak: Mando-zaiñak. Carreteros.

Maonezko brasa: Mahon eunagaz egiña. Urdiña.

Marraskillo: Karakola.

Mantzotu: Bigundu.

Marmoka: Erderazko medusa.

Matrail: Arpegiko matrailla. Carri-
llo.

Mazia: Arraiñak arrapatzeko erabilten
dan arrain arbi edo antzekoa.

Mendetu: Mendean ipini.

Meñaga: Ontzi txikia.

Muxarra: Arrain izena. Erderazko
Mucharra, pargo.

Olagarro: Amarratsa, pulpo.

Ondoa: Itxas berbetan, itxasoaren
beia.

Ondora joan: Itxas azpira joan.
f₁ | e a doak: Ogi ondakiñak.

Ogia koskan emon: Zorretan era-
ten ebenak, ol zati bat eroaten
eben eta ogi bakoitzeko koska
bat egiten eutsen ogikiñak.

Otza **ra** = Oñietako barik.

Otzara: Otarra, zeztua.

Ozpin: Vinagre.

Plata: Ontzi txikia

Potozorri: Erderazko ladilla.

Sapa: Itxas ertzetan ibilten dan
arra **ñ** bat.

Setatsu: Gotor, terkoa.

Sits: Polilla.

Soka: Cuerda.'

Talaixa: Itxas ^{tal}_a ^{ye} leen tokia

Talaixerua: Atalayero.

Tantza: Zurda, pita.

Tato: Zati.

Tolla: Arrain mota bat.

Tollanak emon: Arrain mota ori il-
teko jotzen dalako, dator esaera au.

Tertz: Palangre.

Treifia: Sare andia.

Treifierua: Trainera.

Trebol: Aparixuak lotzeko lau al-
derdiko laukia.

Treotzara: Tertzak erabilteko otzara.

Txanel: Chinchorro.

Txikifia: Txikia.

Txotxin: Memela.

Txipar: Indarrezko bapora.

Turrun: Itxas ontziaren turuta.

Txurla: Ontziak egiten daben albo-
rakada

Unore: Gogortasun, reuma.

Urkula: Horquilla, charrango.

Uzkar ume: Azken jaioten dana
sendi baten.

Zakatz: Arraiñaren agallak.

Zirri-zarra: Ekaitz egunetako uren
ibillera.

Zurbil: Bildurti, ikarati.

Zurrumbilloa: Itxas ubilla.

AURKIBIDEA

ORRIALDEAK

AZALPENA	4
ESKINTZA	5
GEUK IKUSI GENDUZAN	7
EZTITXUEN GIBELA	13
PERRETXIKO ZIRINAK	23
ZURIÑE BIOTZ ANDI	29
NEKARRAIN	37
GABONETARAKO BESIGUAK	43
BILBO ETA JENTILLAK	49
GOGORRA GERTATU DA ZUEN ERRIAN	59
GANTZERUAK IZAN DIRA	75
AMONATXO ZAARRAK ETA UR TXAKURRAK ..	89
IZARO INGURUAN	105
«LAPAX» ETA «MUXARRA»	119
DORRONDU	129
ITXAS LAPURRAK	141
FEDE ONEKUAK	157
«TOLL» UR TXAKURRA	167
ULE BALTZ	175
ESKALEAREN ERIOTZA	185
PERU ETA MARI ONDARRUTARRAK	193
ZIMARROI ZARRA	209
IZTEGI LABURRA	223